# Goienkaria

2010eko otsailaren 26a > Egubakoitza > X. urtea > 411. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM



"Jendearengana heltzeko, gauza izan behar dugu museoak erakargarri egiten"

**Pilar Azurmendi** Gipuzkoako Ondare zuzendaria > 08

**G2a** Nagore Igartzaren argazkiak ikusgai Bergaran > 31

**ARRASATE** Bost istripu eta luizia gertatu dira Olandixoko tuneleko lanetan > 12

**OÑATI** 2009-2012 aldirako estrategia aurkeztu du asteon Udalak > 20

**KIROLA** Frontoi motzeko emakumeen gomazko saria Bergaran, etzi > 28

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 04-05
**Iritzia** > 06
**Gutunak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Herriak** > 11-27
**Kirola** > 28-29
**Kultura** > 32
**Sailkatuak** > 34
**Gazteak** > 35
**Telebista-Irratia** > 36
**Zerbitzuak** > 36
**Berri-zakua** > 37
**Eskelak** > 37
**Non-zer** > 38-39

**JENDARTEA** > GERTAKARIAK

# Eskoriatzan eroritako mendi magalari pareta batekin eutsiko diote

**PROIEKTUA** Asteon jaso dute proiektua udaletxean; paretaz gain, sare metalikoa ere jarriko dute

**226.660 EURO** Enkantera kopuru horretan aterako dira lanak eta maiatzerako bukatu beharko dira > 24

**POLITIKA** > EUSKAL PRESOAK

## 96 hautetsik bat egin dute Elkoro askatzeko

1976a ezkero Bergaran zinegotzi eta alkate izan diren 96 lagunek bat egin dute Jose Luis Elkoro Bergarako alkate izandakoaren askatasuna eskatzeko. Helburu horrekin lantaldea osatu dute. > 04

## E-maitzak, bistara

E Planeko Tokiko Inbertsio Fondoen 10,7 milioi eurorekin ia 30 obra egin dira; beste 6,8 milioi etorriko dira, 25 proiektu egiteko > 02-03



LEHEN



ORAIN Eskoriatzan, Olaetako frontoia estali dute.

XABIER URTZELAI


Aranburuzabala-Arana kalea Eskoriatzan.


Bideberri-Zubieta, Bergaran.


Bi noranzkoko bidea Bergaran.


Irala kalea, Bergaran.


Boluko igogailuak, Bergaran.


Bidegorria Aozaratzan, Aretxabaletan.


Mitarte kalea, Aretxabaletan.


Aldai parkea, Arrasaten.


Santa Kolunba ermita, Gatzagan.

**UDALAK** > OBRAK

# Hirigintza lan handiak egin dituzte udalek E Planarekin

**DIRU-ITURRIA** Tokiko Inbertsio Fondoa diru-iturri ona izan da udalendako, eta euren kabuz ezin egin zituzketen obrak egin dituzte

**EPE BARRUAN** Bailarako obra gehienek epe eta dirulaguntza mugak bete dituzte; lau kasutan, epea luzatzea eskatu behar izan da

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Espainiako Gobernuak E Planaren bitartez sortu zituen Tokiko Inbertsio Fondoekin egin zituzten proiektuek emandako eginbeharrak ahaztuta geratu dira; obrak bukatu dira, eta emaitzak begi bistan daude. Izan ere, Madrildik jasotako diruarekin –10.725.627 euro– 29 proiektu eraman dira aurrera. Proiektu handiak izan dira, herrian ere halako eragina dutenak.

**URBANIZAZIO LANAK**

Obra gehienak Espainiako Gobernuak hasieran ezarritako epearen barruan bukatu zituzten udalek; hau da, 2009 bukatzearekin bat. Udal gehienek hirigintza proiektu handiak eraman dituzte aurrera: erdiguneko edo leku esanguratsuetako guneak egokiago urbanizatzea, praktikotasuna, erosotasuna, irisgarritasuna edo egokitasuna kontuan hartuta (Bideberri-Zubieta gunea berrantolatzea eta Irala kalea berriz urbanizatzea, Bergaran; Euskadi Etorbideko irisgarritasuna eta postetxe inguruko urbanizazioa, Oñatin; Kalegoi, Antzuolan; Aldai parke guztiz eraberritua eta Erguin auzoko eskailerak, Arrasaten; edo Aranburuzabala-Arana kaleko zoladura aldatzea eta San Pedro auzoko zati batzuk berriz urbanizatzea, Eskoriatzan, dira horren adibide batzuk); Udalaren edo herriaren eraikinak berritzeko proiektuak ere izan dira (Elgetan, hiru udal eraikinen teilatuak berritu dituzte); kasu batzuetan, saneamendu azpiegiturak edo edateko ur sarea instalatu edo berritu dira (Mitarte kalean, Aretxabaletan; ; bidegorriak egin edo baserri inguruak egokitu dira zenbait kasutan (Aozaratza auzoan bidegorria egin da, Aretxabaletan; eta baserri batzuetan hormigoizko bidea egokitu eta beste egokitzapen batzuk egin dira, Eskoriatzan); kirol instalazio batzuk ere nabarmen txukunago eta erabilgarriago daude obrak egin ondoren (Eztala futbol zelai eta estadioa, Antzuolan; edo Olaetako frontoia, Eskoriatzan); eta, beste batzuetan, herriko ondare diren eraikin historikoak txukundu dira (Sastiñako ermita, Aramaion, edo Santa Kolunbakoa, Gatzagan).

**ONDO APROBETXATUTAKO DIRUA**

Gehienak obra handiak dira, hortaz, eta aurrekontu handiak behar izaten dituztenak; hala, Santa Marina auzoa berrantolatzeko bi proiektuen artean, bi milioitik gorako gastua izan da; milioi euroa baino gehiago kostatu diren beste bi proiektu izan dira; eta 700.000 eurotik gorako beste hiru, garestienak aipatzearren. Tokiko Inbertsio Fondoa krisiari aurre egiteko neurri gisa sortu zuen Espainiako Gobernuak, udalek ere diru zailtasunak zituzten une batean, alegia. Horregatik, dirulaguntzok oso ondo hartu dituzte udalek: "Udal batek bere kabuz ezinezko izango zituzkeen horrelako proiektuak egitea. Oñatiren kasuan, hiru obra handi izan dira, eta ondo aprobetxatu ditugu eman dizkiguten baliabideak", dio Oñatiko Hirigintza zinegotzi Angel Biainek.

Iritzi bera du Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek. Hark dioenez, "diru-iturri garrantzitsua" izan da Tokiko Inbertsio Fondoa Eskoriatzako Udalarendako, eta jasotako 752.000 euroak ondo baino hobeto aprobetxatu dituzte, herrirako hamar obra egin dituzte-eta. Denak epe barruan eta aurrekontu-desbideraketarik gabe bukatu dituzte, emaitza egokiekin.

**BOLUKO OBRA, LASTER BUKATUTA**

Proiektuen emaitzen gainean ez dago kexurik; egon diren gorabehera bakarrak epeen gainekoak dira. Izan ere, lau salbuespen izan dira bailaran: batetik, Bergarako hiru proiektuak, horietako bat, Bolu auzoko igogailuena, oraindik ere obratan dagoena eta datorren astean bukatzea aurreikusten dena; esan behar da, dena


Bergarako Irala kaleko argi berria.

## Egin diren proiektuetarako dirulaguntzak (eurotan)

| ARRASATE | |
|---|---|
| Aldai parke berria | 1.856.616,93 |
| Santa Marina berrantolatzea | 1.691.093,69 |
| Erguinen eskailerak berritu | 361.289,20 |
| Santa Marinako harlosa eta beheratzeak | 5.159,84 |

| BERGARA | |
|---|---|
| Bideberri-Zubieta urbanizatu | 1.069.347,57 |
| Irala kalea eta Barrenkale atzealdea urbanizatu | 387.442,18 |
| Boluko irisgarritasuna | 1.166.006,27 |

| OÑATI | |
|---|---|
| Hilerrira bidea eta Urrutxu parkea | 717.593,24 |
| Postetxe ingurua berrurbanizatu | 719.711,56 |
| Euskadi Etorbideko irisgarritasuna | 466.380,05 |

| ARETXABALETA | |
|---|---|
| Mitarte kalearen saneamendua | 793.916,47 |
| Aozaratza auzoan bidegorria egin | 303.420,78 |
| Argi eraginkortasuna (kale-argiak) | 54.288,00 |

| ARAMAIO | |
|---|---|
| Arragako ur eta saneamendu sarea | 64.996,99 |
| San Sebastian ermita konpondu | 197.832,43 |

| ANTZUOLA | |
|---|---|
| Kalegoiko azpiegiturak eta zoladura | 186.959,00 |
| Kirol azpiegiturak (Eztala) berritu | 188.433,00 |

| ELGETA | |
|---|---|
| Hiru udal egoitzaren teilatua konpondu | 186.014,99 |

| LEINTZ GATZAGA | |
|---|---|
| Santa Kolunba ermita konpondu | 44.216,54 |

| ESKORIATZA | |
|---|---|
| Luis Ezeizan su-alarma sistema | 2.755,00 |
| Olaetako frontoia estali | 125.861,00 |
| San Pedro atzealdea berrantolatu | 227.708,73 |
| Santa Ana udal eraikina berritu | 36.184,00 |
| Zarimutzen hormigoizko bidea | 41.149,84 |
| Eraña auzoan edateko ur sarea konpondu | 52.145,38 |
| Aranburuzabala-Arana kalea zolatu | 140.717,20 |
| Txistulari Arratea plaza birgaitu | 20.556,37 |
| Lete eta Eraña artean bidea | 38.843,76 |
| Haurtzaindegi eta liburutegiaren teilatua konpondu | 14.594,86 |


Postetxe ingurua, Oñatin.


Irisgarritasun neurriak, Oñatin.


Hilerrira bidea eta bidegorria, Oñatin.


Zarimutz auzoan bidea, Eskoriatzan.

ARGAZKIAK:GOIENKARIA ETA JOSETXO ARANTZABAL


Elgetako udaletxeko teilatua, konponduta.


Sastiñako ermita, Aramaion.


Kalegoi urbanizatuta, Antzuolan.


Eztalako futbol zelaia, Antzuolan.


San Pedro auzoa, Eskoriatzan.

dela, lau igogailuetako hiru dagoeneko martxan daudela. Bergarako beste bi proiektuetarako ere luzapena eskatu zuen bere egunean Udalak: Irala kaleko urbanizaziorako, azaroan eskatu zuen, eta urtarril bukaerara arte eman zioten; eta Bideberri-Zubieta gunea berrantolatzekoa abendu bukaeran eskatu zuen eta epe bera eman zioten. Boluko lanek otsail bukaerara arteko epea dute bukatzeko, baina ez dute luzapen osoa behar izango.

Bukatzeko geratu den beste proiektua da Arrasateko Santa Marina auzoa berrantolatzekoa. Arrasateko Udaleko Hirigintza ordezkariek diotenez, obra hori egiten hasita zeudela, ikusi zuten uste baino konplexuagoa zela, berrantolatu behar zen kalearen eta inguruen ezaugarriengatik –kale estu samarra, etxebizitzak bi aldeetan…–, eta arriskua ere sor zitekeela hango bizilagunendako. Hala, "modu seguruagoan" egitea erabaki zuen Udalak, eta horrek lanak luzatzea eta kostua handitzea ekarri zuen. "Teknikoki, lanak ondo doaz", esan dute udal arduradunek. Geratzen diren lanak Arrasateko Udalak ordaindu beharko ditu, izan ere, Lurralde Antolaketa Ministerioak ukatu egin dio dirulaguntza handitzea edo epea berriz luzatzea. Dena dela, lan horiek ere laster bukatuko dira –bi aste inguru, Udalaren aurreikuspenen arabera–, 100.000 euro inguruko kostuarekin.

ENPLEGU ETA TOKIKO IRAUNKORTASUNERAKO FONDOAK

## Lizitaziora aterako dituzte laster lan batzuk

Enplegu eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondoak beste 6.832.284 euroko dirulaguntza banatuko du Debagoieneko herrien artean, eta udalak horretan buru-belarri daude orain: proiektu batzuk onartu ditu Espainiako Gobernuak, eta beste onarpen batzuen zain daude udalak. Onartu dituztenen kasuan, lanak lizitaziora aterako dituzte udalek datozen asteotan: Aretxabaletan, adibidez, hainbat proiektu lizitaziora ateratzea datorren astean onartu gura du Udalak; Oñatin, proiektu bakarra dute, baina handia, Errekalde auzoa eraberritzea, eta hori aurre-proiektu fasean dago; Udalak gura du ahalik eta lasterren proiektua egin eta auzotarrei jakinaraztea. Bailarako udalek 25 proiektu egin dituzte.



**POLITIKA** > EUSKAL PRESOAK

# Bergarako 96 hautetsi batu dira Elkoro aska dezatela eskatzeko

Zapatuan 71 batzartu ziren udaletxean, 75 urte betetzear eta osasun kaskarra duen bergararraren egoeraz kezkatuta

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Zapatuan, 1976az geroztik gaurdainoko Bergarako alderdi askotariko 71 zinegotzi batu ziren osoko bilkuren aretoan, Bergarako alkate eta zinegotzi izandako eta egun Dueñasko espetxean preso dagoen Jose Luis Elkororen egoeraz kezkatuta. Besteak beste, Elkoro kartzelatik ateratzeko beharrezkoak diren gestioak egitea eta horretarako lantaldea osatzea adostu zuten. Erabaki hori babestu dute, gainera, bilerara joan ezin izan ziren baina atxikitzeko borondatea duten beste 25 zinegotzik.

Taldeak bidalitako oharrean jakinarazi duenez, bergararraren "adinak eta osasun egoerak" sorrarazi dien kezkagatik erabaki zuten batzea: "Kartzelako bizi-baldintzek haren egoeran izan ditzaketen ondorioek kezkatuta bildu ginen".

**2009KO APIRILETIK KARTZELAN**

Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, 18/98 sumarioaren barruko Orain argitaletxearen auziaren harira, Guardia Zibilak Elkoro atxilotu zuen 2007ko abenduaren 5ean. Handik bi egunera, etxera itzuli zen; epaileak aske utzi zuen 18/98 auziko epaia publiko egin bitartean. Hilabete bereko 19an egin zuten publiko hori. Elkorori 24 urteko kartzela zigorra jarri zioten. 2009ko apirilaren 30ean atxilotu zuen ostera Guardia Zibilak. Maiatzaren 26ko epaian, Auzitegi Gorenak, auzia berrikusi ondoren, bergararraren kartzela-zigorra 8 urtekoa izatera pasatu zen.



Jose Luis Elkoro. GOIENKARIA

**75 URTE ETA OSASUN TXARRA**

Ordutik hona espetxean egon da. Etxekoak oso kezkatuta daude, martxoan 75 urte beteko dituelako eta haren osasun egoera ez delako ona. Hori dela-eta, irail amaieran hura askatzeko eskaera egin zuen, baina Gabonen aurretik fiskalak uko egin zion horri.

**GIZA ESKUBIDE URRAKETA**

Zapatuan batu ziren zinegotziek kartzelatik ateratzeko gestioak has daitezen aldarrikatzen duen eskaera idatzia sinatu zuten; izan ere, haien esanetan: "Bergarako hautetsia izan denez eta geu ere hala izan garenez, eta egoera hau giza eskubideen barruan koka ezin dela iritzita, erabaki dugu azken 33 urteotako hautetsiok lanean jartzea Jose Luisen askatasuna lortzeko asmoz". Garbi utzi dute, gainera, ez dutela talde edo alderdi politikorik ordezkatzen eta atxikimendua pertsonala dela.

LANTALDEA

## Hiru alkate eta alkateorde bat lantaldean

Gestioek aurrera egin dezaten lantaldea osatzea adostu zuten zapatuko batzarrean. Hain justu ere, azken 33 urteotan izan diren Bergarako alkatetzako lau ordezkari izendatu zituzten zeregin horretarako. Ordezkari horiek Alberto Bolibar (lehenengo alkateordea 1979-1983 urteetan, Jose Antonio Zabala EAJko alkate zenean), Imanol Bolinaga (EAJko alkatea 1983-1987), Victoriano Gallastegi (EAJko alkate 1991-2007) eta Agurne Barruso (ezker abertzaleko egungo alkatea) izango dira. Horrekin batera, hautetsiek erabaki zuten gestioak aurrera egin ahala ostera ere elkartzea emaitzak baloratzeko eta aurrera begirako urratsak zehazteko.

> GERTAERA

### Adin txikiko bat atxilotu dute, ustez lapurreta egiteagatik

Bergarako ertzain-etxeko kideek 16 urteko neska bat atxilotu zuten martitzenean Arrasateko saltoki baten, ustez 450 euroko balioa zuten artikuluak ostu izanagatik.

Atxiloketa 19:30 inguru gertatu zen. Herrizaingo Sailaren arabera, atxilotuak hainbat artikulu gorde zituen lapurreten aurkako alarma saihesteko prestatuta zegoen poltsa handi baten. Horretan, filmak eta bideo-kontsolarako hainbat joko aurkitu zizkioten.

> DEIALDIA

### Hezkuntza sistema propioaz jarduteko batzarra Arrasaten

Euskal Herriak Bere Eskola taldeak deitu du eta martxoaren 3an izango da, eguaztenean, 18:30ean, Kulturaten. Batzar irekia da eta bertara joateko dei egiten diete irakasle, guraso, ikasle eta, oro har, herritar guztiei. Bestalde, martxoaren 5ean ekitaldia egingo dute Bergarako Munibe plazan: 17:30ean umeendako jolasak egongo dira eta ekitaldia bera 18:30ean hasiko da.



**INGURUMENA** > ZABORRA

# Edukiontzi marroien erabilera, aretxabaletar guztien esku

## Materia organikoaren gaikako bilketa egin gura duenak izena eman beharko du aurrez

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARETXABALETA
Edukiontzi marroiak Aretxabaletan emandako emaitzak ikusita, Mankomunitateak eta Aretxabaletako Udalak esperientzia herritar guztiei zabaltzea erabaki dute.

**396 FAMILIA**
2008ko irailean jarri zen martxan Aretxabaletan materia organikoaren gaikako bilketa. Ordutik hona 396 familiak parte hartu dute eta 79.905 kilo materia organiko jaso dituzte –173 gramo biztanle eta eguneko.

Arduradunen esanetan, jasotako materialaren kalitatea ona izan da, %95 baino gehiago eskatutako material oganikoa izan da-eta. 2010ean esperientziarekin jarraitzea erabaki dute, kalitatea mantendu eta kantitatea handitzeko asmoarekin. Parte hartzeko izena eman behar da 943 08 10 01 telefonoan, e-postaz *anabel@aretxabaleta.net* helbidean edo arkupe kultura etxean bertan.

**POLTSA KONPOSTAGARRIA**
Izena ematen dutenek edukiontzia zabaltzeko giltza jasoko dute; baita erabilera egokirako liburuxka, kubo aireztatua eta poltsa konpostagarriak ere. "Garrantzitsua da poltsa konpostagarriak erabiltzea, eta ez edozein poltsa", dio Antxia zinegotziak.

**ATEZ ATEKO ZERBITZUA**
Mankomunitateak materia organikoaren gaikako bilketaren aldeko apustu garbia egiten du; hala, "atez ateko azterketaren emaitzak jasotzean erabakiko dugu Mankomunitate mailan zer egin", azaldu du Pedro Lasagabasterrek.

DATUA

**19**
**EDUKIONTZI MARROI**
Gaur egun 19 edukiontzi marroi daude jarrita Aretxabaletan; horiek giltzaz zabaltzen dira. Interesatuek giltza jasoko dute.

ESANAK

**"Atez ateko azterketaren emaitzekin erabakiko dugu ze sistema jarri Debagoienean"**
**Pedro Lasagabaster**
> Mankomunitateko Ingurumen arduraduna


Joxe Etxeberria, Rebeka Ubera, Dani Maeztu eta Felix Hernandez, Aralarko kideak, prentsaurrekoaren ondoren. A.E.

**POLITIKA** > AHT

# Trena dela-eta Aralarrek erakundeen arteko koordinazioa eskatuko du

## Proposamena dagoeneko Arrasateko Udalean, Diputazioan eta Legebiltzarrean aurkeztu dute

**A.E.** > ARRASATE
Abiadura Handiko Trenak eragiten dituen kalteak arintzeko, Aralarrek erakundeen artean osatutako mahaia eratzeko proposamena aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Arrasateko Udalean. Mahai horren helburua izango litzateke trenaren lanek herritarrengan eragiten dituzten kalteak ahalik eta txikienak izatea eta kaltetutako herritarrei babesa eskaintzea.

**"EZIN BEGIAK ITXI"**
Rebeka Ubera Aralarko Gipuzkoako batzarkideak hauxe adierazi du: "Aralar proiektuaren kontra dago, baina ezin ditugu begiak itxi gertatzen dabilenaren aurrean". Eta hau gaineratu du: "Obrak hasita daude eta kalteak handiak dira; horren aurrean, herritarrak babes barik sentitzen dira, nora jo ez dakitela".

**ERAKUNDEEN ARTEKO MAHAIA**
Aralarren ustez, erakundeen betebeharra herritarrei babesa ematea da. Hala, mahaia osatzea proposatu dute: Eusko Jaurlaritzak, ADIFek, Foru Aldundiak eta udalek. "Obrek irauten duten bitartean eta ondoren era koordinatuan lan egitea eskatzen dugu", dio Uberak.

**DIRU PARTIDA**
Dani Maeztu Aralarko legebiltzarkideak gaineratu du sortu diren eta sortuko diren arazoei aurre egiteko diru partida bat eskatuko dutela: "Momentuan eta ahalik eta arinen arazoa konpontzeko".

etxeko leihotik


**Eneko Azkarate** > 'eazkarate@goiena.com'

# Rego Vidal eta Elkoro, txanponaren bi aldeak

Joan zen astean hedabideek lau haizetara zabaldu zuten berri hau: Espainiako Erregea hiltzen saiatzeagatik kartzelan zegoen Rego Vidal, 15 urte kartzelan egon ostean, kartzelatik atera dute eta etxean bete beharko du geratzen zaion zigorra. Zaintzapean. 70 urte ditu eta gaixotasun larria dauka. Albistea telebistan ikusteaz bat, Jose Luis Elkoro etorri zitzaidan gogora. Bergarako alkate izandakoa espetxean dago, Rego Vidalen egoera antzekoan egon arren: 75 urte betetzear da eta bere osasun egoera ez da ona. Baina haren berririk ez dut izan hedabide handienetan.

Gertuko hedabideek, ostera, Elkororen aldeko ekimen baten berri badakarte: Franco hil ostean, Bergaran osatu diren udalbatzako kide izan diren 96 lagunek, —zinegotziak eta alkateak— Jose Luis Elkoro aske lagatzea eskatu dute. Alderdi guztietakoak daude, sozialistak ere bai, PPkoak izan ezik. *Egin* egunkaria argitaratzen zuen enpresako buru izateagatik dago kartzelan.

**"Elkororekin egiten dihardutena bidegabekeria handia da"**

Elkororekin egiten dihardutena bidegabekeria handia da eta hura askatzea eskatzeko ekimena txalogarria. Nabarmentzea merezi du Elkororen posizioetatik urrun egon daitezkeen Bolinaga eta Gallastegi EAJko alkate izandakoek edo Zendoia zinegotzi sozialista ohiak erakutsi duten jarrera. Beste bidegabekeria batzuen aurrean, beste batzuek ere eskuzabalago jokatzeak asko lagunduko luke elkarbizitzan.

**> Erabilera askotako antzokiaren funtzio eta formen definizioa adostu nahi dute Bergaran, herritarren artean. Horretarako, prozesu parte-hartzailea jarriko dute abian Aldundiaren eta Udalaren ekimenez. Gaia intereskoa dut eta parte hartuko dut.**

**> Bagara elkartea aurkeztuko dute martxoaren 11n Amaia antzokian. Autoeraketa eta parte-hartzea eredu hartuta, jendartea ekimen arduratsu eta iraunkorretan murgiltzea dute helburu. Beste hainbatean gure bailaran egin den moduan.**

emakumeon ahotsak

**Arrasateko Ahotsak taldearen txokoa**

# Ahotsak bizirik gaude

Talde txikia gara, asko jota gure bileretan 8-10 emakume biltzen gara. Arrasatear emakumeak gara eta bakoitzak bere burua ordezkatzen dugu taldean.

"Emakumeak batzen gaituenetik" biltzeko gogoari bizitza, espazioak, egoerak, berriketaldiak… sortzeko elkartzen gara. Iritzi trukaketa eta ezberdin pentsatzen dugunok elkarrekin berriketan egiteko gaitasuna lantzen dugu batez ere. Gauza txikia da egiten dugun hau, baina era bereant, gogotsu eta aurrera egiteko prest gaude.

Gure herriaren arazo politikoa historia den etorkizuna sortu nahi dugu, gure oinordekoengan erantzukizun hori dugula sentitzen dugu eta, bakoitza dagoen egoeratik, etorkizun horren bidean pausotxo bat egitera animatu nahi zaituztegu. Hasteko, batzen gaituen horren bila urrats bat emanaz. Txokotxo honetan bururatzen zaizkigun ideiatxoak idatziko ditugu eta zuk ere, emakume, lekutxo hau zuretzat ere badela jakin eta hurrengo hitzordua martxoaren 23an emakume txokoan izango dugula, animatzen zara?



zabalik

Manu Arregi

# Olentzero askatu

Gabonetan,urtero bezala, Jesusen jaiotza iragartzera etorri zitzaigun Olentzero. Bada garaia gauzak bere tokian jartzeko. Olentzeroren benetako jatorria ulertzeko, bota dezagun begirada bat atzera.

Gaur egungo egutegia Julio Cesarrek ezarritako egutegi juliotarretik dator. Urtearen iraupena 365,25 egunekoa zen egutegi juliotarrean. Lau urtetik behin egun gehigarri bat sartu behar da egun laurden horrek egun osoa osatzen dutenean. Baina urteak ez ditu justu 365,25 egun eta desfase txiki bat pilatzen da. 325. urterako desfasea 3 egunekoa zen. Cesarren garaian neguko solstizioa abenduaren 24an gertatzen bazen, urte horretako Nizeako Kontzilioaren garairako abenduaren 21ean zen. Kontzilioan gauzak horrela uztea erabaki zuten. Abenduaren 21ean solstizioa eta 24an Jesusen jaiotza.

**"Errebindika dezagun Olentzeroren benetako izaera"**

Pertsonaia paganoa da Olentzero, neguko solstizioarekin loturikoa. Udatik abendura eguzkia indarra galtzen doa. Antzinakoen ikuspegitik, nolabait, eguzkia hiltzen doa. Baina inflexio puntua du neguko solstizioan. *Berpiztu* eta altuera irabaziz joango da, galdutako indarra berreskuratuz. Horrekin batera, naturaren berpizkuntza etorriko da udaberrian. Hori da Olentzero iragartzera datorrena. Eguzki berria jaio dela, ez Jesus.

Kristautasuna zabaldu zenean, jai paganoak kendu ordez, hauen gainean bereak jarri zituen Elizak. Hori dela eta ospatzen da Jesusen jaiotza abenduaren 24an, jatorrizko neguko solstizioaren data berean. Garbi dago ebanjelioetan kontatzen dena ez dela abenduan gertatzen. Artzainak neguan kanpoan lo egiten?

Ridikulizatua izan da Olentzero. Lodia, buruhandia, zikina eta mozkor puntu batekin. Paganoa delako, ziurrenez. Beste begi batzuekin begiratu aurrerantzean. Eta errebindikatu dezagun bere benetako izaera.

usteak uste

Mireia Bikuña

# Gure aita eta basurde-ehiza

Aurreko egubakoitzetik nekien basurde-ehiza egitekoak zirela Oñatin. Gure aita talde horretako kide da, eta abisua eman zidan. Ez nekiena zen bederatzi basurde harrapatuko zituztela, eta aitak ere ez! Mallorca aldean zebilen oporretan eta irteera galdu zuen. Domekan telefonoz deitu, eta lehen gauza argazkia *Asteleheneko Goienkaria*-n publikatuko ote zen galdetzea izan zen. "Aita, lasai, bi argazki publikatuko ditugu", esan nion. Atzo Mallorcatik bueltan erretratuak ikusi eta poztu egin zen, bera argazkian ez agertu arren.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

# Konparazioak

Anjel Lertxundi
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Militar batentzat esaldi bakar bat dago "ezin dugu gerra irabazi" baino gogaikarriagoa: "Barregarri geratzen ari gara". Biak konplitzen ari dira Afganistanen.

Aspaldi hasi ziren jaten gerra irabazi ezinarena, aspaldi ekin zioten Vietnam eta Afganistan konparatzeari. Vietnamen bezala, Afganistanen ere atzerriko tropa asko borrokatu da. Inork ez du, ordea, irtenbiderik aurkitu. Eta egunotan, jende zibila aurretik eraman duen hainbat txandrio militarrekin, barregarri ere geratzen ari dira nazioartean. Barregarri eta inutilen gisa. Militar batek, ordea, horixe ezin du sekula egin: barregarri geratu. Otsailaren 23ko hartan ere, Tejeroren Cantiflas itxurak kalte gehiago egin zion kolpeari erreakzio demokratikoak baino.

Hasi da Afganistaneko esku-hartze militarraren atzerako kontaketa: bizia arriskatzen dutenei "gure mutilak" deitzetik "inutilak" deitzera pasatzen garenean hasten dira gerrak bukatzen.

# Mapak

Nahikari Ayo
http://goiena.net/blogak/begietatik/

LH 5-6 eta DBH 1ean ematen ditut eskolak. Pasa den astetik aurrera, ematen du geografia politikoa eta fisikoa ikasten hasi direla. Gela guztiak mapaz beteta daude: mendiak, ibaiak, lurmuturrak, itsasoak, hiriburuak, herriak...

Geletan ikusi dudan mapa ez da nire mapa. EAEko mapa politikoa daukate. Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba. Herrialdeak falta zaizkio: Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa.

Zergatik kakazten ditugu umeak? Batzuk ez dakite Euskadikoak diren, Euskal Herrikoak, edo ez dakit nongoak...

Benetan tristetu nau horrelakoak ikusi beharrak. Nik gelan Euskal Herriko mapa neukan. Agian urte batzuk barru, Espainiakoa zintzilikatuko dute Euskal Herriko eskoletan.

koplak

Enaitz Alustiza

# Eskiatzeak zer dakarren

Igande goiza, seiak ta laurden
Despertadorakin gora...
Eskiatzera joan behar gara
La hostia izango da!

Gosaldu eta Astra zaharrean
Beste lagun biak batu
Nahiz bidaia bi ordukoa den
Ia ez ginen konturatu.

Valdezcarayra igotzen hasi
Haizea eta elurra!
Egi bihurtzen ari zitzaigun
Aurrez geneukan beldurra.

Bentiska, elur eta izotza
Ipar Poloa mekaguen!
Denak korrika eta tartean
Yeti-a ikusi nuen.

Beraz lau ordu kotxe barruan
Ta eskirik jantzi gabe
Haron bazkaldu eta umorez
Bueltatu ginen halare.

Eskiatzea engorro bat da
Urrun dagoen heinean,
Eski pista bat jarri behar da
Udalaitzen magalean.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

# Zuen ekarpena, ezinbestekoa

**Kepa Urra Guridi**
(Almeriako espetxean preso)
Almeria

Euskal preso politikook eta gure senideok jasaten ditugun etengabeko erasoek borrokaldi berria martxan jartzera behartu gaituzte. Hor daude errepideetan bizia galdu duten senide eta lagunak, espetxeetan bizia galdu duten presoak, errepresioaren ondorioz hildakoak, jipoitutakoak, osasuna galdutakoak… Orain arte ere erasoei guztiok batera aurre eginda lortu dugu gure izaera eta duintasuna bermatzea, inposatu nahi diguten isolamendu fisiko eta politikoa apurtzea eta gure helburu politikoak mantentzea.

Orain beste eraso baten aurrean gaude. Gure senideak aurrez aurreko komunikazioak egin aurretik bi araketa desberdin jasatera behartzen dituzte. Lehenengoa beti egin dute, metal detektagailuekin, eta ondoren, berria, kartzeleroek eskuekin senideen gorputza ukituz.

Kontuan hartu behar da komunikazio horien ondoren presoak arakatuak izaten garela; beraz, senideei bigarren araketa hori egitea lekuz kanpo dago, guztiz arbitrarioa da. Gezurra da segurtasun neurria denik. Neurri politikoa da. Ez dute ezer arriskutsua aurkitu nahi, badakite ez dutela ezer aurkituko. Gure senideei ordainarazi nahi diete oztopo guztien gainetik gurekin mantentzen duten konpromisoa eta ematen diguten sostengua.

Kartzeleroek agindua dute araketa horien aurrean gure senideek duten jarrera azaltzeko espetxeko zuzendaritzari (zer egiten duten, esaten duten…). Zertarako behar dute informazio hori, senideak sailkatu eta beraien aurka egiteko ez bada?

Eraso honen aurrean ez gara isilik geldituko. Ez dugula utziko gure senideak iraintzerik eta neurri honekin amaitzea exijitzen dugu.

Hau guztia dela-eta, iazko azarotik aurrez aurreko komunikazio guztiak galdu ditugu eta borroka ezberdinen bitartez egoera salatzen ari gara.

Hilabeteak senideak besarkatu gabe, hilabeteak, asteburuak izan ezik, ziegatik atera gabe eta etengabeko zigorrak gure jarrera mantentzeagatik. Guk borrokan jarraituko dugu, baina zuen ekarpena ezinbestekoa da lehenbailehen honekin bukatzeko.

Gure borrokarekin bat egin eta egoera hau salatu nahi duzuen herritar eta elkarte guztiei eskatzen dizuegu zuen kexa helarazteko espetxeetara. Horretarako, hurrengo asteetan herrietan zabalduko diren orriak bete eta espetxeetara bidaltzeko deia egiten dizuegu.

# Arrasate-Aramaio errepideari buruz

**Maitane Gomez de Segura**
Aramaio

Lerro hauen bidez, Aramaioko biztanleon egoera deskribatu nahiko nuke eta, bide batez, nire inpotentzia eta amorrua azalarazi.

Aste batzuk pasatu dira, jada, Aramaio-Arrasate errepidean lur-jausia gertatu eta errepidea moztu zenetik. Ordutik hona, Aramaioko auzoetatik doan errepide batetik ibiltzera derrigortuta gaude. Errepide hau ez dago trafiko asko ibiltzeko egokitua; bidea puntu batzuetan oso estua eta labainkorra baita. Kontuan hartuta Aramaioko gehiengo handi batek (%80 edo, esaten da) Arrasate edo inguruko herrietan lan egiten dugula, noiz arte jarraitu behar dugu egunero-egunero lanera joateko urduritasun, tentsio eta beldurra pasatzen?

Aurreikusita zegoen AHTko obrak zirela-eta Arrasate-Aramaio arteko errepidea itxiko zutela, zergatik ez zuten orain erabiltzen ari garen bide alternatibo hau egokitu? Orain, errepidea itxita dagoenean, orain hasi dira bidea egokitzen; pixka bat berandu, ezta?

Aurrez aipatu ditudan errepidearen zailtasunez gain, obrak ditugu, gainera! Lokatza, kamioiak, indusketa makinak… Eta esan dutenez luzerako omen da! Baina ez al zaio inori inporta herri oso bat jasaten ari den egoera hau? Ez al zaio inori larria iruditzen?

Gaurkoan ere lanera joan gabe gelditu naiz (eta ni bezala beste asko), goian aipaturiko oztopo guztiez gain elurra egin baitu. Ez nago prest beldur gehiago pasatzeko errepidean, ez daukat istripu bat izateko gogorik eta kokoteraino nago egoera honetaz! AHT bezalako proiektu "aurrerakoi" batek a ze-nolako atzerakada ekarri digun Aramaioko biztanleriari!

Konturatzen naiz ere, hemen ez daukagula industria potolorik, ez dagoela dirua barra-barra mugitzen duen enpresa handirik. Apustu egingo nuke Fagor (adibidez, gertukoa delako) Santa Agedatik Arrasatera egon beharrean Santa Agedatik Aramaiora egongo balitz, jada bide alternatibo eroso bat edota zubi probisional bat edo ganora gehiagoko zer edo zer izango genukeela. Baina ez, hemen ez dago horrelako enpresarik, eta badirudi herritarrok ez dugula horrenbeste merezi.

# Eredu bakarra eta euskalduna!

**Olatz Arana**
Arrasate

30 urte daramatza EHEk herria berreuskalduntzeko borrokan tinko, eta urte guzti hauetan asko eta asko dira eskolen aferan eman diren eraso eta iruzurrak. Euskaldunonak ez diren interesak babesten dituzten menpeko gobernuen eskutik, euskara eta euskadunok bigarren mailako izatera kondenatzen gaituzten menpeko hizkuntza politikak jasan eta pairatu behar ditugu.

Euskarak lehentasunezko izaera behar duen honetan, menpeko politikek erdaren nagusitasuna mantentzea, errotzea, trinkotzea eta atzeraezin bilakatzea beste helburu-rik ez dute. Aipatutakoa garbi erakusten duen alorra da irakaskuntzarena.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeei so eginez gero, azken hamarkadetan indarrean izan den hiru ereduen moldeak huts egin du betebetean. Ikasleek ez dute euskara ikastetxetik haratago ezagutzen, eta datuak tristeak dira; 3tik 2 baitira ikasketak bukatzean euskara menperatzen dutenak.

Zer esanik ez Nafarroaren kasuan gertatzen denarekin. Euskaldunon hizkuntza eskubideak hiru eremutan zatikatzen dituen Vascuencearen Legearen gerizpean, hainbat dira euskararen kontra abiatu dituzten erasoak eta iruzurrak.

Eraso hauek badute oinarrian beste elementu garrantzitsu bat; euskal nortasuna desagerraraztea. Egun, Patxi Lopezen gobernua dugu hiru herrialdeotako gidaritza politikoa esku artean duena, eta jada nahiko garbiak dira ekartzekoa zuten "aldaketa" horren ondorioak.

Hezkuntza sailburu Isabel Celaaren eta Jose Ramón Etxezarreta, hizkuntz politikarako sailburuordearen ekinbidea guztiz salagarria da.

Martxoaren 3an Isabel Celaak Euskal Curriculum berria aurkeztuko du, eta jakina da bertan euskarak ez duela behar bezain beste leku izango. Ildo horretan Jaurlaritzak euskararen eta euskal nortasunaren aurkako politika suntsitzaileak eskolatik abiatu nahi dituela salatu behar dugu.

Hizkuntza ordezkapenaren aurrean, euskaraz bizitzeko ezinbestekoa den Euskal Herri osorako ofizialtasunean zein hizkuntza politika burujabeetan oinarritutako eta euskaldun eleanitzak sortu eta heziko dituen eredu bakarra eta euskalduna aldarrikatzen dugu.

Horretarako, martxoaren 3an, curriculumaren presentazio egunean, kontzentrazioa egingo da Arrasateko plazan 19:00etan.

# Herrigintzan bagara

**Joseba Azkarraga Etxagibel**
(Huheziko ikerlaria eta Bagarako kidea)
Eskoriatza

Gaurko munduak krisi ekonomikoa bizi duela esatea zuhaitzari erreparatzea da, basoaren zabala bistatik galduta. Krisia askotarikoa baita, orokorragoa, biziagoa, sarkorragoa.

Zooma zabalduz gero, *krisi sozio-ekologikoa* oraindik kolosalagoa da. Aldaketa klimatikoa da erraldoi horren muina. Gehiegi produzitu eta kontsumitzearen eraginez, Lurrean eragiten dugun inpaktua berak tolera dezakeena baino handiagoa da. Eta biziaren iraungitze masiboa gertatzen ari da: txikia da krisi ekonomikoaren bizia, biziaren krisiarekin alderatuta.

Krisi energetikoa: aro fosilista amaitzen ari da (petrolio merkea, nagusiki). Gure zibilizazioaren oinarriak jarriko ditu hankaz gora, leku guztietan baitago likido beltz likatsua, Jaungoikoarekin lehian.

Hiruko horrekin batera (krisi ekonomikoa, ekologikoa eta energetikoa), euskal lurraldetik Cuencatik baino hobeto ikusten dena: anizta-sun kultural eta hizkuntzazkoak bizi duen eklipsea. Hamabost egunetik behin munduko hizkuntzaren baten azken hiztuna hiltzen da. Hamabostean behin, tribuko azken mohikarra izatearen kondena.

Eta *krisi psikosoziala:* Osasunerako Mundu Erakundeak dio depresioa izango dela XXI. mendeko epidemietako bat, Iparrean nola Hegoan. Antsiolitikoen salmenta urtero bikoizten den jendartean, funtsezko zer edo zerk huts egiten du. Ez dirudi materialismoak eta egolatriak salbatzen gaituztenik (ezta industria farmazeutikoak ere).

Gurea ez da ohiko aro historikoa. Krisi-hari ugari txirikordatu eta *krisi sistemikoa* bizitzearen pribilegioa suertatu zaigu. Asko aldatu da mundua azken 30 urteotan, baina gehiago aldatuko da hurrengo 30etan. Eta aldaketa horietako askok desglobalizatzearekin izango dute zerikusia.

XXI. mendea gizarte-eredu berriak sortzeko aroa izango da. Eta, aipatutako korapiloak askatu nahi baditu, etorkizuneko proiektu humanizatzaileak ezingo du xedetzat izan etengabeko hazkunde materiala. Bizipozerako txartela ez izateaz gain, hondamendira garamatzan absurdo fisikoa da. Bide humanizatzaileak bizitza bestelako zentzuez elikatzearekin du zerikusia. Zerikusia du garapen komunitario integrala, orekatua, autoeratua eta iraunkorra eraikitzearekin.

Jakina, geroak ez dakar eszenategi bat eta bakarra, ugari baizik. Eta euskal herritarrona zein izango den faktore konplexu askoren baitan egongo da.

Besteak beste, herrigintzarako dugun nerbioaren baitan, geroaren konfigurazioan funtsezkoak izango baitira gaitasun autoeratzailea, tokiko konexioen muskulatura, kapital soziala eta herritarsare ongi antolatuak. Autodependentzia logikak (ber)eskuratu beharko baititugu: energian, elikaduran, kulturan, hezkuntzan, produkzioan, kontsumoan, edo gizarte zerbitzuetan.

Etorkizuna koloreztatzeko pintzela izango da komunitate txiki/ertainen ahalduntzea, autosufizientzia lokal, erregional eta nazionala indartzea (informazioaren gizarteari ondo itsatsita, aldi berean). Zaila zait irudikatzea behetik gorako herrigintza baino proiektu garrantzitsuagorik, hemendik aurrera. Eta da guraria (soilik), inperatibo historikoa da.

Dabagoienean abiatu den Bagara proiektua/prozesua aldi berean da inperatibo, gurari eta mugarri. Belaunaldi berri bati dagokion jauzi kreatibo berria da, autoerakétaren euskal lurralde historikoan, non bestela.

Martxoaren 11an kontatu eta kantatuko dugu abiatutako prozesuaren gorputza eta bihotza. Amaia Antzokian, arratsaldeko 6:30etan.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

Foru Aldundiak egin berri duen Gipuzkoako Museoak Antolatzeko Planaren gainean dihardu Pilar Azurmendi Gipuzkoako Ondare zuzendariak. Lurraldean dauden 52 museoen arteko elkarlana nabarmendu du, eskaintza "eraginkorragoa" egite aldera. Azken urteotan museoetako bisitari kopuruak behera egin duela dio, nahiz eta museoen eskaintza "aberatsa" izan.

**Pilar Azurmendi** > Gipuzkoako Ondare zuzendaria

# "Jendearengana heltzeko, gauza izan behar dugu museoak erakargarri egiten"



Pilar Azurmendi, Arrasaten, oraingo astean. ENEKO AZKARATE

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

**Hernaniarra da eta 36 urte ditu. Orioko Udaleko arkitektoa da, baina agintaldi honetan lan hori laga du Foru Aldundiko Ondare zuzendari izateko. Aurkeztu berri duten Gipuzkoako Museoak Antolatzeko Planaz jardun dugu harekin.**

**Gipuzkoako museoen eskaintza berrantolatu eta Museoak Antolatzeko Plana egin du Foru Aldundiak. Zergatik?**

Ikusi dugu Gipuzkoako museoen %75 azkeneko 10 urteotan sortu direla. Horrek ekarri du eskaintza berria, aberatsagoa. Baina, era berean, elkartasunerako gaitasunik eza, instrumenturik eza. Bestalde, ikusten genuen Aldundiaren lana urteko dirulaguntzak banatzera mugatzen zela eta hori ez zela eraginkorra. Ikuspegi orokorra izan behar dugu, etorkizuneko marrazki bat.

**Zelan antolatuko duzue aurrerantzean museoen eskaintza?**

Batez ere, elkarlana sustatu nahi dugu. Une honetan, 52 zentro eta beste 10 bat proiektu ditugu. Eta, batuz gero, biderkatze efektua lor dezakegu. Diagnostikoa egin dugu eta jarri dugu mahaiaren gainean proposamen bat, abiapuntu izan daitekeena, etorkizuneko argazki ona izan daitekeena. Aldundiaren indar ahalmena, dituen lau museoekin, oso txikia da. Ordea, sarea osatuz, elkarlanetik etor daitezke emaitzak. Esan dugu Aldundiak zein tresna jarriko dituen eta zer egiteko prest dagoen.

**Gaika eta aroka ordenatu dituzue museoak, ezta?**

Bai. Gipuzkoako 52 museoetatik 19k inguruk historia dute gai tematiko gisa. Hortaz, Gipuzkoako historiaren irakurketa egin daiteke, zentro desberdinak bisitatuta. Irudikatu dugu sare nagusi hori, historian eta oroimenean oinarritutakoa, eta beste hiru sare nagusi: itsasoa, natura eta burdina, zelanbait, Gipuzkoan indar handia dutenak; eta, beste bi sare, gastronomia eta arteak. Gaikako sailkapen honetan ia-ia zentro guztiak batzen dira.

**Diagnostikoak zein beste ondorio atera du?**

Baliabide faltarena. Asko kostatzen da museo bat irekita edukitzea. Are zailagoa da eduki didaktikoa sortzea edo beste ekimen batzuk aurrera ateratzea. Horregatik, diruaz gain, koordinazio handiagoa eta laguntza teknikoa ere eskatu digute zentroetako arduradunek, eta, horren haritik, elkarlanaren beharra azpimarratu dute.

**Gipuzkoako museo bisitariak zeintzuk dira: gipuzkoarrak ala kanpotik datorren jendea?**

Gehienak gipuzkoarrak dira. Zentro guztiak kontuan hartuta, urtean 720.000 bisitari izan daitezke. Ikusi dugu, urtez urte, 2002. urteaz geroztik, nahiz eta zentro kopurua handitu, ikusle kopurua txikitu egin dela. 2008an, 650.000 inguruan zegoen ikusle kopurua.

**Museo erakargarriena edo bisitari gehien dituena zein da?**

Zalantzarik gabe, Aquariuma. Ikusle kopuru osoaren erdia jasotzen du hark. 300.000 bisitari jasotzen ditu urtean. Erakargarritasun handia du, tradizio handia, kokagune aparta... Bisitarien erdiak dira Gipuzkoakoak eta beste erdiak kanpokoak.

**Larregikoa da Gipuzkoako museoen eskaintza?**

Ez dut uste museo gehiegi dagoenik, baina museoak erakargarri bihurtzeko gauza izan behar dugu. Egungo eskaintza zabalak erakusten du gure ondarearen aberastasuna eta erakuste nahia. Aisialdiaren kontsumitzaile bihurtu gara, eta, hori horrela den heinean, produktuak eskaintzeko gauza izan behar dugu. Jendearengana iristen jakin behar dugu.

**Museoen antolaketa berri honetan, San Telmo izango da ardatza eta erakusleihoa?**

Bai, hein baten, bai. Daukan tradizioagatik, kokaguneagatik, orain berritzen gabiltzalako... ikusle kopuru handia izango da bertan, eta, euskal jendartearen museoa izan nahi duenez, egokia izan daiteke Gipuzkoako museoen erakusleiho izateko, lurraldeko gainerako baliabideak ere erakuste aldera. 2011ko erdialderako edo zabalik izango da San Telmo.

**Pasaporte edo txartel bateratu moduko bat sortu nahi duzue museoen sarea ikustarazteko, ezta?**

Ekintza plan bat planteatu dugu eta horietako bat da mueorako sarrera komunak egitea. Aldundiaren museotatik hasiko dugu; pixkanaka, lurralde osokoetara zabaldu nahiko genuke.

**Horretaz gain, webgune baten batu nahi duzue museoen eskaintza osoa?**

Bai. Asmoa da Aste Santurako prest edukitzea. Erakusleiho orokorra edukiko genuke ibilbideak eta berritasunak proposatuz. Museo batzuek ez daukate webgunerik eta horiendako aukera bat izango da eta daukatenendako osagarria beste webgune hau, loturak egingo dira-eta.

**Museoak antolatzeko plan berrian zein protagonismo hartzen du Debagoienak?**

Eskualde honetan, une honetan daukagu Leintz Gatzagako gatz museoa eta Eskoriatzako Ibarraundi. Bakoitzak dauka bere berezitasuna. Bere lekua. Gatzaren museoa gastronomiaren barruan kokatu dugu. Hori da gure proposamena. Bestalde, Bergara, Oñati eta Arrasateko alde zahar aberatsekin zerbait elkarrekin egin daitekeela uste dut. Ondare aberatsa dago hemen. Eskualde mailan koordinazio handiagoa egon beharko luke kontu honetan. Atxorrotzen ere egin dituzte indusketak... Lezetxiki dago hemen. Indusketa arkeologikoen inguruan museoak edo erakusketak antola daitezke...

**Bergaran, urteak daroatzate Errege Seminarioko fisika, kimika, biologia eta mineralogia museorako piezen inbentarioa egiten... Batutako materiala inoiz bisitarako museo bilaka daiteke?**

Bai. XVIII. mendearekin eta ilustrazioaren garapenarekin lot daiteke Bergarako Errege Seminarioko museoa. Oso leku egokia da eta materiala eta ondarea ere aberatsak eta aproposak dira.

**Arrikrutz?**

Oso arrakastatsua izan da. Gipuzkoan kobazulo bat bisitatzeko lehen aukera eman digu Arrikrutzek. Bizkaian, Karrantza aldean-eta izan dute ibilbide handia, baina Gipuzkoan lehena izan da. Aztarnategia badago, baina haren garrantzia batez ere geologikoa da. Edozelan ere, natur baliabideekin eta Arantzazuko parketxearekin erabat osagarria da.

ZAILTASUNAK

**"Asko kostatzen da museo bat irekita edukitzea eta eduki didaktikoa sortzea"**

ESKAINTZA

**"Museoen eskaintza zabalak erakusten du gure ondarearen aberastasuna"**

SAN TELMO

**"Museoen antolaketa berri honetan, San Telmo izango da ardatza eta erakusleihoa"**

ELKARLANA

**"Debagoienean koordinazio handiagoa egon beharko luke museoan artean"**

⊕ **goiena.net**/bideoak
Elkarrizketa osoa, webgunean.

KIBUC GURE AMETSA
ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

SUKALDEETAN ESKAINTZA BEREZIA
BEZEROARI EGOKITUTAKO AURREKONTUAK EGITEN DITUGU.
GREMIOEN KOORDINAZIOA:
- URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA ETA LANGILE PROFESIONALAK.
- BURUAN DUZUN EDOZEIN PROIEKTU EDO ERREFORMA MOTAREN INGURUAN AHOLKATUKO ZAITUGU.




KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak
www.kibuc.com

>> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >>



## Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13
*www.hotelsantuariodearantzazu.com*

**Eskaintza**
- 46 logela
- 200 pertsonentzako jangela
- Eguneko menua eta karta
- Familientzako menuak asteburuetan
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak

**Egunero zabalik**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 *www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**

# *Jatetxe Gida*



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
*www.restaurantelasa.com*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**

# Herriak

**Arrasate** > 12-15 **Bergara** > 16-19 **Oñati** > 20-21 **Aretxabaleta** > 22-23
**Eskoriatza** > 24 **Antzuola** > 25 **Elgeta** > 26 **Aramaio** > 27 **Gatzaga** > 27



**> ARRASATE**
Olandixoko obretan lur-jausia eta istripuak gertatu dira **> 12**



**> BERGARA**
Gorlako pagadia berreskuratzeko landatzea egingo dute zapatuan **> 16**




**> ARETXABALETA**
'Pintxo-poteoa' egingo dute, datorren astean hasita **> 22**



**> ELGETA**
Zinegotzietan 7.446 euro gutxiago gastatuko du Udalak **> 26**

**ESKORIATZA** > ZERBITZUAK

# Nagusiendako ariketa parkea ipiniko dute Eskoriatzan, Dorleta auzoan

**HIRUGARRENA**
Bailarako halako hirugarren parkea da: Bergaran eta Arrasaten badaude

**APARAILUAK**
Udalak erosita dauzka ariketa egiteko aparailu batzuk, eta gehiago erosiko ditu



Herritar batzuk Bergarako Boni Laskurain pasealekuko ariketa tresnen inguruan. LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** > ESKORIATZA

Modu batera baino gehiagora deitzen zaio –osasun parkea, zirkuitu bio-osasuntsua, nagusiendako parkea…–, baina funtsa berbera da: oinezkoendako eta jende asko ibiltzen den baina, era berean, lasaia den leku baten hainbat ariketa eta gimnasia tresna ipintzen dira, batik bat nagusiek, baina nahi duen guztiak ere, ariketa mota zehatzak egin ditzan. Debagoieneko halako hirugarrena Eskoriatzan egingo dute, aurten, Eskoriatzako Udalak eta Foru Aldundiak egin duten hitzarmen baten bidez. Hitzarmena eguazteneko osoko bilkuran onartu zuen Udalak.

**BIDEGORRI INGURUAN**

Proiektua oraingo agintaldian aurkeztu zuen Udalak Foru Aldundian, 2008-2011 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planaren bidetik dirulaguntza jasotzeko aukera zegoelako. Orain bi urte aurkeztu zuen; hortaz, ez da oraingo asmoa. Azkenean, onartu da eta Foru Aldundiak ordainduko du erdia: 10.500 euroko dirulaguntza emango du, 22.000 euroko aurrekontua duen proiektuarendako.

Asmoa berria ez denez, Udalak aurreko lanak eginda zituen, eta hiru tresna erosita dauzka: goiko gorputz-adarrak lantzeko ariketa-tren bat, panel batekin eta bolante antzeko batekin (sorbaldak, atzamarrak, eskuak… bakarka edo batera landu daitezke); pedal batzuk, bankuan jesarrita bizikleta-ariketak egiteko; eta Bohler taula delako bat, oinaren eta orkatilaren zirkulaziorako, errehabilitaziorako edo mantenurako ariketak egiteko. Azalpenak ematen dituen panela ere erosi du Udalak. Horiez gain, beste tresna batzuk eskatzeko asmoa du. Berez kirol azpiegitura den arren, tresna horiek Udal Gizarte Zerbitzuek erosi dituzte.

Osasun parkeak ze hedadura hartuko duen oraindik ez dute erabaki arduradunek, baina bai non egongo den: Dorleta auzoan egin den bidegorri berrian ipiniko dute, aparkalekuaren ondoan. Alkateak dioenez, "leku aproposa da hori, jende asko ibiltzen delako". Era berean, esan du "berez, nagusiei zuzenduta" dagoela parke hori, baina "erabilera librea" izango dela.

**LEHENENGOA, BERGARAN**

Eskoriatzako Udalak 2008an erabaki zuen horrelako parke bat ipintzea, eta hain zuzen ere, orain bizpahiru urte izan zen horrelako parkeak ipintzeko joera handia Euskal Herrian.

Debagoienean, lehenengoa Bergarakoa izan zen. Boni Laskurain pasealekuan dago, San Joxepe erretiratuen elkartearen ondoan. Hamar bat aparailu daude han, banku batzuen ondoan; pedalak, zehatzago esateko, norbera bankuan jesarrita dagoen bitartean erabil daitezke, erosoago izan dadin. Jende asko ibiltzen da han paseatzen; tartean, erretiratu eta edadetu asko. Hantxe zegoen talde polit bat joan den eguerdian. "Oso ondo daude aparailuok, eta erabiltzen ditugu noizean behin, bai", esan ziguten edadetuek. Horietako bati behintzat, Maximo Dominguezi, ariketa egiteko harra sartu zitzaion: "Batez ere, pedalak erabiltzen nituen, eta gero, etxerako bizikleta estatikoa erosi nuen eta hura erabiltzen dut".

**ARRASATEN, IAZ EZKERO**

Arrasaten ere badago halako instalazio bat, berri-berria, udazkenean inauguratua. Galiza eta Santa Marina kaleen azpiko aldean, Gernika Oinezkoen Zumardian dago zirkuitu bio-osasuntsua, eta gorputzari eragiteko hamar aparailu batzen ditu. Kokaleku hura ere aukeratu zuen Arrasateko Udalak oinezkoen pasealekuak plazatxo moduko bat egiten duelako han, eta jende asko ibiltzen delako. Gura duenak geldialditxo bat egin eta giharrei eragiteko aukera dauka.

DATUA

**22.000**

**EURO**

Eskoriatzako osasun parkeak 22.000 euroko aurrekontua dauka, eta, hitzarmen bati esker, Foru Aldundiak ordainduko du horietatik 10.500.

LABUR

## Txinatik datorren filosofian oinarrituta

Osasun parke horien oinarrian antzinako jakituria dago; Txinako medizina tradizionalaren printzipioak dira inspirazioa. Itxuraz oso errazak diren ariketek askorako balio dezakete: modu jarraian eginda, gaixotasun kardiobaskularrak, artritisa eta beste gaitz batzuk prebenitzeko edo horiek dituztenei laguntzeko balio dute. Osasun ona duten baina mugitzeko ohitura galduta zeukaten pertsonendako ere oso onak izan daitezke. Txinan, adin guztietako jendeak dauka ohitura ariketa egiteko; askotan, tai txia egiten dute, baina tresnak ere erabiltzen dituzte.
Beste oinarri bat kalistenia da; gimnasia mota horren filosofia da giharrei eragitea, bakarka edo multzoka, modu mekanikoan eta jarraian egindako ariketekin.

**OBRAK** > OLANDIXOKO TUNELA

# Bost istripu eta lur-jausia gertatu dira Olandixoko tuneleko obretan

Askok ez dituzte behar bezala errespetatzen obretako seinaleak



Mendiaren zati bat behera etorri da berriro; hura konpontzen dabiltza. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gidari asko marmarka dabil Arrasate eta Aretxabaleta arteko bidegurutzeko zirkulazio desbideratzearengatik. "Istripu mordoa egon da, txapuza ederra egin dute", diote batzuek. "Ez da batere ondo ikusten", beste askok, "zubipea da puntu beltza orain, Chapime ondoko errebuelta txikitu egin dute-eta".

**"STOP SEINALEA ERRESPETATU EZ"**

Izan ere, obra handia egiten dabiltza Chapime parean (Mugarritten). Olandixoko tunela (mendebaleko saihesbidea) zulatzen dabiltza, eta biribilgune berria eta bi zubi eraikitzen. Hori guztia egiteko zirkulazioa desbideratu egin dute, saihesbidearen zubipe ingurutik. Hortik pasa behar da, adibidez, Aretxabaletara joateko, Arrasateko noranzkoan doazenei pasatzen uzteko stop egin ostean. Baina guztiek ez dute stop hori errespetatzen. "Zoroen pare datoz asko; atzo bertan [martitzena], kamioi batek sekulako balaztada egin zuen stopean ez zelako geratu. Eta ezkerrera okertzea debekatzen duen seinaleari paso egin eta ezkerrera okertzen segitzen dute askok", kontatu dute obrakoek.

**BOST ISTRIPU OTSAILAREN 2TIK**

Halakoek dagoeneko utzi dituzte ondorioak, istripuak: "Hilaren 2an, desbideratzea zabaldu zutenean, hiruzpalau istripu izan ziren, gidariak bizkorregi pasatzen zirelako, stopik egin gabe; gero, gutxitu egin dira, bost-edo egongo ziren harrezkero", jakinarazi du Herrizaingo Sailak. Hala ere, horixe da gomendioa, jakina, stop seinaleari kasu egitea.

**OINEZKOENDAKO BIDE ZABALA**

Pozik dabiltzanak, berriz, oinezkoak eta erretiratuak dira. Oinezkoen kasuan, bidegorria ere desbideratu egin dute eta saihesbidearen zati bat egokitu eurendako. "Zabal-zabala da, eta segurua. Hori bai, errepidera igotzeko aldapa dago, handia gure adinekoendako", kontatu dute.

Bidegorriari dagokionez, berriz, zubiak eraikitzen dabiltzan zatietan apurtu egin behar izan dute: "Baina gero berriro ipiniko dugu, akaso ez oraingo bidetik, baina bai gertutik", jakinarazi dute obrakoek.

Erretiratuak, berriz, gustura dabiltza, paseoa egiteaz bat obra handia ikusten dutelako. Hori bai, obrakoek kontatu dute larregiko grina ere erakutsi dutela: "Behar ez duten lekuetan sartzen dira, eta noizbait disgustua izango dugu!".



Oinezkoak gustura dabiltza bidegorri paseoa errepidetik desbideratuta. U.M.

**BIGARREN LUR-JAUSIA**

Diputazioa dabil Olandixoko obra egiten. Tunela bera dagoeneko zulatuta dago. Eta aurreikuspena zen aurtengo sanjuanetarako guztia bukatuta izatea. Baina zailtasunak izan dituzte; besteak beste, pare bat lur-jausi, azkena urte hasiera honetan. Eta lur-jausi horiek lanon bukaera atzeratuko dute. Justu asteotan dabiltza lur-jausiok konpontzen.



ARRASATE HERRI ESKOLA

## Herri eskolakoak elkarbizitzako ekimenetan

Elkarbizitza lantzen hasi dira joan den azaroan Arrasate Herri Eskolan, "umeekin parte hartzen duten talde guztien artean". Arlo teorikoa lantzeaz gain, praktikoa ere lantzen dihardute. Argazkia da erakusle, Adarra (Urnieta) mendira irteera egin zuten 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoek, haien gurasoek eta irakasleek. Gero, Zubietako frontoian bazkaldu zuten. "115 bat lagun elkartu ginen, eta partaidetza handia da hori; baina gehien nabarmenduko nukeena da sortu zen giro aparta", kontatu dute.

**TXATXILIPURDI**

## Erdigunea pizteko beste ahalegin bat

Ping-pong eta mahai-futbolean jokatzeko aukera izango da domekan 16:00etan

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

*Erdigunea piztu!* ekimenaren barruan ping-pong eta mahai-futboleko txapelketak antolatu dituzte gazte txokoek domekarako. Hala, gaztetxoek bi joko ezagunotan dituzten abileziak erakutsi beharko dituzte, 16:00etan, Biteri plazan.

**PARTE-HARTZEA, MUGATUA**

Ping-pong txapelketan banaka eman behar da izena, eta mahai-futbolean, binaka. Arauak egunean bertan azalduko dira; txapelketa mistoa –edonorendako– eta nesken txapelketa –neskendako bakarrik– egongo dira. Bestalde, parte-hartzea mugatua izango da, izena ematen azkarrenak izango dira lehenak jokatzen. Sariak, noski, ez dira faltako.

eli senda
Elikadura • Naturopatia
Erreflexologia
Buruko masaje indiarra
Aurretiazko zita:
943 79 05 77
Iturriotz 33, behea 2
ARRASATE

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



**Juan Carlos Davila** > Arrasate Bizirik elkarteko kidea

# "Ardoa, garagardoa eta pintxo guztiak amaitzea espero dugu; seinale ona litzateke"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Eguenero hain arrakastatsua den pintxo poteoa bihar ere izango dugu. Biharkoa, baina, berezia izango da, jasotzen den dirua Haitiko kaltetuei zuzenduko zaie-eta. Arrasate Bizirik ostalaritza elkarteak eta Harreman erakundeak antolatu dute elkartasun jaia. Gu Arrasate Bizirik taldeko Juan Carlos Davilarekin egon gara ekimenaren berri eman diezagun.**



Juan Carlos Davila Monte tabernan, Haitiren aldeko ekimenaren berri ematen. J.B.

**Kontaiguzu zer egongo den bihar Biteri plazan.**

Harreman gobernuz kanpoko erakundearekin batera pintxo poteoa antolatu dugu Haitiren alde. Hala, bihar barra bat jarriko dugu Biteri plazan, 18:00etatik 22:00etara. Bertan ardo ondua edo garagardoa eta pintxoa euro baten truke jarriko ditugu.

Barraz gain, umeendako puzgarriak ere egongo dira. Azkenik, musikarik ez da faltako.

**Nondik sortu da ekimen berezi horren ideia?**

Arrasate Bizirik elkarteko kideok Haitiko hondamendiaren ostean bilera bat egin genuenean, elkartasun ekimen bat abiaraztea pentsatu genuen. Hau da, gure aukeren barruan, laguntza bat ematea erabaki genuen. Bueltа batzuk eman ostean, laguntzeko modua gure eskuetan genuela ohartu ginen; hau da, pintxo poteoa. Denok ezagutzen dugu pintxo poteoa; arrasatear asko erakartzen duen ekimena da.

**Nolako parte-hartzea espero duzue?**

Jende asko agertzea espero dugu; hori gura dugu. Biteriko plazan jasotzen den diru guztia Haitira bidaliko da, eta horrez gain Arrasate Bizirik elkarteko tabernetan botila bakoitzeko euro bat zuzenduko da hara. Eta ez hori bakarrik, tabernariek ere ekimenarekin bat egin dute, eta 2009ko botea –bazkari baterako-edo zuzentzen dena– Haitira bidaliko da.

Beraz, ardoa, garagardoa eta pintxo guztiak amaitzea espero dugu; seinale ona litzateke.

**Eguraldiak laguntzen ez badu, pentsatu duzue alternatibarik?**

Espero dugu eguraldiak ere elkartasuna adieraz dezala. Eguraldi oso txarra egiten badu, bertan behera utzi beharko dugu, eta beste egun batean egin.

BITERIKO BARRA

## Hainbat elkarte eta enpresa; helburua, bat

Ardoa Bodegas Alkortak jarriko du; garagardoa, Amstel-ek; txistorra, Super BMk; eta ogia, Eroskik. Bestalde, puzgarriak jartzea eta ekimena musikaz girotzea Aretxabaletako Erostegi enpresaren ardura izango da. Izan ere, Davilak dioenez, "gurasoak haurrak gustura egon daitezkeen lekuetara joaten dira"; adin guztiei zuzendutako ekimena da, beraz. Azkenik, Biteri plazako barra Harreman Arrasateko gobernuz kanpoko erakundeak kudeatuko du.

## oharrak

BERTSOLARITZA

**> Mahai-ingurua**

Emakume Txokoaren eta Udalaren ekimenez, martxoaren 3an *Emakumeak eta bertsolaritza* izeneko mahai-ingurua egingo dute Kulturateko areto nagusian. Gonbidatuak izango dira Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegi eta Maialen Lujanbio.

ARTEA

**> 'Grafikoki esparru publikoa aktibatzen' ikastaroa**

Emakume Txokoak antolatuta, artean –espresio modura– interesa duten emakumeei zuzendutako ikastaroa izango da martxoa eta apirila bitartean. Egubakoitzetan egingo dute, Emakume Txokoan. Izaskun Alvarez izango da irakaslea eta ikastaroa euskaraz izango da.

ONGIZATEA

**> Masajeak ematen ikasi**

Arrasateko Jose Luis Abuin masajistak antolatuta, masajeak jaso eta emateko ikasteko aukera izango da. Urte osorako da ikastaroa eta denetariko masaje motak ikasi ahalko dira, Karrantzako-bainuetxean. Martxoaren 6an eta 7an, esaterako, kiromasajerako oinarrizko teknikak ikasiko dituzte.



**ESKALADA**

# Boulder ligan etxekoak oso ondo

**X.U.** > ARRASATE

Zapatuan egin zuten Boulder Ligako hirugarren proba, Amurrion. Bertan, Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko ordezkariak lehiatu ziren, eta emaitza onak batu zituzten.

Elite mailan Mikel Velasco hirugarren sailkatu zen eta sailkapen nagusian seigarren dago. Iñaki Viejo, berriz, bosgarren sailkatu zen. 18 urtez azpiko kategorian Iñaki Velasco laugarrena izan zen eta Kepa Bruña bosgarren. Neskak ere oso ondo aritu ziren: Miriam Mulasek irabazi egin zuen bere kategorian; Maria Amasene 4. sailkatu zen eta Nahia Vizcaino bosgarren. Azkenik, maila herrikoian Jone Martinezek irabazi egin zuen berriro, eta lehenengo jarraitzen du sailkapen orokorrean.

> ATLETISMOA

## Jonathan Perez Valentzian lehiatuko da asteburuan

Euskadiko Txapelketan 4,85 metroko saltoa eginda –urrea– Jonathan Perezek Espainiako Txapelketarako txartela lortu zuen. Ez da marka makala, arazo fisikoak tarteko ezin izan duelako nahi moduan entrenatu.

Arrasateko neskek ere lan txukuna egin zuten pertika saltoarekin. Hirugarren sailkatu zen Maialen Axpe (3,50) gazte mailako Euskadiko errekorra lortuz, eta Lore Mar laugarrena izan zen, 4,45 metroko saltoa eginda. Malen Ruiz de Azuak, berriz, 3,30 metroko saltoa egin zuen.

Salto hirukoitzean Josu Uribarrenek zilarra lortu zuen (12,53), eta Oihane Urtzelaik brontzea jantzi zuen bai salto hirukoitzean (10,64) eta baita luzera saltoan ere (5,09), Arrasateko errekorra onduz.

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA

# Astebeteko atsedena, fase erabakigarria indarrez hasteko

MUko mutilek martxoko lehenengo asteburuan hasiko dute fase berria, jaitsierakoa; taldeak iaz egindakoa errepikatu egin nahi du

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Iazkoa errepikatu, baina, posible bada, horrenbeste sufritu barik. Izan ere, iaz Javi Zurbanoren mutilek azken jardunaldira arte itxaron behar izan zuten kategoriari eusteko, eta aurten, hasiera baten, iaz baino hobeto hasiko dute fase erabakigarria.

Mondragon Unibertsitateak martxoaren 6an jokatuko du lehenengo norgehiagoka, Baskoniaren kontra. Sailkapenari begiratua eginez gero, MUk erdi-erdian hasiko du erronka berria, lau garaipen batuta. Atzetik daude Easo (2 garaipen), Promociones Lecarzia (4), Mikeldi (4), Bide Bide (4) eta Urdaneta (4). Aurretik, berriz, garaipen kopuru berarekin daude San Inazio (4) eta La Salle (4) –horregatik zen garrantzitsua joan den astean La Salleren kontra galdutako partidua–, eta garaipen bat gehiagorekin Baskonia (5) eta sailkapenean agintzen Lagunak (6) taldea dago.

Bada, deigarria da MU gauza izan dela ligaxkan La Salle eta Lagunak taldeei euren kantxan irabazteko, eta lastima da, haien kontra etxean galdu egin du-eta.



MUko Arexolaleiba, La Salleren kontrako partiduan. JOSETXO ARANTZABAL

**PAREKOTASUN HANDIA**

Datuak ikusita bistan da fase berrian edozer gerta daitekeela, talde gehienek batu duten garaipen kopurua aintzat hartuta jardunaldi gutxitan goitik behera iraul daitekeela sailkapena, guztira bost talde daudeeta lau garaipen batuta. Emozio handiagoa, ezinezkoa. Orain, klubetik jakinarazi dutenez, saskibaloiaz gozatzea tokatzen da, hori da-eta, azkenean, helburu nagusia.

**GAZTEEK SANTURTZIREN KONTRA**

Joan den astean Euskal ligako gazteek errepasoa jaso zuten Baskoniaren kantxan; kategoria berrian lehenengo bi partiduak irabazi eta gero, hirugarrenean etorri zen kolpea (84-51). Porrot hori atzean uzteko egin dute lan aste barruan Baltzategiren mutilek; izan ere, haiek ez dute atsedenik izango eta domekan (12:00), bigarren postuan dagoen Santurtziren bisita izango dute Iturripen. Bi talde horiek puntu kopuru bera dute, eta kontrarioa aurreratzeko norgehiagoka garrantzitsua izango da.

**Zaldibar**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Dribling-Abokajarro | **4-4** |
| Lasagabaster-Steaua del Grifo | **8-0** |
| Cipris-Katenatxio | **5-2** |
| Ekaitz-Fidel & Disc | **2-7** |
| Betrayer-McAwenDauen | **9-4** |
| AT Celaya-Komando Alpargat | **9-2** |
| Aldapa-Iluntz | **2-2** |
| Dublin-Iriztu | **1-5** |

**PARTIDUAK**

| Otsailak 27, zapatua | EPAILEAK |
|---|---|
| **10:30** AT Celaya-Iriztu | **Aldapa** |
| **11:30** Aldapa-Abokajarro | **Iriztu** |
| **12:30** Dublin-Steaua del Grifo | **Abokajarro** |
| **16:00** Dribling-Katenatxio | **Lasagabaster** |
| **17:00** Lasagabaster-Fidel & Disc. | **Dribling** |

| Otsailak 28, domeka | EPAILEAK |
|---|---|
| **10:30** Cipris-Ekaitz | **Betrayer** |
| **11:30** Betrayer-Komando Alp. | **Cipris** |
| **12:30** McAwenDauen-Iluntz | **Komando Alp.** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Dublin | 27 | 10 |
| **2.** | Dribling | 25 | 10 |
| **3.** | Iriztu | 25 | 10 |
| **4.** | Abokajarro | 20 | 10 |
| **5.** | Betrayer. | 20 | 10 |
| **6.** | Cipris | 18 | 10 |
| **7.** | AT Celaya | 17 | 10 |
| **8.** | Lasagabaster. | 17 | 10 |
| **9.** | Fidel & Disc.. | 15 | 10 |
| **10.** | McAwenDauen | 12 | 10 |
| **11.** | Ekaitz | 12 | 10 |
| **12.** | Iluntz | 5 | 10 |
| **13.** | Aldapa | 5 | 10 |
| **14.** | Komando Alpargat | 5 | 10 |
| **15.** | Katenatxio | 3 | 10 |
| **16.** | Steaua del grifo | 0 | 10 |

## Lehenengo daudenak, azken lekuan daudenen kontra

Sailkapenean aurrealdean dabiltzan hiru taldeek dagoeneko aldea handitu dute, eta pena, hurrengo fasean oraingoan egindako lorpenak ez dituztelako kontutan hartuko, hutsetik hasi beharko dutela, alegia. Bestalde, asteburuan aurrealdean dabiltzan Dublinek eta Driblingek ez dituzte ligako kontrario gogorrenak aurrean izango. Ondo legoke Katenatxiok edo Steauak ligako ezusteetako bat emango balute. Zergatik ez?

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50






**Rafa Gomez** > Al-Andalus elkarteko presidentea

# "Sevillana maratoia egingo dugu domeka goizean"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Al-Andalus elkarteak Andaluzia eguna ospatuko du aste bukaeran. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte, elkarteko bazkideei eta herritarrei zuzenduta. Gogoratu behar da aurten 20. urteurrena ospatzen dabiltzala elkartean; horren harira, urte hauetako balorazioa eskatu diogu Rafa Gomez presidenteari.**

**Andaluzia eguna ospatuko duzue bihartik aurrera. Zein izango da ekitaldi garrantzitsuena?**

Kontuan hartu behar da aurten 20. urteurrenaren ospakizunetan sartuta gaudela. Hala, Andaluziako ereserkiaren interpretazioa garrantzitsua izango da, domekan, 13:00etan.

Bestalde, zapatuan 20:00etan Sueños de Andalucia dantza taldeak egingo du emanaldia.

**Aipatzekoa da Kordobatik etorriko den Pedro Obregon abeslariaren kontzertua.**

Bai, Kordobatik bertatik etorriko da flamenko abeslaria; gainera, lagun izango du Jose Mari Ramirez Barakaldoko gitarrajotzailea.

**Domekan sevillana maratoia egingo duzue. Badago anekdota bat horren inguruan...**

Domekan 12:00etatik 13:00etara izango da maratoia. Kontua da behin, Getafeko elkartearekin senidetze bazkaria egin genuela; bazkalostean, denak sevillanak dantzatzen hasi ziren, eta guk ez genekien dantza egiten. Horren ondorioz, eskolak eman ditugu elkartean, eta gaur egun esan daiteke 1.000 lagunek inguruk dakitela Arrasaten sevillanak dantzatzen.



Rafa Gomez, Al-Andalusen egoitzan. A.E.

**"Elkartea ez da ghetto bihurtu, kanpora begira lan egiten dugu"**

Maratoiaren ondoren bazkide eta lagunendako bazkaria egongo da elkartean bertan.

**Elkarteak 20 urte bete ditu. Zein izan da urte hauetako balorazioa?**

Esan behar da elkartea ez dela ghetto bihurtu. Kanpora begira egin dugu lan; izan ere, Debagoieneko hainbat elkarterekin batera egin dugu lan. Gainera, andaluziarren gaineko aurreiritziak apurtzeko balio izan du; eta baita alargun geratu diren emakume andaluziarrak kalera irten eta bizi berria hasteko ere.

**Herritarrak animatuko ditugu domekan jaira joan daitezen!**

Bai, giro bikaina egongo da!



Sexty Sexers taldekideak. GOIENKARIA

**MUSIKA** > KONTZERTUA

## Sexty Sexers beratarren rock-and-rolla 3 aretoan

Kontzertua bihar, zapatua, izango da, 23:00etan; sarrera, 6 euroren truke

A.E. > ARRASATE

Berako Sexty Sexers taldearen rock doinuek 3 aretoa hartuko dute bihar, zapatua. 23:00etan hasiko da kontzertua; sarrera, 6 eurotan. Beratarrek 2009ko irailean estreinatutako *Hero Mantra* disko berria aurkeztuko dute Arrasaten. "Mantra berriaren sorkuntza azidoa izan da, zapore anitzekoa, gazia, geza eta gozoa", adierazi dute taldekideek. Hainbat sentimendu biltzen ditu diskoak.

Sexty Sexers taldearen aurretik The Riff Truckers taldeak jardungo du.

**BLUES UKITUA**

The Riff Truckers talde bizkaitarra da, Ea herrikoa. Euren musikaren oinarria rock-and-rolla da, baina blues eta country ukituak ere badituzte.

**INTERNET** > IRITZIAK

## Arrasateko etimologiaz dihardute 'Euskonews'-en

'Mondragon-750' efemeridearen gainean hainbat adituren iritziak jasotzeko balioko du atal berriak

A.E. > ARRASATE

*Euskonews.com* atariak atal berri bat zabaldu du Arrasateko etimologiaz iritziak emateko; hain zuzen, *Mondragon-750* efemeridearen gainean hainbat adituren iritziak jaso gura dituzte.

Asmoa da denen artean –aditu eta ez hain aditu– argi apur bat jartzea Arrasateko etimologiaren gainean. Besteak beste, dagoeneko Jose Mari Velez de Mendizabalen eta Patxi Salaberri euskaltzain osoaren iritziak daude sarean.

**'ARRASATE', 'ARRESATE'**

Salaberriren ustez, egungo *Arrasate* izena *Arresate* berbatik dator: *harri*-ren elkarketako *ar-* aldaera eta *esate* –mendiko atea–.

Velez de Mendizabalen artikuluaren izenburua da: *Arressate, 1260. Arrassate, 1334.*

> ERAKUSKETA

### Nikaraguako egoera azalduko dute argazki bidez Harresi aretoan

*Una vueltecita por Nicaragua* izenburupean, Nikaraguako errealitatea erakutsiko dute argazkitan Iñaki Agirianok eta Ima Escribanok.

Erakusketa bihar eta etzi egongo da zabalik Harresi aretoan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Agiriano eta Escribano Kainabera GKEko kideak dira. Hala, azkeneko urteetan han egindako lanak laburbiltzen duen argazki sorta jarriko dute ikusgai; gainera, atzo, eguena, Nikaragua aitzaki hartuta hitzaldia egin zuten.

> BAKARRIZKETAK

### Suso Seca eta Rafa de la Llave umoristak Iamai Kafetegian

Gaur Suso Seca eta Rafa de la Llave umoristen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, 00:00etan hasita, Iamai kafetegian. 10. urteurrena ospatzen dabiltza Iamai kafetegian, eta horren harira antolatutako ekitaldia da. Suso Seca eta Rafa de la Llave umoristek bakarrizketak egingo dituzte; Paramount Comedy programako kideak dira.

Ospakizunetako jai nagusia maiatzaren 1ean egingo dute; egun horretan, DJ Makala izango da Iamain.

> ZINEMA

### 'Sherlock Holmes' akziozko filma aste bukaeran Amaian

Guy Ritchie zuzendariaren azken lana, *Sherlock Holmes*, eskainiko dute domekan eta astelehenean Amaia Udal Antzokian. Holmes detektibearen gorabeherak kontatzen ditu akziozko filmak. Bi ordu pasako iraupena dauka, eta 13 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Domekan 19:30ean izango da, eta astelehenean, 20:30ean.

Haurrentzako, berriz, domekan, 17:00etan, *Rompedientes* komedia emango dute.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76


Suso Seca eta Rafa de la llave
Gaur Otsailak 26
00:00etatik aurrera
IAMAI kafe ANTZOKIA
ARRASATE

INGURUMENA > ZUHAITZ EGUNA ETA FERIA

# Landatzea deitu dute biharko, Gorlako pagadia berreskuratzeko

Zuhaitz Egunaren barruan izango da; autobusa, ogitartekoa, zuhaitzak, eta aitzurrak Udalak jarriko ditu

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Urtero bezala, Zuhaitz Eguna eta feria antolatu ditu Udaleko Ingurumen batzordeak biharko, zapatua. Sentsibilizazioa bultzatzearekin batera, helburua da basoak errekuperatzea eta hobetzea, eta, horretarako, zuhaitz landatzea egingo da Gorlako pagadi baten. Guztira, landatuko dira 500 zuhaitz –bihar 100–: pagoak, basa sagarrondoak, erratzak, hurritzak, haginak eta urkiak, besteak beste.

**MEHATXATUTAKO ESPEZIEA**

Gur egun 278 hektarea pago geratzen dira Bergaran, herriaren azaleraren %3. Garai baten, Gorlakoa bezalako pagadiek herriaren azaleraren zati nabarmen handiagoa hartzen zuten, baina giza jardueren ondorioz –egurgintza, ikazkintza, abeltzaintza eta egur landaketak– pagadien hedadurak beherakada izugarria izan du.

Horrekin guztiarekin batera, pagadian bizi diren landare, anfibio, ugaztun eta hegazti asko desagertzeko arriskuan jarri ditugula azaldu dute Ingurumen batzordetik. Euskal Autonomia Erkidegoko fauna eta flora mehatxatuaren katalogoan hala jasota dago. Europako legediak ere bertoko pagadiak interes berezidun ekosistema izendatzen ditu eta babestu beharrekoa dela agintzen du.

Pagadia berreskuratzen lagundu nahi duten guztiei dei egiten die Udalak, bihar, zapatua, Gorlan egingo duten landatzera. 09:30ean abiatuko da autobusa, Ibargaraiko geltokitik, eta itzulera 13:00etan izango da. Zuhaitzak, aitzurrak eta hamarretakoa ere Udalak jarriko ditu. Gainera, norberak landatutako zuhaitzei izena jartzeko aukera egongo da.

**ZUHAITZ AZOKA**

Zuhaitz Egunarekin batera, zuhaitz azoka ere antolatu du biharko, zapatua, Ingurumen batzordeak.

09:00etan hasita eta eguerdira arte, hainbat landare espezieren erakusketa eta salmenta egongo da San Martin plazan. Hain justu ere, 16 postu egongo dira, guztira; 15 postu landareenak izango dira eta bat, tresneriarena.

DATUA

**100**

**ZUHAITZ LANDATUKO DITUZTE**

Biharko Zuhaitz Egunean 100 zuhaitz landatuko dituzte bertaratzen direnen artean –pertsonako bat–, baina horrez gain, beste 400 ere landatuko ditu Udaleko brigadak, sail berean.



Iaz ere Gorlan egin zuten zuhaitz landaketa. GOIENKARIA

INGURUMENA > HEGAZTIAK

## Herriko hegaztiak babesteko azterlana esleitu du Udalak

M.B. > BERGARA

Herriko hegaztien kontserbazioaren gaineko azterlana esleitu dio Udalak Aranzadi Zientzia Elkarteari. Asteleheneko osoko bilkuran onartu zen esleipena, aho batez. 9.860 eurotan egin da eta Aranzadik 12 hilabete izango ditu lan hori egiteko.

Agenda 21eko plangintzaren harira, Udalak hainbat konpromiso hartuta ditu biodibertsitatearen gainean. Bat da udalerrian landareen eta animalien gaineko inbentarioa egitea. Informazio horrekin Udalak plan estrategikoa egiteko asmoa du 2011rako eta helburua da herrian dauden animalien eta landareen katalogoa izatea eta, egitasmoren bat egin behar bada, estrategia hori kontuan izatea. Landareen azterketa dagoeneko eginda dago, 2008an. Ugaztunena ere 2007an esleitu zuten eta orain hegaztiena esleitu dute.

## oharrak

HITZALDIA

**> Hiperaktibitatearen gaineko hitzaldia martitzenean**

*Arreta gabezia eta hiperaktibitatea* delako hitzaldia antolatu du Aranzadi ikastolak martitzenerako. 18:30ean izango da, ikastolan, eta berba egingo dute Gipuzkoako arreta gabeziaren eta hiperaktibitatearen elkarteko ordezkariek.

ZOZKETA

**> Ipintza institutuko bost otarre emateke geratu dira**

Aratuste-zapatuan ikas bidaiarako dirua batzeko hamar otarre zozkatu zituzten Ipintzako ikasleek. Bada, bost oraindik emateke daude. Zenbaki sarituak dira: 83, 366, 420, 496 eta 614.

BATZARRA

**> Bergarako Orfeoiak urteko batzarra egingo du martxoaren 2an**

Erregetxo plazako entsegu lokalean egingo dute. Lehen deialdia da 21:00etan eta 21:30ean bigarrena.

UDALA

**> Ibilgailuen zerga ordaintzeko epealdia zabalik dago**

Urtero bezala, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2010. urteko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea martxoaren 1ean hasiko da eta maiatzaren 31n bukatu. Egun horretatik aurrera errekarguarekin eskatuko da.

HITZALDIA

**> Nafarroako Erresumaren konkistari buruzko hitzaldia**

Udalak Euskal Herriko historiaren gainean antolatutako hitzaldi sortaren barruan, *Iruñeko Erresumaren sorrerarainokoa. Historiaurretik IX. mendera* delako hitzaldia egingo du Beñi Agirrek. Martxoaren 3an, eguaztena, izango da, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

Aroztegia
San juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

- Proiektuak
- Koltxoiak
- Horma-armairuak
- Altzariak neurrira
- Ateak
- Eskailerak
- Leihoak
- Tarimak
- Egur lanak orokorrean







SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 / 666 517 295

Agurne Barruso > Alkatea

# "Prozesu parte-hartzailea egingo dugu erabilera askotako antzokia herritarrekin diseinatzeko"


Agurne Barruso, bulegoan. M.B.

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

**Aldundiaren Kudeatuz programaz baliatuz, parte-hartze prozesua abiaraziko du datorren astean Udalak. Helburua: erabilera askotako antzokia herritarrekin batera diseinatzea. Barruso alkateak herritar guztiak gonbidatu ditu martxoaren 2an, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan egingo den batzarrera.**

**Zergatik erabaki duzue prozesu parte-hartzailea abiaraztea?**

Azkeneko bi urteetan saiatu gara herritarren parte-hartzea handitzen. Egia da orain arte ez dugula egin prozesu parte-hartzaile egituraturik; dinamika horretan bai sartu gara, baina prozesu antolaturik egin barik, eta orain aukera sortu zaigu.

**Ze helbururekin abiarazi duzue?**

Aukera suertatu zitzaigunean, hainbat gai aztertu genituen eta interesgarrienentzat jo genuen erabilera askotako antzoki bat herritarrekin batera diseinatzea.

**Zergatik?**

Alde batetik, uste dugulako Bergararendako proiektu inportantea dela, behin Seminarioko proiektua alde batera lagata ezer egiteke dagoelako. Hortaz, hutsetik hasteko aukera ematen digu. Muga bakarrak izango dira Plan Orokorrak eta orubeak, arkitektonikoki ipinitakoak. Eta hori bazen baldintza garrantzitsua prozesu parte-hartzailea abiarazteko. Izan ere, uste dugu badela beste modu bat antzoki hori eraikitzen den egunean –dena delako Udal Gobernua egonda ere–, herriak erabakitako proiektua gauzatzeko.

**Zenbateraino zehaztuko da eraikin horren diseinua?**

Erabaki nahi duguna da zertarako izango den eta nolakoa izango den. Hau da, Bergaran oso sartuta dugun antzoki eredua da Seminarioko elizarako planteatzen zena: aldagelak, taulatua eta entzuleen gunea. Hori aukera bat da. Baina badira beste batzuk. Esaterako, entsegu gelak ere izan behar ditu, zenbat? Ikuskizun mota guztietarako izan behar du…? Egon daitezkeen aukerak aztertu eta, ahal dela, hori guztia adostu nahi dugu, proiektu komuna ateratzeko.

**Eraikin hori aurreikusten da Miguel Altunaren Seminario aldeko eraikin zatian.**

Bai. Orube hori libratzea Miguel Altuna institutu berriaren proiektuaren menpe dago, baina badirudi aurtengo urte bukaera aldera hasiko direla institutu berria eraikitzeko lanak, eta, ondorioz, bi urteren buruan orubea libre gera daiteke.

**Nola gauzatuko da prozesu parte-hartzailea?**

Alde batetik, banatu ditugu herritarrak hiru multzotan: batetik daude kultura ekoiztu eta herriari eskaintzen dioten kultura taldeak; bestetik daude kultura ez ekoiztu arren kultura ekimenak antolatzen dituztenak, Jardun esaterako; eta azkenik gaude herritarron gehiengoa, hau da, kultura kontsumitzen dugunak. Bada, guk nahi duguna da prozesu parte-hartzaile horretan hiru multzo horietako ordezkariak egotea, interes ezberdin baina osagarriak batzeko.

Hiru batzar egingo ditugu eta hor joango da definitzen nolako antzokia behar dugun bergararrok. Bigarren batzarrean etorriko da udal arkitektoa, nolabait, dauden muga arkitektonikoen berri emateko. Izan ere, ez dugu planteatuko hamar pisuko eraikina nahi dugula, hori egiteko aukerarik ez badaukagu. Hala, bigarren batzarrean jarriko dugu metroen muga. Bestalde, muga arkitektonikoekin batera partehartzaileen eskura jarriko ditugu, baita ere, Bergaran azken boladan antolatu diren kultura ekintzen datuak, errealitatearen gainean ere ezagutza bat izateko.

**Lehen batzarra datorren astean izango da.**

Martxoaren 2an, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan eta gaira hurbiltzen hasteko batzarra izango da, bi ordu ingurukoa. Hurrengoak parte-hartzaileekin batera finkatuko ditugu.

**"Hiru batzar egingo ditugu, lehena martxoaren 2an"**

**"Hutsetik abiatuko gara; muga bakarrak izango dira arkitektonikoak"**

## Berdegunea fraideen etxeko orubean


MONIKA BELASTEGI

Seminarioko fraideen etxeko orubean berdegunea egitea erabaki du Udalak eta dagoeneko egokitzen dihardute. Hainbat aukera aztertu eta gero –aparkalekuak egokitzea edo, ondoko jolaslekua bezala, asfaltatzea, besteak beste– berdegunea egitea hobetsi dute. Ikastetxe baten ondoan egotea aintzat hartu dute erabakitzerakoan.

**EKONOMIA** > MERKATARITZA

## Merkealdiko azoka txikia egongo da aste bukaeran

M.B. > BERGARA

Bedelkarko dendariek kalera aterako dituzte, beste behin, euren produktuak. Hain justu ere, merkealdiko azoka txikia egingo dute gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua.

Generoa herritarren bistara, dendaren aurreko aldean jarriko dute merkatariek, eta, elkarteko presidente Maria Eugenia Igartzaren esanetan, elkarteko denda gehienek hartuko dute parte. Auzoetako denden kasuan, erdigunera hurbiltzeko aukera izango dute. Horretarako, karpak egokituko dituzte Domingo Irala kalean.

Horrekin guztiarekin batera, bihar, zapatua, Musika Eskolako gazte txaranga ibiliko da kaleetan barrena giroa alaitzen.

Bedelkar elkarteak egiten duen merkealdiko halako hirugarren azoka txikia da.

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Ion Murgizu Pinturak
Margoketa orokorrean
• Enpapelatuak
• Iztukoak
• Fatxadak
• Eskilarak eta patioak
• Pintura industriala
• Eskaiola eta pladurra
Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behea • Soraluze
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

DRAGON ORIENTAL Jatetxea
Etxera eramaten dugu
Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Osintxu, Antzuola edo Soraluzera + 2 €
☎ 943 25 06 77
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

PILOTA

# Berria txapelketako partiduak Tolosan etzi

Bergarako mutilek Aurrera Saiaz izango dute kontrario Beotibarren

**X.U.** > BERGARA

Berria txapelketan aurrera egiteko Bergarako pilotariek kontrario gogorrak izango dituzte domekan, 10:30ean hasiko duten jaialdian. Izan ere, Gipuzkoako talde indartsuenetako baten kontra neurtuko dituzte indarrak: selekzio modura funtzionatzen duen Aurrera Saiazen kontra, hain zuzen ere. Bergara, berriz, etxeko pilotariekin ahaleginduko da aurrera egiten.

Kadetetan Jokin eta Beñat Etxabe anaiek jokatuko dute, gazte mailan Mikel Gallastegik eta Beñat Rezustak eta seniorretan Ander Mugurutzak eta Iñaki Jauregik.

**MARTITZENEAN, GEHIAGO**

Soparuce Koop. txapelketa barruan, martitzenean kanporaketa gehiago egongo dira lau t'erdi barruan (19:00). Lehenengo partiduan Aitor Mendizabal antzuolarrak jokatuko du, Hernandezen kontra. Ondoren beste hiru partidu izango dira, horiek ere final-zortzirenetakoak.

ESKUBALOIA > TERRITORIAL MAILA

# Aurrealdean dabiltzanen arteko lehia domekan

Hirugarren dagoen Soraluce BKE taldeak bi puntu gehiago dituen Elgoibar izango du aurrean

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Hegialde Autoren kontra galdu eta gero Soraluce BKE taldeak domekan errekuperatu nahi du galdutako postua. Josetxo Muniategiren mutilak hirugarren daude sailkapenean, 23 punturekin, eta Alcorta Forgin Elgoibar taldea tarte txikiagatik dago aurrerago (25): "Joan den asteko emaitza txarraren ondoren ez daukagu irabaztea beste aukerarik. Atzetik bai Legazpi eta bai Ereintza bi puntura daude eta kontuan izan behar dugu oraindik zortzi puntu daudela jokoan. Hala, bistan dago aurrealdean gabiltzan bost talderen artean jokatuko ditugula igoerako hiru postuak.

Bergara, oraingoz, igoerarako eskubidea ematen duen hirugarren postu horretan dago, baina, Bergarako entrenatzaileak aitortu duenez, atzekoak estutzen dabiltza, eta zelan, gainera.

**JOKALARIAK ERREKUPERATUTA**

"Domekako partidurako espero dugu orain arte min hartuta egon diren hainbat jokalari errekuperatzea. Norgehiagokari dagokionez, indarrak oso parean egongo dira, eta gainera, bi taldeok dugun jokatzeko modua nahiko antzerakoa da. Hala, partiduko detaile txikiak ondo zaintzen dituen taldeak irabaziko du"

Soraluce BKEko entrenatzaileak zaleak animatu nahi ditu domekan Labegaraietara gerturatzeko: "Eurendako ere partidu garrantzitsua da, eta zale asko ekarriko dituzte".



Bergarako eta Ormaiztegiko jokalariak lurrean baloiagatik lehian; Muniategik dei egin die zaleei domekarako. GOIENKARIA

IGERIKETA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Bergarako sei igerilari bihar eta etzi Agorrosinen egingo duten txapelketan

Gipuzkoako txapelketa dela-eta Agorrosingo igerilekua itxita egongo da erabiltzaileendako

**X.U.** > BERGARA

Irailean denboraldi-aurrea hasi zutenetik igerilariek Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak izan dituzte begiz jota, eta iritsi da ordua. Gipuzkoakoa bihar eta etzi jokatuko dute Agorrosinen eta datorren astean izango da Euskadikoa, seguruenik Getxon.

**GUTXIENEKO MARKEN JABE**

Hala, asteburuko hitzorduan irteera puntuan egon ahal izateko igerilariek gutxieneko markak lortu behar izan dituzte neguan zehar egindako txapelketetan, eta Bergaran sei igerilarik lortu dituzte marka horiek.

Bergara ordezkatuko duten igerilariak dira Mikel Labaka (50 metro tximeleta, 100 tximeleta eta 100 estilo librean), Nielka Ibarguren (50, 100 eta eta 200 bular estiloan), Urki Ibarguren (50, 100 eta 200 estilo librean), Xabier Labaka (100 eta 200 bular estiloan), Ander Franco (50 tximeleta, 50 eta 100 estilo librean) eta Jon Muxika (100 eta 200 estilotan, eta 200 libre).

**"LAN ONA EGITERA"**

Honela laburtu du Bergarako ordezkari Maialen Alkortak etxekoek ze asmo duten Gipuzkoako txapelketari begira. "Dagoeneko baditugu Euskadiko txapelketarako gutxieneko marka batzuk, baina Gipuzkoan lan ona egin nahi dugu. Eta posible bada aurrealdean ibili nahi dugu, nahiz eta jakin probaren bat irabaztea oso zaila izango dela, jende oso ona etorriko delako". Goizeko saioak 10:00etan hasiko dira; arratsaldekoak 17:00etan.



Igerilariak irteera unean. GOIENKARIA

> PIRAGUISMOA

### Bretainian, Patxi Ugalde Eurolimpic txapelketan ondo

Beti Bustiko gazteak esperientzia ederra bizi izan du egunotan Bretainian, selekzioaz. Hilaren 19an Lochristen izan zuen proba eta 51 palistetatik 26. sailkatu zen. Astelehenean Lanmioneko proban 35.a izan zen, eta eguaztenean Cesson-Sevignen zuen azkeneko proba; hor 27. sailkatu zen 70 palisten artean.

> SASKIBALOIA

### Bergara BKEk alebinendako saioak antolatu ditu etziko

Domekan (10:00) alebin mailako gaztetxoek hastapeneko saskibaloian jardun ahal izango dute (1998, 1999, 2000, 2001. urteetan jaiotakoak). Saioak 50 minutu iraungo du.

Horrekin batera, klubak webgunea jarri du abian informazio, argazki eta kronikekin (*www.bergarake.com*).

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Internacional-Monte Taberna | **7-3** |
| Komando Piperrak. | **6-9** |
| UD Akabaoak-Zigalikatis. | **8-3** |
| LSJ-Los latinos | **3-6** |
| CM Errota-gain-Diego Valor | **3-5** |
| Irish Pub-Alytis | **3-6** |

**PARTIDUAK**

| **Otsailak 28, domeka** | **Epaileak** |
|---|---|
| **10:00** CM Errota-Gain-Los Latinos | **Monte T.** |
| **11:00** Monte Taberna-Zigalikatis | **Latinos** |
| **12:00** LSJ-Alytis | **Zigalikatis** |
| **20:00** Internac.-Diego Valor | **K. Piperrak** |
| **21:00** Komando Pip.-Irish Pub | **Diego Valor** |
| * UD Akabaoak-Niu Tim | **Atzeratua** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | CM Errota-gain | 49 | 18 |
| **2.** | UD Akabaoak | 48 | 18 |
| **3.** | Niu Tim | 45 | 18 |
| **4.** | Diego Valor Ilea | 42 | 18 |
| **5.** | Los Latinos | 39 | 18 |
| **6.** | Alytis FK | 28 | 18 |
| **7.** | Komando Piperrak | 13 | 18 |
| **8.** | Zigalikatis | 13 | 18 |
| **9.** | Internacional | 13 | 18 |
| **10.** | Irish Pub | 10 | 18 |
| **11.** | Monte Taberna | 6 | 18 |
| **12.** | LSJ | 3 | 18 |

### Liderrak estropezu egin du, behingoz

Joan den asteburuan, laugarren postuan dagoen Diego Valor taldeak ezustea eman zuen lider sendoa mendean hartuta (3-5). Diego Valorrekoak oso indartsu ibili ziren hasieratik, eta liderrak lehenengo zati negargarria egin zuen. Partidu hori galduta ere Errota-Gainek lider jarraitzen du, baina aurrealdean estutu egin da sailkapena. Porrot horregatik minduta, baliteke domekan Los Latinos taldeak jasatea liderraren haserrea.

### Epaileen kontra neurriak hartuko dituzte

Hain zuzen ere, Diego Valor eta Errota-Gain taldeen arteko lehian epaileek egin zuten lanarekin haserre daude antolatzaileak. Ez zuten epaileek kantxan izan behar duten jarrerarik izan, eta antolatzaileek adierazi dute neurriak hartuko dituztela.

### Atzeratutako lehia bat asteburuan

Amaitzeko, UD Akabaoak eta Niu Tim taldeek jokatu beharreko partidua atzeratzeko eskatu dute. Horrekin batera, jakin, domeka goizeko norgehiagokak Labegaraietako kanpoko kantxan jokatuko dituztela. Aldiz, 20:00etan eta 21:00etan jokatuko dituzten partiduak barruan izango dira.


Virginia Imaz antzezle bergararra, gaur antzeztuko duen *Molestias clownicas* antzezlaneko une batean. OIHULARI KLOWN

**ANTZERKIA** > 'MOLESTIAS CLOWNICAS'

# 18 urte eta 600 emanaldi, baina antzezlanak ez du gaurkotasunik galdu

Osasuna eta emakumea dira 'Molestias clownicas' lanaren abiapuntuak; gaur Zabalotegin, 22:30ean

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Virginia Imaz *clown*-ak beste behin jantziko du sudur gorria. Oraingoan etxean izango da, hain gustuko duen Zabalotegi aretoan. Oihulari Klown antzerki taldearen *Molestias clownicas* antzezlanarekin dator, dagoeneko antzerki mota horretan klasiko bihurtu den obrarekin, hain zuzen. Izan ere, obra duela 18 urte inguru estreinatu zuen eta ordutik 600 emanaldi baino gehiago egin ditu, Euskal Herrian eta Espainian. Gaur da hitzordua, esandako moduan, Zabalotegi aretoan (22:30); sarrera bost euro ordaindu beharko da.

**'CLOWN'-AREN KLASIKOA**

Antzerki areto ezberdinetan antzezteaz gain, Virginia Imazek osasunarekin erlazionatutako kanpainetan hainbat alditan antzeztu du *Molestias clownicas*. Bakarrik antzezten hasi zen, eta gerora lankideak batzen joan zitzaizkion. Hala ere, duela lau urte berriz ere bakarrik antzeztera pasa zen, lankideak beste proiektu batzuetan murgildu zirelako.

18 urte pasa dira estreinalditik, baina Imazek argi utzi nahi izan du ikuskizuna emanalditik emanaldira hobetzen doala: "Prozesua ez dago itxita, muina mantendu egiten da, baina pasarteak hobetu egiten dira; obra lehen aldiz antzeztu nuenetik bihar [gaur] eskainiko dudan antzezlanera, badago aldea". Izan ere, gaiak ez du gaurkotasunik galdu, "zoritxarrez". Emakumeak osasun zerbitzuetan pasatzen dituen une txarrak kontatzen ditu; ginekologoaren aurrean, esaterako. Hori bai, *clown* kodea da nagusi; hots, pertsonaiak pailazoak dira eta umorea da euren tresna. Hau da, errealitate gordina modu eraginkorrean islatzea umorea erabiliz.

**GAURKOTASUNA, EZINBESTEKOA**

Egun Antzuolan bizi den antzezle bergararraren ustez, antzezlanak iraungo du taldeko kideek obra antzeztu nahi duten bitartean, baina, dioenez, "ikuslearengan eragina izango duela ziurtatzea ezinbestekoa" da. Horregatik ematen zaio horrenbesteko garrantzia gaurkotasunari.

Imazen beste hainbat lanekin gauza bera gertatzen da; *La alfombra mágica* antzezlana, kasu. Umeen artean irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen obra 90eko hamarkada hasieran estreinatu zuen, eta, aldaketak aldaketa, gaurkotasunik ez du galdu.

**OIHULARI KLOWN, JO ETA KE**

Imazek sortutako antzerki talde beteranoa jo eta ke ari da oraindik ere barre eginarazten. Aretoan zein kalean, haurrendako zein gazte edo helduendako eta erietxe, kongresu edo antzokietan, Oihulari Klown antzerki taldean interpretazioak ez du mugarik. Ikuskizunetan dibertimendua da nagusi, baina gogoeta da azken helburua. Ikuskizunetan taldeak bermatu egin ditu ikusleria eta haren entretenimendua.

AREТOA

### "Guretako aproposa da oso Zabalotegi"

Etxean antzeztuko du gaur Virginia Imazek: "Zabalotegi aretoa oso aproposa da guretako, jende kopuru aldetik oso egokia delako. Gure ikuskizunak ez dira 600 pertsonari begira eginak; gertukoagoak dira". Eta, beraz, Zabalotegiko edukiera ezin aproposagoa da *Molestias clownicas* antzezlanerako.

Bestalde, dio Imazek, "etxean antzezteak bere plusa" du: "Hasieran, baina, aitortu beharra daukat beldur pixka bat niola Bergaran antzezteari". Gaurko emanaldira jendea animatu nahi du: "Ongietorria izango da", adierazi du.

**IKASTAROA** > MUSIKA ESKOLA

# Musika antzerkiaz osatzeko tailerra, bihartik aurrera

Antzerkia izango da protagonista Musika Eskolan zapatu goizero; helburuen artean, "gabezia" osatzen saiatzea

**J.B.** > BERGARA

Musika Eskolak antzerkiaren aldeko apustua egin du. Marije Ugalde eskolako zuzendariaren ustez, Musika Eskola antzerkiaren bultzatzaile izan daiteke. Izan ere, dio Ugaldek, antzerkian Bergarak bizi izan zuen "Urrezko Aroaren ostean", egun "gabezia" da nagusi. Hau da, Ugaldek uste du Bergaran ez dela antzerkirik sortzen.

Hori ikusita, zapatu goizetan antzerki tailerrak egingo dituzte eta hastapen moduan hasiko diren arren –hasierako asmoa da tailerrak hilabetez luzatzea–, Ugaldek uste du epe luzera manten daitekeen ekimena dela. Hala, bihartik hasita, zapatu goizero elkartuko dira Musika Eskolan, 10:00etatik 13:00etara. Tailerraren prezioa da 35 euro eskolakoek eta 50 euro besteek.

**GABILONDO EZ BADA, GARMENDIA**

Antzerki tailerra gidatuko duen irakaslea aukeratzeko ez zuten zalantzarik izan: "Hasierako ideia zen Mireia Gabilondo izatea, antzerkian erreferente delako, eta gainera, bergararra delako. Baina orain oso lanpetuta dabilela esan zigun eta berak lortu zuen Aitziber Garmendia konbentzitzea", adierazi du Ugaldek. Garmendiak hala eskatuta, taldea 12 lagunek osatuko dute. Garmendiaren lehen eginkizuna taldearen maila zehaztea izango da, antzerkian esperientzia dutenak eta sekula antzerkirik egin ez dutenak daude-eta.

Azkenik, Ugaldek honakoa adierazi du: "Herritarrak ekimenaren berri izan dutenean halako zerbait egiteko ordua bazela esan didate, oso ideia interesgarria iruditu zaie".

DATUA

**12**

**LAGUNEKO TALDEA**

Aitziber Garmendia antzezleak 12 laguneko taldea gidatuko du tailerrean. Taldea osatuta dago; batzuk eskolako ikasleak dira eta beste batzuk ikasle ohiak.

ESANAK

**"Herritarrek halako zerbait egiteko ordua bazela esan didate, ideia interesgarria dela"**

**Marije Ugalde** > Eskolako zuz.

> ZINEMA

### 'Jack Amazonaseko erregea' eta 'La sombra del poder' filmak aste bukaeran Zabalotegin

Aste bukaeran ez da zinemarik faltako. Bi film ikusteko aukera izango da aste bukaeran: Fleming Quist Moller zuzendariaren *Jack Amazonaseko erregea* eta Kevin Macdonald-en *La sombra del poder*. Film bakoitzak bi proiekzio izango ditu: lehen filma zapatuan eta domekan 17:00etan –sarrera bi euro– eta bigarrena, berriz, zapatuan eta domekan, baina 19:30ean –hiru euro.

Lehen emanaldia haur eta gaztetxoendako da eta animazio bidez egindako filma da. *La sombra del poder*, bestalde, *thriller* politiko eta periodistikoa da, oso interesgarria.

> GAZTETXEA

### 'Las tortugas también vuelan' filma ikusgai izango da gaztetxean domekan, 18:00etan

Irak eta Turkiako mugen artean dagoen Kurdistango herrixka baten bizi diren gaztetxo batzuen istorioa kontatzen duen *Las tortugas también vuelan* filma ikusteko aukera izango da domekan gaztetxean (18:00). 2004an estreinatua, AEBek Iraken inbasioaren gainean albisteak lortzeko gaztetxoek antena paraboliko bat lortzeko egiten dituzten saiakerak kontatzen ditu. Film gogorra da, errefuxiatuen egoera gordina islatzen duena. Bahman Ghobad Irango gidoilari eta zuzendari kurduak ekoiztutako filma da, eta estreinatu zenetik oso kritika onak jaso ditu.

**TURISMOA** > TXOSTENA

# Udalak 2009-2012 aldirako estrategia turistikoa zehaztu du 14 eragilerekin

Herriko sektore publikoetako eta pribatuetako eta alderdi politikoetako ordezkariek lantaldea osatu zuten iazko apiriletik urrira arte, LKSren laguntzarekin


Udal ordezkariak eta estrategia turistikoaren osaketan parte hartu duten eragileak. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Oñatiko Udalak 2009-2012 aldirako estrategia turistikoa aurkeztu zuen eguaztenean. Proiektuaren garapenean herriko sektore pribatuetako eta publikoetako eta alderdi politikoetako 14 eragilek partu hartu dute. Apirila eta urria bitartean landu zuten, LKSren laguntza teknikoarekin.

Hurrengo hiru urteetarako estrategia turistikoaren gaineko azalpenak eman zituzten Lourdes Idoiaga alkateak, Ikerne Altube Garapen eta Turismo Agentziako gerenteak eta Ernesto Murgiondo zinegotziak.

**TURISTAK ERAKARTZEKO**
Eragileek hainbat bilera egin ondoren, datozen urteetan garatu beharreko atalak zehaztu dituzte. Alde batetik, herriko turismo eskaintza egokitu beharra ikusi dute. "Beharrak asetzeko eta helburua lortzeko estrategikoak diren segmentuei erantzuna emateko lan egingo dugu", esan zuen Ikerne Altubek. Horretarako, besteak beste, kirol-turismoa, atseden-turismoa, ondarearekin lotutako turismoa, familia-turismoa eta taldekako turismoa indartuko dituzte. Era berean, herriko turismoa inguruko lurraldeetan zabaltzeko beharra azpimarratu zuten.

Beste alde batetik, turistak erakartzeko hobetu beharrekoak aipatu zituzten: informazioa eta seinaleztapena hobetu; harrerarako azpiegituren plangintza egin – autokarabanendako aparkalekua, aterpetxeak, aisialdigunea k...–; garraio publikoa kudeatu; herriko turismoa sustatu eta merkaturatu; eta turismo iraunkorrerako eskaintza bateratua osatu, besteak beste.

**HERRIKO BALIABIDEAK INDARTU**
Gainera, turismoa bultzatzeko herrian dauden baliabideak indartzeko beharra aipatu zuten: adibidez, helmugako turismo eragileen formazioa, herriko bizilagunen inplikazioa eta sentsibilizazioa, eta departamentu ezberdinen arteko koordinazioa.

Turismoa indartzeko, eragile guztiek elkarrekin lan egin behar dutela aipatu zuen alkateak: "Elkarlana ezinbestekoa da bost hilabeteko lanaren ondorioz paperean jasotakoa martxan ipintzeko. Eskerrik asko, guztioi, egin duzuen lanagatik!".

ESANAK

**"Gure helburua lortzeko beharrezkoak diren segmentuei erantzuna emateko lan egingo dugu"**
**Ikerne Altube** > Garapen Agentzia

**"Paperean jasotako guztia martxan ipintzeko guztion elkarlana ezinbestekoa izango da aurrerantzean"**
**Lourdes Idoiaga** > Alkatea

## Parte hartu duten eragileak

- **> Edurne Gorostidi** Turismo Bulegoa
- **> Imanol Biain** Natur Eskola
- **> Alberto Elortza** Zelai Zabal jatetxea
- **> Luis Arkauz** Arregi nekazaritza turismoa
- **> Maribi Arregi** Maibi denda
- **> Kepa Altube** Zuazola-Larraña institutua
- **> Agurtzane Diaz** Landa Garapenerako agentea
- **> Iker Uson** Arantzazu Gaur fundazioa
- **> Mikel Bolinaga** Ongi hotela
- **> Miren Maiztegi** Goiko Benta ostatua
- **> Ernesto Murgiondo** Zinegotzia
- **> Jose Mari Igartua** Zinegotzia
- **> Andoni Gartzia** Zinegotzia
- **> Ikerne Altube** Garapen Agentziako gerentea

ERAGILEEN IRITZIAK



**Imanol Biain**
Natur Eskola

### "Turismoa naturara erakartzeko ekarpenak egin ditugu"

"Natur Eskolako eta Arrikrutzeko ordezkariok, bereziki, naturari lotutako ekarpenak egin ditugu, besteak beste, herriak dituen mendi ingurunea, basoa eta natur aberastasunak indartzeko. Naturak Oñatiko turismoaren ardatz nagusietako bat izan behar du. Gure ustez, halako prozesuak beharrezkoak dira turismoa herriarendako onura denean. Lantalde zabala osatu dugu, ordezkaritza zabala. Askotariko iritziak eman ditugu, batzuetan kontrajarriak, baina merezi duelako egin dugu".



**Kepa Altube**
Zuazola-Larraña institutua

### "Plan estrategikoa ezinbestekoa da Oñati moduko herrietan"

"Oso inportanteak dira turismoa indartzeko plan estrategikoak Oñati moduko herrietan. Guk hezkuntzako ordezkari moduan parte hartu dugu, *Kirol ekintza eta natur gidatua* delako ziklo bat dugu-eta. Hainbat ekarpen egin ditugu, guztiak ere naturarekin eta kirolarekin zerikusia dutenak. Adibidez, BTTrekin egin daitezkeen ibilaldien azterketa eskatu dugu. Dena den, zailena izango da paperean jaso duguna martxan ipintzea. Alkateak esan duen moduan, elkarlana inportantea izango da".



**Miren Maiztegi**
Goiko Benta ostatua

### "Lortuko ditugun emaitzekin esperantza handia dugu"

"Gu oso pozik gaude. Oso positiboak iruditzen zaizkigu halako ekimenak. Guk Arantzazun dugu ostatua eta udaberria eta uda dira sasoirik onenak. Plan estrategikoarekin lortu gura diren helburuak ondo finkatzen badira, emaitza onak lortuko ditugu. Esperantza handia dugu. Arantzazun, azkenaldian, turismo indartzeko ekimen asko egin dituzte, eta aurrerantzean proiektu berriak gauzatuko dituzte; besteak beste, Aizkorri-Aratz parke naturala eta parketxea. Guztiaren beharra izango dugu krisia gainditzeko".



**Mikel Bolinaga**
Ongi hotela

### "Onak dira edozein arlo indartzeko egiten diren ekimen guztiak"

"Edozein arlo indartzeko egiten diren ekimen guztiak ondo daude eta onak dira; eta turismoa bultzatzeko egin duguna ere bai. Baina oraindik gauza asko daude egiteko. Guk erdigunean dugu hotela, eta Arantzazun turismoa indartzeko egiten diren ekimenak herrian egitea nahiko genuke. Gehienetan, Arantzazura begira antolatzen dituzte ekimenak, eta Oñatin gaudenok bigarren mailan geratzen gara. Txostenean jaso duguna egia bihurtzeko guztiok elkarrekin lan egitea beharrezkoa izango da".

> DEIALDIA

## Beteranuen zazpi taldek deituta, elkarretaratzea gaur

Beteranuen txapelketan diharduten Jai Ari, Joxely, Albok, Kalañatasaray, Gibel Boys, Zorro Bero eta Indar 85 taldeek elkarretaratzea deitu dute gaurko. Plazan bilduko dira, 19:30ean.

Urtarrilean egin bezala, urtea bukatu aurretik, hil bakoitzeko azken egubakoitzean elkartuko dira plazan, euskal presoei elkartasuna adierazteko eta haien eskubide zibil eta politikoak errespeta daitezela eskatzeko.

> NATURA

## Zumaiako flyscha ikusteko irteeran leku gutxi geratzen dira

Ingurumen Astearen barruan, martxoaren 7an Zumaiako flyscha ezagutzeko irteeran leku gutxi daude. Irteerak herritarren aldetik erantzun oso ona izan duenez, familiekin beste bat egingo dute ekainaren 19an. Horretarako ere leku gutxi geratzen dira. Irteeren gaineko informazioa jasotzeko edo izena emateko Natur Eskolako (943 71 64 04) telefonora deitu beharko dute interesatuek.

> KULTURA

## 'Rosas rojas' antzelanerako sarrerak salgai daude

La Papa antzerki taldeak martxoaren 7an egingo duen *Rosas rojas* antzezlanerako sarrerak salgai dituzte kultura etxean. 10 eurotan eros daitezke. Emanaldia 19:30ean egingo dute, Santa Ana antzokian.

Ongizate eta Kultura sailek antolatutako antzezlanean Lidiaren eta Raulen arteko bikote harremanaren gainekoak kontatuko dituzte. Gainbehera datorren harremana da.

> HIZKUNTZAK

## Cambridgeko azterketak egiteko izenematea zabalik

Cambridgeko azterketa ofizialak egiteko izenemate epea zabalik dute Elkar Hezi ikastetxean martxoaren 12ra arte. Azterketak maiatzean eta ekainean egingo dituzte Elkar Hezin bertan.

Interesatuek ikastetxeko idazkaritzara joan beharko dute inprimakia betetzera. Elkar Hezin matrikula egiten dutenek diru gutxiago ordainduko dute, Kristau Eskolarekin hitzarmena sinatu duelako ikastetxeak.



Iazko proban, Becerra (155) irabazlea, Lizeaga (3) eta Etxegarai (1), Urtiagaingo lehen aldapak igotzen. GOIENKARIA

**KIROLA** > MENDIA

# Aloñako igoera apirilaren 25ean eta izenematea martxoaren 28tik

### Apirilaren 18a baino lehen sartu beharko da dirua Rural Kutxan edo Gipuzkoako Kutxan

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Apirilaren 25ean jokatuko da Aloñako VI. igoera. Antolatzaileak hasi dira mendi lasterketa prestatzen, eta dagoeneko zehaztu dute izenematea noiz izango den; hain zuzen ere, martxoaren 28tik apirilaren 18ra. Tarte horretatik kanpoko inskripzioak ez dituzte onartuko.

Parte-hartzaileek Rural Kutxako (3008019828136889 6427) edo Gipuzkoako Kutxako (30350170571700021937) kontuetan eman beharko dute izena. Mendi federatu txartela dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 20 euro.

**2.200 METROKO DESNIBELA**

Berrikuntza barik, igoera plazan hasi eta plazan bukatuko da. Plazatik kanposantura eta handik San Juan ermitara egingo dute lasterkariek. Han, Arregirako bidea hartuko dute, eta Lamiategira jaisterakoan ezkerrera egin eta Urtiagain (490 metro) izango dute helburu. Urtiagaindik gora malda gogorrak izango dituzte: Belar (922 metro) eta Aloñako gurutzea (1.288 metro). Tontorra eginda, korrikalariek Uribarritik egingo dute itzulerako bidea, Lezesarri auzotik igaro eta San Estebango ermitatik Oñatira jaitsita.

Aloñako igoerak 15,5 kilometro ditu, eta 2.200 metroko desnibel metatua. Korrikalariek sei postu izango dituzte edariekin eta hiru jakiekin, eta denbora kontrolatzeko hiru gune.

**KIROLA** > ATLETISMOA

# "1.500ekoan urrea irabazi arren, 3.000 metroko probaren denborarekin geratzen naiz"

### Marisol Ramosek bi domina irabazi zituen Zaragozako beteranoen Espainiako txapelketan

**M.B.** > OÑATI

Domina bilduma egiteko zorian dago Marisol Ramos oñatiarra. Azken biak aurreko aste bukaeran lortu zituen Zaragozan jokatutako beteranoendako Espainiako txapelketan; hain zuzen ere, urrezkoa jantzi zuen 1.500 metroko proban eta zilarrezkoa 3.000 metrokoan.

Gustura dago egindako lanarekin: "Ezustea izan zen 1.500 metroko proba irabaztea. Urrea lortu arren, 3.000 metroko proban egindako denborarekin (11:06) geratzen naiz. Helmugan ez nuen sinisten egindako denbora". Oñatiarrak Euskadiko errekorra ondu zuen.

**BETERANOETAN, AZPIMAILAK**

Beteranoen mailan adinaren arabera beste azpimaila batzuk bereizten dituzte. Marisol Ramosek 50 eta 55 urte artekoekin korritzen du. Baina 35 urteko emakumeak ere beteranoak dira. Horregatik, adin askotariko emakumeekin ibiltzen denez, sailkapenari baino gehiago, denborari begiratzen dio. "Emakumeen proba askotan lehena heltzen naiz helmugara. Baina sailkapenak egiteko orduan beterano mailako lehena naiz. Aldiz, sailkapen orokorreko lehena ni baino geroago heldu dena izaten da, adinez beteranoa ez delako", dio Ramosek.

**KROSEAN, BIGARREN**

Pistarekin batera kros probak ere egin ditu. Bigarren tokia da lortu duen emaitza onena; besteak beste, Lasarteko eta Eibarko krosetan.



Marisol Ramos. GOIENKARIA

**ESPAINIAKO TXAPELKETAK**

Martxoaren 7an jokatuko dituzte Coruñan maila askotariko Espainiako kros txapelketak. Aloña Mendiko bost ordezkari egongo dira Galizian urtean zehar lortutako emaitzengatik; hain zuzen ere, Marisol Ramos, Jose Luis Gartzia, Tasio Gomez eta Mikel Fernandez beteranoen mailan eta Sergio Gartzia promesen mailan.

## beteranuak

**EMAITZAK**

**B TALDEA**

| | |
|---|---|
| Nandrolona-Ankarteko | 3-1 |
| Jai Ari-Txarrixak | 1-10 |
| Etxaixat-Kalañatasaray | 1-3 |
| Joxely-Txukos | 5-3 |

**A TALDEA**

| | |
|---|---|
| Dollygans-Gibel Boys | 4-4 |
| Zorro Bero-Lozorromo | 3-1 |

**PARTIDUAK**

**A TALDEA, OTSAILAK 27**

**13:00**
Albok-Indar 85/ **Nandrolona**
**14:30**
Bundeswehr-Gaur Bai/ **Marku**
**18:00**
Lozorromo-Sasquatch/ **Arrilla**
**20:00**
Gibel Boys-Zorro Bero/ **Joxely**

**B TALDEA, OTSAILAK 28**

**14:00**
Kalañatasaray-Ankarteko/ **Mattin**

> **Atsedena:** Dollygans
> **Arduraduna A taldea:** Joxely
> **Arduraduna B taldea:** Indar 85

**SAILKAPENA**

| A TALDEA | P | J |
|---|---|---|
| 1. Zorro Bero | 21 | 7 |
| 2. Doolygans | 16 | 7 |
| 3. The Gibel Boys | 12 | 6 |
| 4. Indar 85 | 7 | 6 |
| 5. Gaur Bai | 6 | 5 |
| 6. Sasquatch | 4 | 5 |
| 7. Bundeswehr | 4 | 5 |
| 8. Lozorromo | 2 | 5 |
| 9. Albok | 1 | 5 |

| B TALDEA | P | J |
|---|---|---|
| 1. Txarrixak | 15 | 7 |
| 2. Joxely | 14 | 8 |
| 3. Nandrolona | 13 | 6 |
| 4. Kalañatasaray | 12 | 6 |
| 5, Xaguxar | 11 | 7 |
| 6. Txuskos | 8 | 6 |
| 7. Etxaixat | 5 | 7 |
| 8. Ankarteko | 4 | 6 |
| 9. Jai Ari | 3 | 7 |

### Atzeratutako partiduak

Datozen asteetan jokatuko dituzte elurragatik atzeratutako hainbat lehia, eguraldiak laguntzen badu. Martxoaren 6an eta 7an B taldeko bederatzigarren jardunaldiko Sasquatch-Bundeswehr eta Gaur Bai-Albok jokatuko dituzte; eta martxoaren 13an edo 14an, A taldeko zortzigarren jardunaldiko Txuskos-Nandrolona.

## oharrak

BIRZIKLAPENA

**> Etxeko olioa batuko dute bihar merkatuko plazan**

Puntu Berde Mugikorreko furgoneta egongo da bihar plazako aparkalekuan 09:00etatik 13:00etara. Besteak beste, etxeko olio erabilia, pilak, fluoreszenteak eta erradiografiak batuko dituzte. Hurrengo bilketak hilaren martxoaren 13an eta 27an egingo dituzte.

ZINEMA

**> 'Tres monos' pelikula emango dute zineklubean**

Nuri Bilge Ceylan zuzendariaren *Tres monos* pelikula emango dute eguenean 20:00etan. Yaviz Bingol, Hatice Aslan eta Ercan Kisel dira protagonistak.

**EKONOMIA** > KOMERTZIOA

# Merkataritza suspertzeko ekintzak martxoan hasita

Aretxartek hil guztietan egingo ditu zozketak, eta tabernariek 'pintxo-poteoa' jarriko dute abian

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Aretxarte merkatarien elkartea isilik egon da azken urtean, baina orain, zuzendaritza batzordea aldatu eta ekimenez beteta dator. Udalak ere antzeko asmoa du: merkataritza suspertu kulturarekin uztartuta. Eta beste hainbat ekimen jarriko ditu abian.

**HILEROKO ZOZKETA**
Aretxarteko presidente izango da azken urteotan ordezkari izan den Alberto Asensio. Eta alboan izango ditu Oihana Berasaluze –presidenteordea–, Meritxell Serrato –diruzaina–, Sonia Morales –idazkaria– eta Alfredo Meabe –bokala–. Hiru helburu zehaztu dituzte haiek: urte osoan egitea ekintzak; bazkide berriak egitea; eta Udalak utzitako lokala egokitzea –Iralabarri plazan.

Antolatuko dituzten ekintzen artean hileroko zozketa dago. Erosketak egiterakoan txartelak beteko dituzte bezeroek eta hilabete bukaeran 100 euroko balioa duen oparia zozketatuko dute. Lehenengo zozketa martxoan izango da eta oparia da Baster-Alde jatetxean bi lagunendako afaria. Beste opari batzuk ere egongo dira: antzerki, pilota partidu eta antzeko ikuskizunetarako sarrerak, aste bukaera landetxe baten, aste osorako bidaia…

**MERKATARITZA ETA KULTURA**
Udalak, berriz, merkataritza eta kultura uztartzeko egitasmoa jarri gura du abian martxoan. Herritarrak saritzea da horren helburua eta horretarako puntuak erabiliko ditu: 35 eta 50 euro arteko erosketak egiterakoan, 2 puntu; 51 eta 75 euro arteko erosketengatik, 3 puntu; eta 75 eurotik gorako erosketengatik, 4 puntu. Puntu horiek pilatu eta Arkupeko ikuskizunetarako sarrerengatik trukatu ahal izango dira –zinema, antzerkia…–. Gainera, hiru hilabetean behin 40 euroko bi bonu zozketatuko dituzte puntuak erabiltzen dituztenen artean.



Aretxarte elkarteko presidente Alberto Asensio. M.A.

Bestalde, merkataritza dinamizatuko duen langile bat hartu gura du. INEMi eskatu dio langile hori eta sei hilabeterako izango da. Asmoa da Aretxarte elkartea, eta merkataritza orokorrean indartzea herrian. Ideia berriak ekarri eta beste herri batzuetako ereduak aztertuko ditu dinamizatzaile horrek.



Artano tabernako ordezkaria. M.A.

## 'Pintxo-poteoa' egingo dute eguaztenetan hainbat tabernatan, martxoaren 3an hasita

Herriko hainbat tabernarik erabaki dute *pintxo-poteoa* abian jartzea Aretxabaletan. Arrasaten eta Bergaran egiten duten legez, Viña Alcorta ardo ondua eskainiko dute mokadutxoarekin batera euro baten truke. Eguaztenetan izango da (18:00-21:00) hori, martxoaren 3an hasita. Hona hemen ekimenean parte hartuko duten tabernak: Artano, Orly, Paulaner, Taberna Berri, Gurea, Josu, Arlutz eta Txakoli.

**ASTE BARRUKO GIROA ANIMATU**
Tabernarien asmoa aste barruko giroa animatzea da, "orain mugimendu txikia egoten da-eta". Arrasaten arrakasta dauka eguenetan egiten dutenak, eta eguaztenetan probatuko dute gurean: "Espero dugun erantzunik jaso ezean eguenera pasatzeko gertu gaude", diote ekimena abian jarritakoek.

**JENDARTEA** > TXURROAK

# Hiru astean egongo da gurean txurro saltzailea

La Exquisita txurro saltzailea Mitarte kalera etorri da Arrasatetik eta harrera ona egin diote

**M.A.** > ARETXABALETA
Martitzena ezkero dago Mitarte kale berrituan La Exquisita txurro saltzailea. Udalak hiru asterako eman dio baimena eta arratsaldeetan zabalduko du egunero (17:00-21:00); domeketan, goizetan ere bai, "gosaltzeko eroateko".

Urteak dira gurean txurro saltzailerik izan ez dela eta ikusmin handia sortu du postuak. Hala, bada, Arrasaten egon ohi den txurro saltzailea pozik dago, "oso harrera ona" egin diote-eta aretxabaletarrek.

**BIZILAGUNAK, HASERRE**
Txurroak eskura daudelako pozik herritar batzuk, baina inguruko etxeetako bizilagunak haserre dabiltza: "Kea eta zartagin usaina jasan behar ditugu eta kalean dauden butano bonbona horiek arriskutsuak izan daitezke", diote. Udalari eman diote haserrearen berri.



La Exquisita txurro saltzailea eguazten arratsaldean. M.A.

**KIROLAK**

## Seigarren postuan dago Arlutz xake taldea

Hiru partida geratzen dira denboraldia bukatzeko eta mailari eusteko asmoa dute

**M.A.** > ARETXABALETA
Denboraldi polita dabil egiten Arlutz xake taldea. Sei partida jokatuta –eta hiru falta bukatzeko–, sailkapeneko seigarren postuan dago 11,5 punturekin, eta, oraindik matematikoki libre daudela ezin esan daitekeen arren, "mailari eusteko itxaropena" dauka laukote aretxabaletarrak.

Ohorezko mailan jokatzen duten taldeek maila handiko jokalariak dituzte, baina Miguel anaiek eta Alcaide osaba-ilobek haiei neurria hartzen jakin dute eta partida guztietan eskuratu dituzte puntuak. Zapatuan Barakaldoren aurka berdindu egin zuten (2-2) eta bihar Donostiara joango dira Easoren aurka jokatzera. Partida zuzenean emango dute Interneten: *http://directo.grosxake.com*.

> AISIALDIA

### Muralak eta marrazkiak egingo dituzte ludotekan

Bihar, hilak 27, marrazkiak eta muralak egingo dituzte Algara ludotekan (11:00-13:00). Ludotekako ohiko jardunetik kanpo antolatutako ekintza da; horregatik, 4 eta 12 urte arteko neska-mutiko guztiak daude gonbidatuta –ez dago bazkide izan beharrik–.

Marrazkiok egiteko tenpera margoak erabiliko dituzte; hori horrela, ludotekako arduradunek eskatu dute umeek kamiseta zaharra eroan dezatela jantzita.

> IRTEERA

### Arrikurtzera joango dira martxoaren 7an Murrukixorekin

Familia giroko irteera egingo du Murrukixo Mendizale Elkarteak martxoaren 7an, domeka: Aitzulora joango dira oinez eta bazkalostean Arrikurtzeko kobak ikusiko dituzte. Bazkaria norberak eroan beharko du eta etxera buelta autobusean egingo dute.

Izena martitzenean (19:00-20:00) eman behar da Murrukixoko lokalean eta ordaindu: bazkideek, 5 euro eta bazkide ez direnek, 7 euro.


Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida
hemen bada giro!
Arlutz taberna
TABERNA ARLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34
Anduaga Jatetxea
Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak
Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54
Dorleta
Loteria eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA
OTZETA JATETXEA
Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67
BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19
HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57
Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68
Gurea
TABERNA
Lotoak eta kinielak
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64
IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

**KULTURA** > MUSIKA

## Bide Ertzeanek lana estreinatuko du martxoan

Gaur, egubakoitza, UEK eta Zain taldeek kontzertua eskainiko dute Inkernun

**M.B.** > ESKORIATZA

Gaur gauean musika nagusituko da ostera ere Inkernun. UEK eta Zain taldeek kontzertua eskainiko dute, 23:00etan. UEK 1999an jaio zen Keu Agirretxearen eskutik. Horrekin batera, baxuan Mikel Arakistainek eta baterian Aitor Aristondok osatzen dute egun taldea. 10 urte bete dituztela ospatzeko, kontzertuetan murgilduta dago hirukotea. Zain talde bizkaitarra, berriz, 2005eko neguan sortu zen. Punk-rock-poparen arteko nahasketa egiten du.

**MARTXOAREN 19AN**

Bestalde, Aitzorrotz kultura elkarteak asteon iragarri du martxoan musika emanaldi bikaina egongo dela herrian. Martxoaren 19an, Bide Ertzean taldea izango da berriro Eskoriatzan, *Leidor sessions* izeneko lana aurkeztera. Unibertsitateko aretoan izango da zuzenekoa, 22:30ean.

Gainera, jakinarazi du dagoeneko salgai daudela Inkernu tabernan kontzertu horretarako sarrerak, 5 eurotan. Horren harira, gomendatu dute ahalik eta azkarren erostea, eserleku kopurua mugatua da-eta.

**KULTURA** > ANTZERKIA

## 'Prest gaude' antzezlana dago gaur unibertsitatean

Lakrikun taldeak lan berria aurkeztuko du, 22:30ean; sarrera debalde da

**M.B.** > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, antzerkia itzuliko da unibertsitatera. Lakrikun antzerki taldeak *Prest gaude* umorezko komedia aurkeztuko du han, 22:30ean. Betiko moduan, sarrera debalde izango da.

*Greban gaude!* antzezlanak izandako harrera ona ikusita, bigarren lana prestatzera animatu ziren Alaitz Olaizola, Gurutze Eizmendi eta Idoia Uranga aktoreak. Ez zuten hutsik egin. Antzezlan berriarekin joan den urteko Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan lehenengo saria irabazi zuten.

**LEHENENGOAREN JARRAIPENA**

*Greban gaude!* antzezlanean, Arantxa, Jaione eta Elena garbitzaileek grebara joateko erabakia hartu zuten, grebaren zergatia hasiera batean inork argi ez bazuen ere. Hirurak elkartu eta solasari ekin zioten. Antzezlaneko hiru protagonistak oso ezberdinak ziren eta, ironia handiz, maitasunaz, familiaz, sexuaz eta ilusioez aritu ziren, umorearekin. Antzezlan berrian, aldiz, hiru garbitzaile horien jarrerek izandako bilakaera jorratu dute.

### oharrak

UMEAK

**> Ludotekan feltro ikastaroa**

Gaur feltroa ezagutu ahal izango dute 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoek Tortolis ludotekan, 17:00etan.

IBARRAUNDI

**> Biodibertsitateari buruzko erakusketa ikus daiteke gaur arte**

Gaur, egubakoitza, arte dago biodibertsitateari buruzko *Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak* izeneko erakusketa ikusteko aukera, Ibarraundin.

KIROLA

**> Asteburuko kirol hitzorduak**

Intxaurtxuetako kiroldegiak norgehiagoka bi hartuko ditu asteburuan: bihar, zapatua, junior mailako nesken saskibaloi partidua dago, 16:00etan. Etxekoek Carnicas San Marcial taldekoak izango dituzte aurrean; eta domekan, gazte mailako areto-futbola dago Eskoriatza eta Montesol artean, 11:00etan.

UMEAK

**> 'Rudy txerri azkarra' filma etzi**

Domekan, *Rudy txerri azkarra* filma ikusi ahalko dute umeek Ibarraundi museoan, 17:30ean, euro baten truke.

GAZTEAK

**> Sagardotegira irteera**

Eingeinkek antolatuta, txotx egingo dute gazteek martxoaren 6an Hernaniko Elorrabi sagardotegian. Interesatuek Aldatz edo Inkernun tabernetan eman behar dute izena.



Urtarrilaren 31n sartu zen mendia Aranburuzabala kaleko etxeetara. M.B.

**GERTAERAK** > LUR-JAUSIA

# Aranburuzabala kaleko magalaren gaineko proiektua gertu dago

Eguazteneko osoko bilkuran, 226.660 euroko partida onartu zuen aho batez udalbatzak; lanen adjudikazio prozesua martxan jartzeko behar da diru hori

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Dagoeneko iritsi da udaletxera Aranburuzabala kaleko etxebizitzen atzealdeko mendiari eusteko proiektua. Eguazten iluntzean egindako osoko bilkuran Pedro Lasagabaster alkateak horren gaineko laburpena egin zien zinegotziei; lanok "ahalik eta azkarren" esleitzeko 226.660,94 euroko partida onartu zuen udalbatzak aho batez.

Bizkaiko Team Ingenieria enpresak egindako proiektuak aurreikusten du Aranburuzabala kaleko 24. eta 30. zenbaki arteko atarien atzealdean lau metroko euste-horma eraikitzea. Gainera, Olaeta auzorantz doan magalean lurrera ainguratuta joango den sare metalikoa jartzea ere proposatzen du esandako egitasmoak.

**HILABETE ETA ERDI**

Horren harira, Lasagabasterrek jakinarazi zuen proiektuaren aurrekontua 226.660,94 euro dela eta lan horiek egin ahal izateko hilabete eta erdi beharko dela, gutxi gorabehera.

Esan beharra dago hasiera bateko gai-zerrendan ez zegoela aurreikusita gai hori joan den eguazteneko ohiko osoko bilkuran lantzea. Alkatearen esanetan: "Gaur [eguaztena] bertan jaso dugu proiektua, eta, gaiak presa handia duenez, osoko bilkuran urgentziazko proposamena sartzea erabaki dugu. Horren gaineko lizitazio prozesua ahalik eta azkarren zabal dezagun partida bat onartu behar dugu". Inork ez zuen eragozpenik jarri.

Azken horren harira, udal idazkari Edurne Iturbek udalbatzako kideei azaldu zien lizitazio deialdiaren tramiteak gutxienez 20 egun iraungo duela.

**ALTERNATIBA "SEGURUA"**

Astelehenean egingo duten udal batzordean proiektua sakon lantzeko aukera izango dutela gogorarazi bazuen ere, Lasagabasterrek gaineratu zuen Team Ingenieria lur-jausiek eragindako kalteak konpontzen aditua dela, eta, bere ustez, Aranburuzabalarako aukeratu duen alternatiba "segurua" dela.

Azkenik, gogorarazi nahi izan zuen lur-jausi hori dela-eta herriko zortzi familia euren etxetik kanpo bizi direla gaur egun: "Familia horiek ezin izango dira euren etxeetara sartu obrak amaitu arte. Hori dela-eta, ahalik eta ondoen eta azkarren egin behar dugu dena. Maiatzerako dena amaituta egotea espero dugu".

DATUA

**4**

**METRO**

Team Ingenieria enpresak egindako proiektuan, besteak beste, aurreikusi dute Aranburuzabala kaleko 24. eta 30. zenbaki arteko atarien atzealdean lau metroko euste-horma eraikitzea.

**PRESOEN SENIDEAK**

Bestalde, osoko bilkura hasieran, alkateak jakinarazi zuen Espainiako Estatuko Abokatuak helegitea aurkeztu duela, Eskoriatzako Udalak joan den urtean espetxean preso daudenen senideendako banakako garraioaren harira eskainitako dirulaguntzen kontra. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo kartzelaraturik dauden pertsonen senideei haiek bisitatzeko bidaia gastuak ordaintzen laguntzea da laguntza horren helburua. Lasagabasterrek esan zuen udal aholkularia gaia aztertzen ari dela.

**KULTURA** > ALFONSO UGARTE

# Musikaren laguntzarekin aurkeztuko dute musikaria

Aurkezpena Torresoroan izango da, 12:00etan; txistulariek eta gaitariek lagunduko dute



Ainhoa Kaiero, Ugarteri buruzko liburuarekin. AINHOA KAIERO

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA
*Alfonso Ugarte (1879-1937) eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian* liburua domekan aurkeztuko dute, Torresoroan, 12:00etan. Ekitaldi jendetsua izatea espero dute; izan ere, aurkezpenean egongo dira liburua egiten ibili direnak, eta baita Ugarteren familiartekoak ere. Hain zuzen, Itziar Larrinaga, Eusko Ikaskuntzako Musika Saileko lehendakaria; Ainhoa Kaiero, liburuaren egilea; Patxi Olabarria, Antzuolako Udaleko Kultura zinegotzia; eta Jokin Nabaskues, Ugarteren biloba.

Musika izango da gaia, baina, gainera, musika entzuteko aukera ere egongo da. Antzuolako Txistulari taldeak eta Ondarreko gaitariek Alfonso Ugartek txisturako konposatutako bi pieza joko dituzte Torresoroan: Zortzikoa, *A la notable banda familiar de txistularis, los Lascurain de Vergara* eta *Ordoiztik Etxartera* biribilketa.

Aurkezpenean bertan liburua erosteko aukera egongo da.

**ANTZUOLATIK LIZARRARA**
Alfonso Ugarte 1879an jaio zen Antzuolan, baina gaztetan joan zen Lizarrara bizi izatera, eta han egin zuen musika ibilbidea. "Musika zaletasuna familiatik zetorkion; aita abeslaria zuen eta osaba Zumarragako Jasokundeko Ama Birjinaren parrokiako organista zen. Osabarekin hasi zituen musika ikasketak; gero, Donostiako Arte Ederretako Elkarteko Musika Akademian amaitu zituen ikasketak", dio Ainhoa Kaiero musikologoak.

ESANAK

**"Musika zaletasuna familiatik zetorkion Ugarteri"**
**Ainhoa Kaiero** > Musikologoa

**INFORMAZIOA, HIRU ARTXIBOTAN**
Ainhoa Kaierok (Bilbo, 1977) Salamancan egin zituen Musikologia ikasketak, eta Bartzelonan doktoretza. 2007an lortu zuen Ugarteri buruzko lana egiteko beka. "Eresbileko, Lizarrako eta Donostiako artxiboetan bilatu dut informazioa", dio Kaierok.

> FUTBOLA

## Beharrezkoak dituzten hiru puntuen bila Getariara

Antzuolako erregional preferente mailako futbol taldeak Getarian jokatuko du bihar, zapatua, 17:00etan.

Larrea eta Unanuek zuzentzen duten taldeak beharrezkoak ditu hiru puntuak; izan ere, Antzuolako taldea beheko postuei begira jarrita dago. Sailkapenean 11. postuan daude antzuolarrak, 22 punturekin; Getaria, ostera, bosgarren tokian dago 32 punturekin.

> INFORMATIKA

## KZguneko martxoko ikastaroak eta ordutegiak

Martxoaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean egongo da dinamizatzailea KZgunean. Ordutegia izango da 16:00etatik 20:00etara. KZgunean ONA txartela eskura daiteke, baina horretarako beharrezkoa da nortasun agiria eta osasun txartela eguneratuta izatea.

Ikastaroei dagokienez, sare sozial eta informatika alorreko hainbat ikastaro emango dituzte. Ikastaro guztiak bi ordukoak izango dira.

**KULTURA** > UMEAK

# Lur Korta ipuin kontalariaren ikuskizuna Torresoroan

Ikuskizuna bihar izango da, zapatua, 18:00etan; 4-10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago



Lur Korta, liburutegi zaharrean. GOIENKARIA

**A.E.** > ANTZUOLA
Haurrei zuzendutako ekitaldia izango da bihar Torresoroan. 18:00etan hasita, 4 eta 10 urte bitarteko haurrentzat ipuinak kontatuko ditu Lur Korta ipuin kontalariak.

Ez da lehenengo aldia Kortak Antzuolan parte hartzen duena; aurretik ere egon izan da. Antzuolako haurrentzat ezaguna dela esan daiteke, hortaz.

**LUR KORTA**
Ipuin kontalari oiartzuarrak esperientzia dauka umeekin; izan ere, hainbat urte daroa ipuinak kontatzen. Ipuin ezagunak eta ez hain ezagunak kontatzen ditu.

Antzerki munduko ikasketak egin ditu Kortak. Gaur egun hainbat ikuskizun egiten ditu; haurrei zuzendutakoak, baina baita nerabeei zuzendutakoak ere. Ipuinak, hizkiak eta umeak nahasten ditu Kortak saioetan. Bihar da hitzordua, 18:00etan, Torresoroan.

oharrak

ERAKUSKETA
**> Manolo Montielek txakurrei ateratako argazkiak Olaranen**
Manolo Montiel elgetarraren argazki erakusketa Olaran etxean. Erakusketa bihar eta etzi egongo da zabalik, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

ERAKUSKETA
**> Jone Larrañagaren akuarelak eta olio pinturak Olaranen ikusgai hilaren 6an eta 7an**
Jone Larrañaga Gorritxok akuarela eta olio pinturak erakutsiko ditu Olaran etxean martxoaren 6an, zapatua, eta martxoaren 7an, domeka. 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

((112))
SOS DEIAK

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**UDALA** > FINANTZAK

# Udalbatzak aho batez onartutako aurrekontua izango dugu aurten

Hartutako erabaki batzuk: alkatearen soldata kentzea eta udal zinegotziena %60 murriztea

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

"Neurtua, eraginkorra eta errealista", horrela deskribatu du Oxel Erostarbe alkateak 2010erako aurrekontua. Gerrikoa estutzea tokatzen da, eta Udalak inbertsioen kapituluan eta pertsonal gastuetan egingo du ahalegin hori. Alkatearen soldata kendu egin dute, zinegotzietan 7.446 euro gutxiago gastatuko dira, eta inbertsioak kanpoko erakundeek emandako diruarekin bideratuko dira. "Gastu arrunta estutu arren, ez dizkiegu elkarteei dirulaguntzak murriztu, eta zerbitzuetan egindako apustuak mantenduko ditugu. Aurrekontua estutzea lortu dugu herritarrei gehien eragiten dieten gauzetan murrizketak egiteke", esan du Erostarbek.

**OPOSIZIOAREN BABESAREKIN**

Patxi Basauriren taldeak uste du krisi garaiotan oposizio arduratsua egiteko unea dela. Babestu egin dute aurrekontua, baina diru-partidekin zorrotz jokatzeko baldintzarekin. "Gastuari eustea ezinbestekoa da", azaldu du Basaurik. "Eta diru-partidaren bat igo behar bada, aurretik kontsulta egiteko eskatzen dugu".

**PROIEKTU GARRANTZITSUENAK**

Urte honetarako Udalak aurreikusten dituen proiektu potoloenak dira Espainiako gerraren inguruko ibilbide tematikoa amaitzea, sendagilearen kontsultan zein Ozkarbi elkartean irisgarritasun lanak egitea eta Zapateroren dirulaguntzarekin Herri Eskolako fatxada konpontzea, udaletxeko leihoak aldatzea eta herriko hainbat tokitan baranda berriak ipintzea.

DATUA

**1,77**

**MILIOI EURO**

Udalak 1.770.787,24 euroko aurrekontua onartu du 2010erako; aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 771.237,50 euro gutxiago.



Astean bitan elkartzen dira entrenatzeko; eguaztenean lau lagun batu ziren. L.Z.

**JENDARTEA** > EMAKUMEA

## Martxoaren 8ko ekitaldietan parte hartzeko dei egin dute

**L.Z.** > ELGETA

Elgetako zortzi bat emakume martxoaren 6an Arrasaten egingo den Takarraran lasterketan parte hartzera animatu dira, eta dei egin diete herriko gainerako emakumeei antzerako ekimenetan parte hartzera.

**ELGETAN, MARTXOAREN 7AN**

Elgetan biharamunean, domekan, egingo dira emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapen ekitaldiak. Besteak beste, Korrika moduko lasterketa bat prestatzen ari dira. Lekukoa eramango dute herriko hainbat eragilek.

**ONGIZATEA** > NERABEZAROA

## Bi adituk gaztetxoen ekintzen ondorioez ohartarazi dituzte gurasoak

Udalak antolatutako hitzaldian hainbat irizpide jaso zituzten dozena bat gurasok

**L.Z.** > ELGETA

Arrats elkarteak, besteak beste, jarrera arazoak dituzten gazteekin egiten du lan. Elkarteko bi kide Elgetan izan dira aste-on eta seme-alaba nerabeak dituzten dozena bat gurasorekin elkartu dira. Gertutik ezagutzen duten errealitatearen berri eman dute, eta seme-alaben jarrera ez-egokiei nola aurre egin azaltzen saiatu ziren. Aspalditik antolatutako hitzaldia, ez da gaizki etorri azkenaldian herrian gertatutako txikizioak kontuan hartuta.

**MUGAK, EZINBESTEKOAK**

"Gazteek jakin behar dute gainditu ezin dituzten mugak daudela, eta jarrera ez-egokiek ondorioak dituztela", esan zuen Arrats elkarteko Jose Mari Larrañagak. "Permisiboegia den gizarte batean bizi dira". Gazte problematiko askorekin lan egiten dutela adierazi zuen. Gurasoak lasaitze aldera, esan zuen horrelako kasuak ez direla nagusi gure gizartean, baina beti alertan egotea gomendatu zien. "Ez da prebentzioa askorik lantzen", azaldu zuen, "eta garrantzitsua da". Herritarren erantzukizuna ere azpimarratu zuen. "Gauza asko ikusten ditugu, baina gehienetan nahiago dugu ezikusiarena egin".

**NEURRI HEZITZAILEAK**

Asko omen dira txikikeriengatik epaitegietara iristen diren gazteak. "Erantzule ekonomikoak gurasoak dira, eta gazteei neurri hezitzaileak ezartzen zaizkie: gizarte lanak, tratamendu medikoak, zaintzapeko askatasun erregimena, barneratzeak zentro berezietan...".

bere ustez



Eduardo Zubiaurre

## Lanpostuak nola sortu

Demagun gure lanbidea zine pelikulak egitea dela; aktore-aktoresa, zuzendari, teknikari, gidoilari... Jakina, ez daude bi pelikula berdinik: amodiozkoak, dramak, belikoak, beldurrezkoak... Are gehiago, gidoiaren arabera gaitasun, espezializazio, ezaugarri edo itxura ezberdinak dituzten lankideak beharko dira pelikula bakoitza egiteko.

Jarduera ekonomiko eta profesional horretan, egun gure industria metalurgikoan dugun lan araudia ezarriko bagenu, pelikulak egitea oso zaila bihurtuko litzake. Nola egin pelikula beliko bat aurretik amodiozkoak egin dituztenek, amodiozkoak egiten jarraitu nahi badute? Nork kontratatuko ditu profesional berriak, handik denbora batera, oso korapilatsua eta garestia gertatzen bazaio lan taldea egokitzea?

**"Bide bakarra (...) etengabeko heziketa eta kontratazioak erraztea da"**

Gero eta aldakorragoa den mundu batean, ezin dugu pentsatu aurreko mende hasieran sortutako lan araudiak eta pentsamoldeak erantzun egokiak emango dizkigutenik. Norbanakoei lan segurtasuna eskaini diezaieketen bide bakarra etengabeko heziketa eta kontratazioak erraztea da. Danimarka, Holanda eta Austriako esperientziak ikusi besterik ez dago.

oharrak

KONTZERTUA

**> Kraussk eta Brankan taldeak gaur, barikua, gaztetxean**

Mutrikuko boskote metaleroak eta Berriz-Markinako hirukoteak 23:00etan hasiko dute emanaldia. Debalde da.

DANTZA

**> 'Herrixa dantzan' ekimeneko bigarren saio irekia domekan**

Aste bukaeran da otsaileko azken domeka eta Patxi Monterok dantza saio ireki berria egingo du Espaloia Kafe Antzokian, 19:00etan hasita.

OSPAKIZUNA

**> 1971ko kintoak apirilaren 10ean elkartuko dira**

Ospakizunean parte hartu nahi duten kintoek Espaloia Kafe Antzokian eman behar dute izena apirilaren 3a baino lehen. Antolatzaileek eskatzen dute bost euro aurreratzeko.

frontenis txapelketa

## Sailkapenaren lehen postuetan izen ezagunak

Iaz txapela jantzi zutenak aurten ere, oraingoz, sailkapenaren lehenengo postuetan: Eñaut Arantzeta, Haritz Gallastegi eta Nagore Ojanguren, hain zuzen. Lehia ez da ordea oraindik bukatu. Asteburuan beste bost norgehiagoka jokatuko dira.

**SAILKAPENAK**

| Gizonezkoen txapelketa | J | I | G | T.A. | T.K. |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi | 7 | 7 | 0 | 175 | 111 |
| 2. Adrian Gorostiza-Asier Osoro | 4 | 4 | 2 | 140 | 103 |
| 3. Asier Morales-Asier Untzetabarrenetxea | 6 | 4 | 2 | 137 | 106 |
| 4. Oskar Sarasua-Xanti Dosuna | 6 | 4 | 2 | 132 | 129 |
| 5. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga | 5 | 4 | 1 | 116 | 71 |
| 6. Eneko Maguregi-Andoni Elortza | 6 | 3 | 3 | 125 | 124 |
| 7. Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo | 7 | 2 | 5 | 155 | 147 |
| 8. Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren | 6 | 2 | 4 | 107 | 137 |
| 9. Iban Retolaza-Xabier Ubera | 6 | 1 | 5 | 79 | 157 |
| 10. Julen Barrutia-Mikel Mandaluniz | 7 | 0 | 7 | 91 | 175 |

| Emakumezkoen txapelketa | J | I | G | T.A. | T.K. |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Nagore Ojanguren-Leire Urgoitia | 3 | 3 | 0 | 75 | 145 |
| 2. Nagore Morales-Beatriz Zabala | 3 | 1 | 2 | 63 | 63 |
| 3. Susana Jimenez-Olaia Jimenez | 2 | 0 | 2 | 20 | 50 |



Argazkian, eguazteneko plenoko irudi bat. E.M.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Aramaio-Arrasate errepide moztua izan zuten aztergai eguazteneko udalbatzarrean

## Datorren astean proiektu berria zehaztasun handiagoz jasoko dutela esan zuen alkateak

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Urtarrilaren 31ra arte Aramaio eta Arrasate lotzen zuen A-2620 errepidearen mozketa izan zen osoko bilkurako gai izarra eguaztenean. Asier Agirre alkateak jakitera eman zuenez, ia egunero izaten ari dira bilerak arazoa konpontzeko Adif-eko eta Diputazioko arduradunekin. Adif-ek bost proposamen bidali ditu Arabako Diputaziora eta, alkatearen arabera, aukera gehien duena da Suña-Bolueta inguruan bi zubi aurreikusten dituen errepide berria. Edozein modutan, datorren astean proiektuaren berri zehaztasun handiagoz jasoko dutela esan zuen alkateak.

Angel Diaz de Zerio EAJko zinegotziak Diputazioari leporatu zion gertatutakoa ez aurreikustea. Errepidea berriro zabaltzea eskatu zuen, haren ustez bide alternatiboa bezain segurua delako moztutako errepidea. AHTko enpresei errepidea moztuta egotea komeni zaiela gaineratu zuen. Errepidea zabaltzekotan, Jaurlaritza ez litzatekeela erantzule izango erantzun zion alkateak. Andres Osinaga EAko zinegotziaren ustez "ikaragarrizko txapuza" da gertatutakoa, aurreikusi zitekeelako eta 2008ko uztailean lanak baimen barik abian jarri zituztelako. Bileretan aktak jasotzea eskatu zuen Osinagak.

**IRTEERA DOMEKAN**

*Zabaldu bidea* lelopean, ibilaldia iragarri dute domekarako. 10:00etan elkartuko dira plazan Cuatrovientos baserritik Untzilara eta handik Bolinburu baserrira joateko.

> ERRETIRATUAK

### Alaiak erretiratuen elkarteak Galiziara eta Portugalera bidaia iragarri du, apirilean

Alaiak erretiratuen elkarteak antolatuta, apirilaren 19tik 25era Galiziara eta Portugalera bidaia egingo dute. Autobusean aterako dira Aramaiotik, zazpi egun eta sei gau igaroko dituzte kanpoan, 2 eta 3 izarretako hoteletan. Besteak beste, Santiago, A Coruña, Finisterre, Braga eta Oporto bisitatuko dituzte, turismo gidari baten eskutik. Lagun bakoitzeko prezioa 249 eurokoa da. Izenematea martxoaren 26ra arte izango da zabalik, erretiratuen egoitzan.

> LITERATURA

### Ipuin lehiaketa deitu du Txirritola elkarteak; lanak martxoaren 26ra arte jasoko dituzte

Txirritola euskara elkarteak ipuin lehiaketa deitu du. Aramaion bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte eta adinaren arabera hainbat talde bereiztuko dituzte. Lanak entregatzeko epea martxoaren 26ra arte dago zabalik eta sari banaketa, berriz, apirilaren 23an egingo dute. Argibide gehiago Txirritola euskara elkartean, 943 79 94 21 telefono zenbakian.

> AISIALDIA

### Gaztetxoei zuzendutako bitxigintza tailerra dago bihar, zapatua, Txatxilipurdiren eskutik

Bihar, zapatua, gaztetxoei zuzendutako bitxigintxa tailerra izango da Txatxilipurdiko begiraleekin. Hitzordua da gazteen lokalean, 16:30ean. 12 urtetik gorako neska-mutilei zuzendutakoa da ekimena eta ez dago aurrez izena eman beharrik.

Hurrengo hitzorduak martxoaren 20an (hankapalo) eta apirilaren 24an (hanka paloak) izango dira, ordu berean.

> SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

### 'Kontsumitu arduraz' helduentzako tailerra hurrengo egubakoitzean kultura etxean

Aramaioko Udalak abian jarritako sentsibilizazio kanpainaren barruan, *Kontsumitu arduraz* helduentzako tailerra egingo dute hurrengo egubakoitzean, martxoaren 5ean, 18:00etan, kultura etxean. Ura, gasa eta argindarra arduraz kontsumitzeko aholkuak emango dituzte. Martxoaren 12rako, berriz, *Xaboiak egiteko tailerra* iragarri dute, ordu eta toki berean.

**OSPAKIZUNA** > EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

# Elikaduraren gaineko ikastaroa dute emakumeek

## Martxoaren 5ean da ikastaroa eta zapatuan urteroko bazkaria; izenemate epea zabalik dago

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Sorginak emakume elkarteak gertu dauka Emakumeen Nazioarteko Eguneko egitaraua. Elikaduraren gaineko ikastaroa izango dute martxoaren 5ean, egubakoitza, Garro jauregian (18:30) eta urtero egiten duten bazkaria zapatuan, Gure Ametsan.

**MENU OSASUNTSUAK**

Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarra izango dute lagun elikaduraren gainean jarduteko –bi orduko saioa– eta hainbat kontu landuko dituzte: elikatzeko ohitura desegokiak, litxarreria gehiegikeriak aztertu eta beste aukera batzuk ezagutarazi; eguneroko jatorduak, gosarien garrantzia eta afalorduaren arintasuna; eta elkartutakoen artean menu osasuntsua gertatuko dute sasoiko produktuak eta horien jatorria kontuan hartuta.

**GURE AMETSAN BAZKARIA**

Bestalde, urtero legez, bazkaltzera joango dira Sorginak elkarteko kideak Martxoaren 8a ospatzeko. Zapatuan, hilak 6, izango da bazkari hori, Gure Ametsa jatetxean. Bazkalostean, gainera, musika izango dute lagun dantzan egiteko eta isuski banaketa egingo dute *sorginen* artean.

Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago; interesa duten emakumeek Labidea dendara jo dezatela. Azken eguna domeka da, otsailak 28.



Lanbide Eskolako hiru kide lanean eguaztenean Udalaren lokalean. M.A.

**LANAK** > EGOKITZAPENA

# Pilotaleku azpiko lokala berritzen dabiltza asteotan

## Lanbide Eskolako lau langile dabiltza urtarrilaz gero eta datorren astean bukatuko dituzte lanok

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Debagoieneko Mankomunitateak langabeendako antolatutako ikastaroko lau kide –bi emakume eta bi gizonezko– dabiltza Gatzagan Udalaren lokal bat egokitzen. Urtarril bukaeran hasi zituzten lanok –otsailean bi aste etorri barik egon dira– eta datorren astean bukatzeko asmoa daukate.

**BESTE ITXURA BAT**

Pilotaleku azpian dago berritzen dabiltzan lokala, hormigoizko hormak zituen sartu zirenean eta orain beste itxura bat dauka: hormak zarpeatu edo berdindu egin dizkiote; barruko horma egin eta leihoa kanpora atera; lurra txukundu; eta argindarra jarri (beste talde batek). Lurrean harlauza jartzea geratzen zaie eta pintura eroanez gero margotu egingo dituzte hormak. Materiala Udalak jarri du, eta langileak, Mankomunitateak.

Lan giro polita daukate eta oso gustura dago laukotea Gatzagan lanean: "Tailerrean barruko horma bat egiten ikasi eta hona ekarri gintuzten. Bakar-bakarrik egin dugu guztia, eta ez dago txarto, ezta?", diote Bergara, Arrasate eta Oñatiko langileek.

Udalak oraindik ez du erabaki zertarako erabiliko duen lokal hori behin egokituta. Herritarren hainbat proposamen jaso dituela jakinarazi digu alkateak, eta aztertzen dabiltzala.



Aurtengo edizioko –dagoeneko hiru egin dituzte– txapelketan, palistak lehian. WWW.BLOGAK.COM/EMAKUMEAPILOTARI

**PALA** > FRONTOI MOTZEKO EMAKUMEEN GOMAZKO KUTXA SARIA

# Bergaran jokatuko dituzte finalerako txartelak etzi

## "Munduko palista onenak" Bergarako frontoian

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Domekan elite mailako emakumezkoen pala partiduak jokatuko dituzte Bergaran, Kutsa Sari Nagusiko finalerdiak, eta txapelketan antolatzaile lanetan dabilen Maider Mendizabalek ez du zalantzarik egin esaterakoan orain momentuan munduko palista onenak batuko direla domekan Bergaran: "Hori diot Iparraldeko eta Hegoaldeko pilotariak Munduko txapelketara Espainiako eta Frantziako selekzioekin joaten direnean finaletan izaten direlako beti".

Pala motzeko Kutxa Sari Nagusian aurretik hiru jardunaldi jokatu dituzte, Alegian, Zumarragan eta Urretxun. Bergaran sailkatzen direnek, berriz, Tolosan –martxoaren 7an– jokatuko duten finala. Domekan, lehenengo partiduan (11:00) Elgezabal-Ruiz de Larramendi eta Etxeleku-Arotzena izango dira zein baino zein gehiago, eta bigarren partiduan, Muneta-Serre eta Espinar-Bordagarai bikoteek neurtuko dituzte indarrak: "Sekulako maila duten neskak dira, eta ikustekoa da atzelariek zelako zartakoak jotzen dituzten. Emakume handiak izan barik, indar galanta dute". Jaialdia ikusteko ez da ezer ordaindu beharko.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Huesca-Reala
Zapatua. 18:00. Huesca.

**Hirugarren maila**
Aretxabaleta-Laudio
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Gazteen liga nazionala**
Cultural Dura.-Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. Tabira.

**Gazteen euskal liga**
Bergara-Lengokoak
Zapatua. 18:00. Ipintza.

**Ohorezko erregiona maila**
Aloña Mendi-Euskalduna
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Bergara-Trintxerpe
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Mondra-Hernani
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Erregional preferentea**
Getariako-Antzuola
Zapatua. 17:00. Orio.

Zestoa-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Iraeta.

**Lehen erregionala, igoera**
Bergara-Gazteak
Domeka. 18:00. Ipintza.

Mondra B-STO.Tomas Lizeoa
Zapatua. 18:30. Mojategi.

**Lehen erregionala, kopa**
Ikasberri-UDA Arizmendi
Zapatua. 16:30. Garmendipe.

**Gazteen ohorezko maila**
Mondra-Union Txiki
Domeka. 16:00. Mojategi.

Aloña Mendi-Hondarribia
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**Gazteen lehen maila, igoe.**
Aretx.Arizmendi B-Amaikak
Zapatua. 16:00. Ibarra.

**Gazteak, kopa**
Soraluze-Arizmendi
Domeka. 11:00. Estala

Urola-Bergara
Zapatua. 18:00. Argixao.

**Kadeteen ohorezko maila**
Aretx.Arizmendi-Zumaiako
Zapatua. 11:00. Ibarra.

Bergara-Ordizia
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Emakumezkoen igoera fa.**
Mondra-Arizmendi
Zapatua. 14:00. Mojategi.

**Emakumezkoen kopa.**
Aloña Mendi-Urola
Domeka. 12:30. Azkoagain.

### ARETO FUTBOLA

**Euskal liga**
Lagun Onak-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Billabona.

**Gipuzkoako bigarren mai.**
UDA Orly-SD Euskalduna
Gaur. 20:45. Almen.

### SASKIBALOIA

**Lehen autonomikoa**
Aloña Mendi-Getxo ST
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**Gazteak, Euskal liga**
MU-Santurtzi
Domeka. 12:00. Iturripe.

**Senior gizonezkoak**
Soraluce BKE-Teklan Laser
Domeka. 17:00. Labegaraiet.

Errotaundi-Aloña Mendi
Domeka. 17:00. Azpeitia.

Allerru-MU
Gaur. 20:00. Lezo.

Soraluce BKE B-DKS
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Senior emakumezkoak**
Krafft Atletico-Eskoriatza KE
Zapatua. 18:00. Donostia.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko txapelketa**
Ford Mugarri-CD Egia
Zapatua. 16:30. Iturripe.

**Euskadiko senior emak.**
Verkol Aloña-Aiala Ostala.
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

**Euskadiko kadet, gizon.**
Bidasoa Irun-Berezao Aloña
Zapatua. 16:00. Irun.

**Lehen territorial maila**
Soraluce BKE-Elgoibar
Domeka. 12:45. Labegaraie.

Izarraitz Aloña-Hegialde A.
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Bigarren territoriala**
Arrasate-Groseko Cocinas
Zapatua. 18:15. Iturripe.

### PALA

**Frontoi motzeko emakumezkoen Kutxa Sari nagusia**
Domeka. 11:00etan hasita.
Bergarako pilotalekuan.
Doan da.

### GIMNASIA ERRITMI.

**Gipuzkoako eskola arteko txapelketa**
Zapatua. Goiz eta arratsalde,
Labegaraietan.

### IGERIKETA

**Gipuzkoako Txapelketa**
Zapatua eta domeka,
Bergaran, Agorrosinen.


Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
*altu-lasa@conet.es*

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
*zenbaki@zenbaki.es*

### AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
*andrama@arrakis.es*

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
*asegi@asegim.com*

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es*

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
*uribesalgo@telefonica.net*

### PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

# Denek etxean, eta puntu baliotsuak daude jokoan

## Santurtzin bizirik daudela erakutsita, UDAk aurtengo 'finaletako' bat izango du domekan

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Hirugarren mailako liga txapelketa amaitzeko hamaika jardunaldi geratzen dira, eta dagoeneko *finalen* gainean berbetan hastea larregikoa izan daiteke. Baina ez, domekakoa Aretxabaletak datozen asteotan izango duen *finaletako* bat izango da, jaitsiera postuak saihesteko borrokan lehiakide zuzen Laudio izango dute-eta Gordobilen mutilek aurrean; Aretxabaletak baino puntu bat gutxiago duen taldea, hain zuzen. Santurtzin bizirik eta gerrarako gogoz daudela erakutsita, domekan susperraldia errematatzea geratzen da (16:30).

**ERDIALDEAN DAUDENAK, LEHIAN**

Ohorezko erregional mailako ordezkari Aloñak (30), Bergarak (29) eta Mondrak (26) ere etxean jokatuko dute asteburuan. Sailkapenaren erdi inguruan daude hiru talde horiek, eta asteburuan apur bat gorago edo apur beherago baina inguruan dabiltzan taldeak izango dituzte aurrean.

Lasaitasun postuetan da Aloña Mendi, eta jaitsiera postuetatik alde egin nahi duen Euskalduna (23) izango du aurrean. Bergarak eta Mondrak, berriz, orain arte euren puntu kopuru bera batu duten Trintxerperen (29) eta Hernaniren (26) kontra jokatuko dute bihar; Mojategin eta Agorrosinen hiru puntu baino gehiago egongo dira jokoan.



Kerman eta Raul, taldekideak besarkatzeko unean, Imanolek Amurrioren kontra egindako gola ospatzeko. GOIENKARIA



Alzola, Agorrosinen. GOIENKARIA



Jon Azpeitia, Mojategin. GOIENKARIA



Olalde, Azkoagainen. GOIENKARIA

> ESKUBALOIA

### Egia harrapatzeko aukera izango du Ford Mugarri Arrasatek

Euskadiko txapelketan bigarren eta hirugarren dauden Egia eta Ford Mugarri Arrasate izango dira zein baino zein gehiago bihar Iturripen (16:30). Bi talde horien artean bi puntuko aldea baino ez dago; gainera, garrantzitsua da atzetik datorren Askartzarengandik urruntzea.

> ERRUGBIA

### Arrasateko eta Durangoko neskak, La Unicaren kontra

Arrasateko eta Durangoko neskekin osatutako taldeak La Unicaren kontra neurtuko ditu indarrak bihar, Durangon (16:00). Seniorrek berriz, amaitu dute lehen fasea eta atsedenaldia dute.

Bestalde, Andoni Ariño ARTko kadetea Euskadiko selekzioarekin izango da.

> TXIRRINDULARITZA

### Dorletako Amak taldearen aurkezpena egingo du bihar

Dorletako Ama txirrindularitza taldeak aurtengo denboraldiko taldeak aurkeztuko ditu bihar, zapatua, Gatzagan (11:00). Bestalde, amateur mailako ziklistek asteburuan hasiko dute denboraldia, Soraluze sarian. Infantilek Zumaian eta gazteek Ibaetan korrituko dute.

HITZALDIA

Ezkerreko alternatiba abertzalea sendotzen.

Hizlariak: Aintzane Ezenarro eta Mikel Basabe.
Eguna: Martxoaren 2an, martitzena.
Lekua: Bergarako udal liburutegian.
Ordua: 19:00etan.



aralar


Abantailaz
betetako kluba!
Goiena
kluba
300 euro opari.
Nahi?
http://zozketa.goienakluba.com
web orrian sartu, eta bete hutsuneak,
bazkide txarteleko zenbakia erabilita.
Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 28a.
GOIENA KLUBA | Telefonoa: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com



**> BIKOTEA**
Pettik eta Barrence Whitfield-ek diskoa aurkeztuko dute Amaian **> 32**




**> JUAN SANGRE**
"Aurreko lanaren jarraipena da 'Frenetikodrome'", esan digu **> 33**

**> JOKIN MANTXA**
Saskibaloia eta tronpeta ditu oso gustuko 18 urteko bergararrak; bandan jotzen du eta Huhezin ikasten dabil **> 35**



# 'Barneko lurraldea', Nagore Igartzaren argazkiak Aroztegin

**OSATU GABE**
Ikusleen konplizitatea bilatzen du argazkilari antzuolarrak

**AROZTEGIN**
"Paisaiak modu irrealagoan aurkezten saiatu naiz", dio

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Susan Sontag idazlearen aipu bat aukeratu du Nagore Igartzak (Antzuola, 1979) gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan zabalduko duen erakusketa aurkezteko: "Argazki irudiaren jakinduria honako hau da: hauxe duzu azala. Orain, pentsatu, sentitu, barneratu... zer dagoen haratago. Bere itxura hau bada, nolakoa behar du errealitateak?".

Izan ere, *Barneko lurraldea* izenburuko argazki erakusketarekin, ikusleen irudimena, dedukzioa eta fantasia piztea da Nagore Igartzaren helburua. Haren hitzetan: "Ez zait gustatzen dena eginda ematea. Nahiago dut zerbait sujeritu eta, hortik abiatuta, jendeak ikusitakoaren interpretazioa egin dezala. Aroztegin jarritako argazkiek ez dute mundua definitu nahi; abstrakzio eta figurazio artean kokatzen saiatzen dira, ikusgarri eta ikusezina denaren artean hain zuzen".



Zerbait sujeritu eta, hortik abiatuta, ikusleek interpretazioa egitea bilatzen du Nagore Igartza argazkilari antzuolarrak. NAGORE IGARTZA

**PAISAIA IRREALAK**

Antzuolarrak 18 argazki zintzilikatu ditu Aroztegin: Ebroren deltan, Birmanian eta Frantzian ateratakoak. Orain dela bi urte egindako argazkiak dira, kolore gutxikoak; monokromatikoak, nolabait. "Lainoek eta euriak ere badute protagonismoa eta esan daiteke paisaia horiek irrealago aurkezten saiatu naizela; neurri batean, errealitatea ezkutatzen. Hala ere, erakusketaren izenburua espliziteugia atera zait beharbada...", dio Igartzak. Joan den urtean Bartzelonan eta Lleidan, Emergent 09 jaialdian, erakutsi zuen *Barneko lurraldea* erakusketa.



Nagore Igartza.

Aroztegiko erakusketa martxoaren 21era arte izango da zabalik eta inaugurazioa gaur, egubakoitza, egingo dute, 19:00etan. Ez da Igartzak Bergaran egiten duen lehenbiziko erakusketa. Orain dela lau urte *Gelak* erakusketa egin zuen Nahikari tabernan. Eraitsitako etxebizitzetan agerian geratzen ziren gelak eta bestelako espazioak aurkeztu zituen orduan. Orain, ilusionatuta dago Aroztegiko erakusketarekin: "Erakustoki oso polita da, argitsua. Luxua da hemen erakusketak egin ahal izatea".

**ANTZUOLARA BUELTAN**

Nagore Igartzak 12 urte egin ditu Bartzelonan. Diseinu Grafikoa ikastera joan zen eta ondoren Argazkilaritza ikasi zuen. Udazken aldera itzuli zen Antzuolara: "Hartutako erabakiarekin gustura nabil. Mediterraneo aldeko eguzkia utzi eta hemengo eguraldiari egokitzea ez da erraza gertatzen, baina... Hala ere, maiz joaten naiz Bartzelonara. *Freelance* moduan diseinu grafikoko lanak egiten ditut, eta horrek lotzen nau Bartzelonarekin".

Argazkilaritzan, paisaiekin jarraituz, elurraren inguruko zerbait egin nahi du hurrengo. Baina ez du zorterik izan, hemen izan ditugun elurteek Bartzelonan harrapatu dutelako. Elurraren esperoan orain...



Aroztegin ikusgai jarri duen argazki sortetako bat. NAGORE IGARTZA

MUSIKA > KONTZERTUA

# Petti eta Barrence Whitfield zapatuan Amaia antzokian

Elkarrekin atera berri duten diskoa aurkeztuko dute Arrasateko Amaia antzokian; hamar kantu batu dituzte disko horretan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Joan den asteko eguaztenean Basaurin hasitako bira trinkoari (zazpi kontzertu hamaika egunean) amaiera emanez, Petti nafarrak eta Barrence Whitfield estatubatuarrak (East Orange, New Jersey, 1955) elkarrekin atera berri duten diskoa aurkeztuko dute bihar, zapatua, Amaia antzokian.

Bakoitzak bost kantu aukeratu ditu, eta, horrela, hamar kanturekin osatu dute diskoa: "Rockeroa", Pettiren hitzetan. Nafarraren abestiak aurreko diskoetan sartu gabe geratu direnak dira: "Aspaldikoak dira, estiloagatik aurreko diskoetan sartzen ez zirenak. Denetarik dago; rock-androlleroak, surferoak eta countryak, besteak beste". *Bat ez bada bertze*, *Ehiza blues*, *Solasaldia*, *Min ixila* eta *The Lonesome cowboy* dira kantu horiek. Besteak beste, Steve Wynnen *Kerosene men* eta Tom Russellen *Veteran's Day* dira Whitfieldek hautatutako kantuak. Biak ere oso pozik azaldu dira esperientziarekin. "Aspalditxotik ezagutzen nuen Whitfield, Euskal Herrian ibilia baitzen lehen ere kontzertuak ematen. Duela urte batzuk Irungo jaietan izan zen, Bloody Mary dendako Juancarrek aurkeztu zigun, eta esan nion gustura grabatuko nuela zerbait berarekin. Itxura baten, nire aurreko lanak gustatu egin zitzaizkion eta elkarrekin grabatzeko aukera suertatu zen", dio Pettik. Whitfield bera ere oso gustura ibili da: "Musikak ematen duen gauzarik ederrena beste leku eta kultura batzuetako jendea ezagutzeko aukera da. Pettiren indarrak eta gitarra jotzeko grinak hasieratik harrapatu ninduten. Barruan daukadana Euskal Herrian erakustea aukera zoragarria da niretzat". Hasiera baten rock progresiboko taldeetan ibili zen Pettiren musika bikotekidea, baina berehala heldu zion benetan maite zuen musikari, soulari, bluesari eta rock-and-rollari.

**ARRASATEN TALDEAREKIN**

Bloody Hotsak zigiluaren eskutik, Katarain estudioan grabatu zituzten kantuak, iazko udan. Joseba Irazoki gitarrista, Beñat Irureta baxu-jotzailea eta Iñaki Guantxe bateria-jotzailea batu zitzaizkien grabazioan. Zapatuko kontzertuan Elkano Browning Cream taldeko Mikel Azpirozek ere hartuko du parte, teklatuekin. Kontzertua bihar, 20:00etan, Amaia antzokian. Sarrerak, 5 eurotan.



Petti, iaz Elgetan, Danbakako finalean emandako kontzertuan. J. ARANTZABAL

MUSIKA > 'TXARRANTXA 2005-2009'

## Ibarreko 11 talde Azpeitiko Txarrantxaren diskoan

Azken bost urteotan tabernatik igarotako musika taldeak dira diskoko protagonistak

E.M. > BERGARA

*Txarrantxa 2005-2009* diskoaren aurkezpena egingo dute bihar, zapatua, Azpeitiko Txarrantxa tabernan. Disko bikoitza da, eta 50 talderen abestiak jaso dituzte bertan. Hain zuzen, azken bost urteotan Txarrantxa tabernatik igarotako taldeak dira diskoko protagonistak. Debagoienari dagokionez, ibarreko 11 taldek hartu dute parte: Aggressive Combat, Golpe de Estado, Never Surrender, Material Rechazado, Ostiada Oi!, Des-Kontrol, Porron y Kuenta Nueba, Nealta Fola, Enboskada, Arkada eta Last Rebels.

Biharko aurkezpenean, 17:00etan hasita, Material Rechazado, Karkaba eta Apurtu taldeek joko dute. Luncha eta garagardoa doan izango dira.

> EMAKUME TXOKOA

### 'Emakumeak eta bertsolaritza' mahai-ingurua eguaztenean, hilaren 3an, Kulturaten

Arrasateko Emakume Txokoaren eskutik, *Emakumeak eta bertsolaritza* mahai-ingurua izango da eguaztenean, martxoaren 3an, Kulturateko aretoa nagusian, 19:00etan.

Bertan, Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapelketa nagusiko azken txapeldunak, Uxue Alberdi elgoibartarrak eta Ainhoa Agirreazaldegi elgetarrak hartuko dute parte. Azken biak ere azken bertsolaritza txapelketa nagusian lehiatu ziren, BECeko finalerako sailkatu ez ziren arren.

Urtetan gizonezkoena izan den bertsolaritza munduan emakumeek hartu duten protagonismoaren adibide garbiak dira hirurak eta horren gainean jardungo dute Arrasaten.

DEIA > DANTZALDIA

## 'Herrixa dantzan' ekimeneko bigarren hitzordua domeka arratsaldean Espaloian

Zapatuan Eskoriatzan helduko diote taldeko dantzak lantzeari, Patxi Monterorekin baita ere

E.M. > BERGARA

Urtarrilean abian jarritako egitasmoari eutsiz, *Herrixa dantzan* dantzaldi irekia egingo dute domekan Elgetako Espaloian, 19:00etan. Espaloia Kafe Antzokiak eta Elgetako Udalak antolatutako ekimena da eta Patxi Montero da dantza gidaria, musikaz arduratzen den Adolfo Jainagaren laguntzaz. Jendeak dantzan ondo pasatzea eta, aldi berean, Euskal Herriko dantzak ikastea eta Europako dantza folklorea deskubritzea dira helburuetako batzuk. Joan den urtarrilaren 31n egin zuten lehenbiziko saioa eta erantzuna ezin hobea izan zen: 100 lagunek inguruk hartu zuten parte. Hileroko azken domekan dute hitzordua interesatuek.

**ZAPATUAN ESKORIATZAN**

Bihar, zapatua, Eskoriatzan helduko diete taldeko dantzei, Patxi Monterorekin baita ere. Kultura etxean elkartuko dira, 17:30ean. Argibideak: 943 78 90 70.



Urtarrilaren 31n egin zuten lehenbiziko saioa Elgetan eta 100 bat lagun elkartu ziren. GOIENKARIA

**Juan Sangre** > Governors taldeko kidea

# "Ñabardura berriak baditu ere, lehen diskoaren jarraipena da oraingoa"

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

**Arrasateko Governors taldeak *Frenetikodrome* izeneko diskoa amaituta du. Proiektu horren bultzatzaile Juan Sangrerekin egon gara eta lan berriaren gaineko azalpenak eman dizkigu. Besteak beste, jakinarazi digu lana martxoaren erdialdean aurkeztuko dela; zuzeneko emanaldiekin, berriz, apirilaren bigarren astean hasiko dira.**


Juan Sangre, Governors taldeko abeslaria. GOIENKARIA

***Frenetikodrome*. Nondik atera duzue izenburu hori?**

Izenburu konplikatua jarri diogu. Horrekin laburtu egin nahi izan ditugu bizi izan ditugun azken lau hilabeteak. Hain justu, hori da diskoa osatzeko eta gertatzeko izan dugun denbora. Ekon taldearen itzulera bira eta Governorsen lan berria batera etorri ziren eta azken horren prozesua oso frenetikoa izan da.

**Nola joan dira lau hilabete horiek?**

Abestiak garatu ostean, lokalera eraman eta horiekin maketak egin genituen. Horrekin amaitzean, grabazio kontuekin hasi ginen pentsatzen. Azken hilabetea eman dugu diskoa Usurbilgo Higain estudio berrietan grabatzen, Haritz Harreguyren eskutik. Horren ekoizpenaz Haritz bera eta ni neu arduratu gara.

**Zer topatuko dute lan berrian Governorsen jarraitzaileek?**

Ñabardura berriak baditu ere, lehen diskoaren jarraipena da oraingoa. Gitarra indartsuek, erritmo biziek eta ahots boteretsuek osatzen dute diskoaren muina; azken finean, rock-and-rolla.

Hamar abesti berri izateaz gain, 2009ko Hatortxurock jaialdian erabilitako abestiaren nahasketa eta horren gaineko bideoklipa sartu ditugu. Jende askok eskatutako abestia da hori. Hatortxun saldutako materialean baino ez zegoen. Modu horretan, Internetetik kalitate txarrean deskargatzen ibili beharrean, jendeak betiko izango du abesti hori CD baten. Gehigarri barik, lan berriak 40 minutu inguru irauten du; aurreko lana baino luzeagoa da oraingoa.

> **"Apirila amaitu baino lehen emango dugu Debagoienean lehen kontzertua, Arrasaten"**

**Martxoaren erdialdean aurkezteko asmoa duzue lan berria, ezta?**

Bai, hala da. Martxoaren 18 eta 20 artean diskoa aurkezteko asmoa daukagu eta jarraian, egun gutxi batzuk utziko ditugu diskoari azken ukituak emateko eta kontzertuen bira behar bezala gertatzeko. Diskoaren aurkezpenarekin batera, dena dela, lan berriko kantuak entzun ahal izango dituzte jarraitzaileek, salgai jarriko da-eta.

Apirilaren bigarren astean, berriz, zuzeneko emanaldiekin hasiko gara. Oraingoz, ezin gara kexatu, ekainera arte beteta dugu-eta agenda.

**Noiz etorriko zarete Debagoienera?**

Donostian hasiko dugu bira eta, oker ez banago, apirila amaitu baino lehen emango dugu Debagoienean lehenengo kontzertua; hain justu ere, Arrasaten izango da hori.

**INGURUMENA** > KOBAZULOAK

# Praileaitz eta Arantzazuko aztarnategiez jardungo dute gaur arratsaldean Oñatin

## Hitzaldia 19:00etan hasiko da kultura etxean; bihar goizean, berriz, Arantzazura irteera egingo dute

**M.B.** > OÑATI

Oñatiko Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Astearen harira, gaur, egubakoitza, arratsaldean *Praileaitz eta Arantzazuko aztarnategiak* izeneko hitzaldia dago. Aranzadiko kide eta arkeologo Xabier Peñalverrek eta Sonia San Josek egingo dute berbaldi hori, 19:00etan, Oñatiko kultura etxean.

Lehenengo, Deban dagoen Praileaitzeko aztarnategiaz hitz egingo dute. Besteak beste, azken urteotan han egindako aurkikuntzen gainean jardungo dute; esaterako, erritu-funtzioa omen duten sutondoak, okrezko lapitz eta dekoratutako uharri beltzez osatutako hainbat lepoko. Horrek Praileaitzekoa Europa osoan lehen mailako aztarnategi bihurtu du. Jarraian, Praileaitz eta Arantzazuko aztarnategien arteko loturaz egingo dute berba.

**IRTEERA ZAPATU GOIZEAN**

Bihar, zapatua, berriz, Arantzazuko aztarnategietara joateko asmoa dute. Hitzaldian parte hartzen dutenekin gertatuko dute goizean egingo den irteera hori. Eloisa Uribarri arkeologoak lagunduko dio ekimen horretan Xabier Peñalverri.

**KOBAZULOEN I. EGUNA**

Bestalde, Mugarik Gabeko Lurpea izeneko taldearen ekimenez, martxoaren 7an, Kobazuloen I. Eguna egingo dute, eta, hori dela-eta, Arrikrutzeko sarrera erdi prezioan egongo da egun horretan.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
OTSAILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA
Bidali KLUBA ESAIT [Bazkidearen izena] 5195 zkra.


UMEENTZAKO PUZZLEAK
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen izena] 5195 zkra.


SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen izena] 5195 zkra.


EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Bidali KLUBA ZIRA [Bazkidearen izena] 5195 zkra.


OREKA TX ENTZUTEKO SARRERAK
Bidali KLUBA ESPALOIA [Bazkidearen izena] 5195 zkra.


SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE

• Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
• Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

## 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU/ALOKATU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+ BEZ).
GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+ BEZ).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Zarugalde kalean 89 metro koadroko etxebizitza salgai, 24 metro koadroko garajearekin. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bi komun. Deitu 943 77 13 91 zenbakira.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. Deitu 652 70 12 49 zenbakira.

**Oñati.** Kale Barrian eraikitzen ari diren etxeetako bat salgai. Oso prezio interesgarria. Lehenbailehen deituz gero, dena aukeratzeko aukera. Azulejoak, komunak... 665 73 96 51.

### 102. EROSI

**Etxebizitza** erosiko genuke Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasaten. Hiru logela edukitzea ezinbestekoa, baita igogailua ere. 200.000 euroraino. Partikularrekin bakarrik hitz egingo dugu. 663 72 78 23.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 636 73 54 94.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Deitu 651 70 79 96 zenbakira.

**Arrasate.** Apartamentuak ematen ditut errentan. Jantzita. Galdetu Igonegatik. 677 21 87 81.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Oso ondo kokatua. 659 44 86 79.

**Bergarako** alde zaharrean bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz berritua. Altzariekin. Oso atsegina. Deitu 656 85 38 30 zenbakira.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan Levante hondartzako lehenengo ilaran. Bi logela eta aparkalekua. Deitu 630 41 84 65 zenbakira.

**Hendaian** gelak ematen ditut errentan. Egonaldi luzeetarako, oporretarako edo asteburuetarako. Interesa baduzu idatzi mezu bat *davidlorea@aol.com* helbidera edo deitu 688 68 11 40 telefono zenbakira

**Oñati.** 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan plazatik 100 metrora. 450 euro. Deitu 687 32 99 57 edo 636 32 62 97 telefono zenbakietara.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Deitu 645 71 98 84 zenbakira.

**Oñati.** Olakua auzoan etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Garajea aukeran. Deitu 665 72 87 89 telefonora.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 615 79 27 56 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil; gutxienez, bi logela izan beharko lituzke. Hori bai, hiru logelakoa bada, hobeto. Deitu 636 80 87 68 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 609 38 86 47 zenbakira.

**Bergaran.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 699 09 46 26 telefonora.

**Bergaran.** Familia batek etxebizitza errentan hartuko luke. Deitu 650 62 12 94 edo 943 08 22 60 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Bikote batek logela bakarreko etxebizitza hartuko luke errentan. Deitu 655 74 41 60 telefonora.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu otsailetik aurrera. Berogailua eta igogailua. Egoera onean. 235 euro hilean. Deitu 606 74 42 37 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Lau logela eta bi bainugela ditu. Langileak bizi dira. Deitu 653 71 44 57 telefonora.

**Arrasate.** Logela jantzia ematen da errentan, erdigunean. Internetekin. Telebista, hozkailua eta abar logelan bertan. Deitu 647 28 82 41 edo 943 79 74 13 telefono zenbakietara.

**Bergara** erdialdean bi gela ematen dira errentan. Bata txikia eta bestea handitxoagoa. Deitu 943 03 62 00 edo 649 63 23 24 telefono zenbakietara.

**Bergaran** etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Bergarako erdialdean dago eta logelaren prezioa da 170 euro, bestelako gastuak barne egon barik. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** 18 metro koadroko garaje itxia salgai. Deitu 685 73 58 55 telefonora.

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. 686 02 56 56.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** Garajea ematen da errentan Ugarkalde auzoan. Deitu 645 71 98 84 zenbakira.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñatin.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 666 21 73 48 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Bulegorako egokitutako 90 metro koadro inguruko lokala eta 100 metro koadro inguruko lokal industriala, errentan edo salgai. Atsegina eta bista ezin hobeak. Deitu 943 76 33 56 telefono zenbakira.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Lokala hartuko nuke errentan. 250 euro ordaintzeko gertu nago. 943 53 29 18.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu 15:00etatik aurrera garbitasun zein plantxa lanak egiteko edo nagusiak zein umeak zaintzeko. Deitu 699 54 17 27 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Emakume serio eta arduratsua gertu orduka garbiketak egiteko edo jatetxeetan plantxan zein sukalde laguntzaile jarduteko. Deitu 647 16 40 49 telefonora.

**Arrasate.** Hemengo neska etxeko lanak egin, umeak zaindu eta edozein lanetarako prest, orduka ere bai. Deitu 659 55 27 16 telefono zenbakira.

**Arrasaten edo Bergaran** umeak zainduko nituzke; esperientzia daukat. Deitu 696 84 19 51 tefonofora.

**Bergara.** Asteburuetan edozein lan egiteko gertu. Deitu 654 98 69 14 zenbakira.

**Bergara.** Neska euskalduna gertu goizetan umeak zaintzeko. Astelehenetik eguenera 11:30ak arte eta egubakoitzetan 13:00ak arte. Irakaslea naiz. Deitu 650 27 75 82 zenbakira.

**Bergara.** Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nituzke; etxean edo ospitalean, baita gauez ere. Deitu 679 09 25 31 telefonora.

**Debagoiena.** Aste bukaeretan lan egingo nuke Bergaran edo inguruan. Nagusiak zaintzen eta garbitasun lanak egingo nituzke. Deitu 699 09 46 26 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua esperientzia eta informeekin gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Zerbitzari lan egiteko prest. Esperientziarekin eta tituluarekin. Deitu 671 35 22 60 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. Deitu 637 18 07 23 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Egun erdiz zein etxean bertan bizi izanda. Deitu 626 78 22 95 telefonora

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 697 93 73 32 zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. Deitu 637 18 07 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu tabernan lan egiteko edo garbiketa lanak egiteko. Christianengatik galdetu. Deitu 662 08 22 03 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. Deitu 663 65 78 43 telefono zenbakira.

**Oñati.** Neska euskalduna, arduratsua, haurrak zaintzeko eta etxeko gauzak egiteko prest. Deitu 618 09 47 87 edo 943 78 15 10 telefono zenbakietara.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Oñati.** Esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu edo etxeko lanak egiten lagundu. 6-12 urte bitartean. Arratsalde edo gauetan deitu. 651 70 85 13.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Nissan Micra** automatikoa salgai. Gidatzen erraza. Ia berria. 45.000 euro. 649 19 64 04.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Esneko arkumeak** saltzen dira, hilabetekoak, baserritik zuzenean. Debagoienean. 687 06 04 34.

**Mastina salgai.** Gaztea. Deitu 943 79 62 63 zenbakira.

### 703. EMAN

**Arratoi txakurra** ematen da. 943 79 62 63.

**Arratoi txakurra** oparitzen da. Hiru hilabete ditu. Arra. Beltza. 686 07 61 60.

**Setter ingelesa** ematen da oparí, ezin dudalako zaindu. 10 hilabete ditu. 646 47 58 84.

### 704. BESTELAKOAK

**Bergara.** Bost hilabeteko txakurra galdu nuen orain dela hiru aste. Mikrotxipa du eta 'Tekel' du izena. 150 eurorekin sarituko dut. 651 70 72 40.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Angiozarren** 1.500 metro koadroko lursaila salgai. Eraikitzeko baimena duena. Bi bizitzako etxea egiteko. 180.000 euro. 647 51 52 54.

**Boxeorako zakua** salgai. Debagoienean. 638 89 78 76.

**DVD** erreproduzitzaile unibertsala, Best Buy LTD sintonizatzaile eta gutzi. USB bidez telebista grabatu eta multimedia edukiak ikus daitezke. Erabili gabea. 40 euro (dendan 60 euro). Easy Home Combo Rec markakoa. Deitu 659 55 27 16 zenbakira.

**Karabana** salgai. Egoera ezin hobean. 2005ekoa. Debagoienean. 685 75 43 79.

**Pinarello bizikleta.** 54 neurrikoa. Aluminiozko koadroa. Karbonozko Look urkila. Ultegra-Dura Ace. Argazkiak bidaltzen ditut. 700 euro. Deitu 677 24 31 98 edo 943 78 29 19 telefono zenbakietara.

**Snow taula** salgai, US-40 markakoa. Taula eta fijazioak 85 euro. Taulak 1,65 metro neurtzen du eta egoera onean dago. 671 92 06 49.

**Telebista.** 2 urte dituen 28 hazbeteko telebista salgai. 170 euro. 616 22 49 64.

**Urrea.** 24 kilateko urrea salgai. 656 75 76 98.

### 802. EROSI

**Lursaila** erosiko nuke Bergaran edo inguruetan. 669 17 09 51.

### 804. HARTU

**Birkiendako** aulkia, arropa eta gainerako osagarriak hartuko nituzke, ezin ditudalako erosi. 671 77 15 42.

### 805. TRUKATU

**Korrika** egiteko makina trukatuko nuke bizikleta bategatik. Debagoienean. 638 33 03 01.

### 806. GALDU

**Autoko giltzak** galdu ditut Arrasaten. Honda autoarenak. Otsail hasieran. 653 01 76 67.

**Eraztunak Bergaran.** Kilometrotako buelta egiten hiru eraztun galdu ditut. Norbaitek aurkituz gero, mesedez deitu zenbaki honetara. Eskertuko da. 670 26 46 35.

**Kamera bila.** Inauteri-larunbatean, otsailaren 13an, argazkikamera galdu genuen indiarrarena egiten. Zorro beltz baten barruan sartuta dago. Inork aurkitu badu, eskertuko genioke itzultzea. Mila esker. Deitu 629 44 02 18 zenbakira.

**Trabesiako eskiak** galdu nituen otsailaren 12an Arrasateko Aldai kalean. Nordica markakoak. Jaso dituenak dei dezala honako telefonora:. 667 75 02 02.

### 807. AURKITU

**Galdutako giltzak.** Otsailaren 8an, astelehena, giltza batzuk aurkitu nituen Bergarako poligonoko aparkalekuan. Giltzak galdu dituenak dei dezala 630 62 15 97 zenbakira

## 9/ HARREMANAK

### 903. DEIAK

**Lekuko bila Bergaran.** Azaroaren 11n, 17:00etan, Bergarako Super Amara supermerkatuaren aparkalekuaren kanpoaldean bi pertsonaren arteko erasoan parte hartu zuen mutil gazte baten bila gabiltza, lekuko moduan epaiketara etortzeko. 657 79 79 35.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarrerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**KOMERTZIALA**

**behar du Debagoienerako**

Eskaintzen da:
- Laneko kontratua.
- Egun osoko lan jarduna.
- Soldata interesgarria.
- Lantaldean lan egitea.

Eskatzen da:
- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Marketineko ikasketak izatea.
- Lantaldean lan egiten jakitea.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Debagoienean edo inguruan bizi izatea eta ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali martxoaren 7a baino lehen ondorengo helbidera: *idazkaritza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**Jokin Mantxa** > Tronpeta-jotzailea

# "Denbora faltagatik ez nintzen hasi talde baten tronpeta-jotzaile"

Bereziki bi gauza ditu gustuko Jokin Mantxa bergarararrak: tronpeta eta saskibaloia. Horietako bat utzi behar izanez gero, erabaki zaila izango litzake gaztearentzat. Izan ere, bandan eta kiroldegian pasatzen ditu asteko ordu asko Mantxak. Horrez gain, ikaslea ere bada. Aurten hasi da unibertsitatean: Irakasle ikasketak egiten dihardu Huhezin.

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

**Agendaren beharra dauka Jokin Mantxak, oso lanpetua dago-eta. Egunak luzeak egiten zaizkio bergararrari. Etxetik goiz irteten da eta itzuli orduko ilundu du jada. Batez ere, arratsaldeak ditu lanpetuak Mantxak; izan ere, ikasketen, bandaren eta saskibaloiaren artean pasatzen ditu orduak.**

**Urte asko daramatzazu tronpeta jotzen?**

Txikitatik jotzen dut tronpeta. Uste dut 5-6 urterekin hasi nintzela. Arrebak biolina jotzen zuen, ni probatzen hasi nintzen eta, azkenean, tronpeta gustatu zitzaidan. Egon nintzen pare bat hilabete biolinarekin, baina ez zitzaidan gustatu. Instrumentu bakoitza probatzeko hilabete ematen dizute eta beste hilabete bat geratu nintzen biolinarekin. Gainera, tronboia ere probatu nuen.

**Musika Eskolan ibili zara tronpeta jotzen ikasteko. Zenbat urtez?**

Urte asko pasatu nituen Musika Eskolan. Solfeoan eta koralean ibili nintzen. Orain, horiek lagata ditut eta tronpetarekin eta bandarekin bakarrik jarraitzen dut. Bost bat urte izango dira bandan hasi nintzena. Instrumenturen bat faltan dutenean jendea hartzen dute. Ni sartu nintzenean, bi tronpeta-jotzaile joan ziren.

**Inoiz ahaztuko ez duzun momenturik bizi izan duzu Musika Eskolan?**

Diploma banaketa egin behar zen; hiru tronpeta-jotzaileri eman behar ziguten diploma eta hirurok batera abesti bat jo behar genuen. Ez genuen elkarrekin entseatu. Diploma hartzera joan ginenean, abestia jo genuen eta, normala izan zen moduan, nork bere erritmora jo zuen. Penagarria izan zen eta denok barrezka hasi ginen. Gurasoen aurrean izan zenez eta ez publiko handi baten aurrean, barre egin genuen. Orain gogora ekartzen dudanean lotsagarria izan zela ohartzen naiz, baina momentuan barre egin genuen.

**Gitarraren bidez sentimenduak islatzen dituzte askok. Tronpetak ematen du aukera hori?**

Hala izango da, baina ni oraindik ez naiz heldu puntu horretara. Emango du gaitasun hori, instrumentua delako eta musika sortzen duelako.










NAROA ODRIOZOLA

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 18 urte. **Ikasketak:** Kiroletako Irakasle ikasketak egiten dihardut Mondragon Unibertsitatean. **Zaletasunak:** Saskibaloia, tronpeta jotzea, marraztea... **Gustuko liburu bat:** *La sombra del viento,* Carlos Ruiz Zafonena. **Ikusitako azken filma:** Alex Proyasen *Yo Robot*. **Gustuko musika talde bat:** Berri Txarrak. **Amets bat:** Orain egiten dudan guztia, urte batzuen buruan, egiten jarraitzea. **Saskibaloi jokalari bat:** Ricky Rubio. **Bergarako lekurik politena:** Santa Ana parkea.

**Instrumenturen bat jotzen duen jende asko elkartu egiten da musika taldea sortzeko. Inoiz horrelako zerbait egitea pentsatu duzu?**

Talde batekin tronpeta jotzeko aukera izan nuen, baina ez daukat horretarako astirik. Eskatzen zidaten ia egunero entseatzera joateko, eta ez daukat astirik hori egiteko. Esan nien noizbehinka bazen, egingo nuela, baina egunero ezetz. Horregatik ez nintzen sartu, baina aukera izan nuen.

**Bergarako KE saskibaloi taldean jokatzen duzu. Noiztik?**

12 urterekin hasi nintzen saskibaloian jokatzen. Saskibaloia eta eskubaloia gustatzen zitzaizkidan, baina nagi samarra nintzenez saskibaloia aukeratu nuen. Hau da, garai haietan saskibaloiko infantil mailak Mariaren Lagundiko kantxan jokatzen zuen eta eskubaloian Labegaraietako kiroldegian jokatzen zen. Bada, kiroldegiraino ez joatearren, saskibaloia aukeratu nuen. Hala ere, hurrengo urtean, kadete mailan geundela, kiroldegira pasatu gintuzten. Orain, dudarik gabe hartuko nuke saskibaloia.

**Ligan jokatzen zabiltzate. Zer moduz zoazte?**

Aurten bi partidu besterik ez dugu irabazi urte osoan. Aurreko urtean kategoriaz igo ginen, eta, orain goiko ligan gaudenez, nahiko galduta gabiltza.

**Saskibaloia lotura da zuretzat?**

Batzuetan, planen bat izanez gero izorratu egiten zaitu, baina gustuko dut saskibaloia eta, azken baten, jokatzera zoaz, ez da lanera joatea. Gainera, barre asko egiten dugu gure partiduetan.

**Horrez gain, Irakasle ikasketak egiten diharduzu.**

Eskoriatzako Mondragon Unibertsitatean nabil. Kirol arloko Irakasle ikasketak egiten dihardut, kirola gustuko dudalako. Hasieran, arrebaren influentziaz, Ingeniaritza Mekanikoa egin nahi nuen, baina batxilerrean konturatu nintzen horretarako ez nuela balio.

**Agendaren beharrik izaten duzu denbora antolatzeko?**

Beharko nuke, baina ez dut erabiltzen. Gauza asko egin gabe uzten ditut askotan, eta hori, batzuetan, arazoa da.



GOIENKARIA

## Bagara egitasmoaren aurkezpena

Bagara egitasmoa aurkeztera etorriko dira *Goiena Magazinea*-ra, Iraitz Agirre eta Andoni Muxika (argazkian). Gizarte garapenerako gure ibarreko eragileak harremanetan jartzea du helburu egitasmoak.

**GOITB, 'Goiena Magazinea'**
> Martitzena, 19:45/21:15



GOIENKARIA

## Yolanda Arrietarekin berbetan

Idazlea izanda, hainbat arlotan lan egin du Yolanda Arrietak: literatura, antzerkia, idazketa tailerretako irakasle... Martitzenean *Ilunpean* saioan izango duzue aukera gertutik ezagutzeko.

**GOITB, 'Ilunpean'**
> Martitzena, 22:15
> Eguaztena, 20:45

## astea GOITBn

### Egubakoitza, 26

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Euskaldunak hizketan.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoa kultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Kiroleroak.
**23:15** Kalekantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

### Zapatua, 27

**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Barrebusa.
**11:30** On ein
**12:00** Goiena Magazinea.
**13:00** Eltze beroa.
**13:30** Erloklip
**14:00** 28 Klip
**14:30** Barrebusa.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea
**18:30** Gipuzkoa Kultura.
**19:00** Kalekantoi.
**19:30** Itsasoari begira.
**20:30** Kulturzulo.
**21:00** Ilunpean.
**21:45** sakonduz.
**22:15** Ikusten.
**22:30** Euskaldunak hizketan.
**00:00** Harmailatik.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Erloklip.
**01:30** Emisio amaiera.

### Domeka, 28

**08:00** Barrebusa.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Itsasoari begira.
**12:30** Erreportajea
**13:00** Ur eta lur.
**13:30** On ein.
**14:15** Goiena Magazinea.
**15:15** Gipuzkoa Kultura.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Barrebusa.
**19:15** Ikusten.
**19:45** Euskaldunak hizketan.
**20:15** Kiroleroak.
**21:00** Goiena Magazinea.
**22:00** Erreportajea.
**22:45** GipuzkoaKultura.
**23:15** Kulturzulo.
**23:45** Itsasora begira.
**00:15** Emisio amaiera.

### Astelehena, 1

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 2

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kurtulzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 3

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Kalekantoi
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 4

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Kalekantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

### Zapatua
**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Domeka
**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Albistegi laburra.

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 27 | Fernandez | Maisu Aranberri 1 | 943 79 22 26 |
| Domeka, 28 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 1 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 2 | Morales | Araba Etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 3 | Ruiz Perez | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 4 | Etxeberria | Zarrugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Egubakoitza, 5 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 27 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 28 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 1 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 2 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 3 | Urritikoetxea | Oxirondo Plaza 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 4 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 5 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 27 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 28 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 1 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 2 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 3 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 4 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 5 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA-ESKORIATZA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 27 | Anitua | Belorrieta auzoa | 943 08 11 43 |
| Domeka, 28 | Anitua | Belorrieta auzoa | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 1 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 2 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 3 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 4 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 5 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

**Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.**
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## herritarrak galdezka

### AZBE LANTEGIAREN ONDOKO PILAKETA

**Aretxabaletako herritar batek posta elektronikoz bidali digu mezua honakoa azaltzen: "Eskertuko nioke Aretxabaletako Udalari autoentzako egin dituen norabide aldaketak direla eta, udaltzainek tentu handiagoa izateko eta batez ere Azbe lantegiaren ondoan sortzen den pilaketa ekiditeko bertan egon daitezela zirkulazioa zuzentzen".**

Udaltzaingoarekin hitz egin dugu, eta, azaldu digutenez, momentu konkretuetan Azbe lantegian izaten dira zirkulazioa zuzentzen. Eguerdian, ordu bata aldera, eta arratsaldean, laurak inguruan, bertan egoten direla adierazi digu udaltzainetako batek.

### TXORIMALO LEHIAKETAN IZEN EMATEKO EPEA

**Bergarako herritar batek deitu digu honakoa galdetzeko: "Noiz bukatzen da Erramu-zapatuan ospatzen den txorimalo lehiaketako izenemate epea?".**

Ohikoa denez, Erramu-zapatuan txorimalo lehiaketa egiten da Bergaran. Edozeinek parte har dezake. Izena emateko (martxoaren 18ra arte epea zabalik): Jardun elkartearen egoitzan edo 943 76 36 61 eta 943 76 08 19 telefonoetan.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.
• Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
• Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 27**
Zerua hodeitsu egongo da eta euria egingo du, baina eguneko azken orduetan atertzen joango da. Haize bolada gogorrak ere izango ditugu.



**Domeka, 28**
Tenperaturak behera egingo du. Zerua hodeitsu egongo den arren, eguzkiaren izpiez gozatzeko aukera izango dugu. Haizeak indarra galduko du.

### EUSKAL HERRIAN



Haize bolada gogorrak izango ditugu zapatuan. Zerua hodeitsu izango dugu eta euria egingo du. Domekan, haizeak indarra galduko du eta tenperaturak behera egingo du.



Oñatiko **Felix Ibabe** eta **Dolores Lezeta** eta **Roman Guridi** eta **Juanita Ibabe** 1960ko otsailaren 27an ezkondu ziren Araotzen. Zapatuan, otsailak 27, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Lehendabizi, meza egingo dute agustindarren kaperan, eta ondoren, Etxe Aundi jatetxean bazkaria izango dute ospatzeko. Familiaren partetik, "zorionak elkarrekin bizi izateagatik horrenbeste denboran eta mila esker urte hauetan gugatik egin duzuen guztiagatik!"



**Ainara Unzalu** eta **Igor Lazkano** Otxandion ezkonduko dira martxoaren 27an. Familiak zorte ona opa dizue etapa berri honetan eta zoriontsu izan zaiteztela! Patxo handi bat, etxekoen partetik, eta ondo ibili larunbateko ospakizunean!





Bergarako **Ramon Agirre** eta **Karmen Goienak** urrezko ezteiak ospatuko dituzte datozen egunetan. Izan ere, ezkondu zirenetik 50 urte pasatu dira. Familiaren partetik, zorionak eta patxo handi bat!

## hildakoak

- **Jose Luis Urkizu Villarreal.** Oñatin, otsailaren 21ean. 73 urte.
- **Lorenzo Askasibar Heriz.** Arrasaten, otsailaren 20an. 82 urte.
- **Eulogio Aristimuño Kortabarria.** Bergaran, otsailaren 21ean. 80 urte.
- **Eulogenio Garai Lazkano.** Bergaran, otsailaren 22an. 85 urte.
- **Luis Maria Etxebarria Salazar.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 57 urte.
- **Jose Lete Gabilondo.** Bergaran, otsailaren 18an. 99 urte.
- **Nati Amitxaztegi Azpiazu.** Bergaran, otsailaren 19an. 79 urte.
- **Maria Pilar Zabala Iñarra.** Bergaran, otsailaren 20an. 94 urte.
- **Tomas Ugarte Lezeta.** Oñatin, otsailaren 23an. 68 urte.

OROIGARRIA

## Tomas Ugarte Lezeta

Lana Kooperatiba Elkarteko langile ohia

Oñatin hil zen 2010eko otsailaren 23an, 68 urte zituela.

Bat egiten dugu
familiaren saminarekin.



LANA

Lana Kooperatiba Elkartea
Oñatin, 2010eko otsailaren 26an.

OROIGARRIA

## Nerea Agiriano Barandiaran

Soraluzen hil zen 2009ko otsailaren 27an, 40 urte zituela.

*Gure oroimenean,*
*bihotzean eta irrifarrean*
*egongo zara betiko.*



Zure lagunak.
Bergaran, 2010eko otsailaren 26an.

OROIGARRIA

## Jose Luis Urkizu Villareal

2010eko otsailaren 20an hil zen, 73 urte zituela.

*Mila esker danagatik.*
*Asko maite zaitugu.*



Zure arreba eta ilobak.
Oñatin, 2010eko otsailaren 26an.

ESKER ONA

## Angel Milikua Yarza

Oñatin hil zen 2010eko otsailaren 15ean, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali
dizkiguzuenoi, eskerrik asko
sendikoen izenean.



Oñatin, 2010eko otsailaren 26an.

URTEURRENA

## Nerea Agiriano Barandiaran

Lehen urteurreneko meza domekan,
otsailaren 28an, 12:00etan, Bergarako
Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Eulogio Aristimuño Kortabarria

Bergaran hil zen 2010eko otsailaren 21ean, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali
dizkiguzuenoi, eskerrik asko
sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko otsailaren 26an.

URTEURRENA

## Oier Carballares Badiola

2000ko otsailaren 27an hil zen, 21 urte zituela.

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.*
*Eta inoiz itzaltzen ez delako,*
*gogoan zaitugu.*



Zure familia.
Eskoriatzan, 2010eko otsailaren 26an.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Otsailak 26-Martxoak 4

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



ESKORIATZA
**> Uek taldeak 'U-10' diskoa aurkeztuko du zuzenean Inkernu tabernan**

Keu Agirretxeren Uek taldeak *U-10* bilduma aurkeztuko du gaur, 23:00etan. Abesti batzuen bertsio akustikoak eta hiru abesti berri daude diskoan: Gordetako ilusioak, Gizaki ikusieziñak eta Zure presentzia.

## Erakusketa



OÑATI
**> Cantero eta Gurrutxaga argazkilarien lanak bisitatzeko aukera asteburuan**

Natura eta mendia gaitzat hartuta, *Hegaletan* izeneko argazki erakusketa zabaldu dute Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga argazkilari bergararrek. 50 bat argazki dira. Kultura etxean daude ikusgai aste bukaeran, 18:00-20:00.

## Zinema



ARRASATE
**> 'Simplemente' dokumentala aurkeztuko du John Anduezak barikuan, 20:00etan**

Joan den astean Donostian aurkeztu ondoren, John Andueza arrasatearrak *Simplemente* 77 minutuko dokumentala ekarriko du Amaia Antzokira, gaur, egubakoitza, 20:00etan. Down sindromea duten dantzari batzuen istorioa da.

## Erakusketak

BERGARA
**> Nagore Igartza antzuolarraren argazki erakusketa**

Nagore Igartza argazkilari antzuolarrak *Barneko lurraldea* izeneko argazki erakusketa ipiniko du Aroztegi aretoan. Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute erakusketa, iluntzeko zazpietan, eta martxoaren 21era arte izango da zabalik.

Astelehenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuak: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domekak: 12:00-14:00.

ARETXABALETA
**> Gerrako hilobien gaineko erakusketa ipiniko dute**

*Hilotzak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz* delako erakusketa ipiniko du Aranzadi Elkarteak, eta, horrekin batera, *Gerra Zibila eta errepresioa Aretxabaletan* delakoa, Intxorta 1937 kultur elkarteak. Martxoaren 2an hasi eta 24ra arte egongo da zabalik.

*Bestalde, Esklabotza Frankismoan* delako erakusketa bisita daiteke domekara arte.

Kultura etxean, honako ordutegian: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00, lanegunetan, eta 11:00-13:00, zapatuetan.

ARRASATE
**> Birziklatutako zaborrarekin egindako sormen lanak**

*Zaborreria* izeneko erakusketa ibiltaria dago egunotan Arrasaten. Kulturateko klaustroan dago.

Otsailaren 28ra arte.

BERGARA
**> Nekane Munduateren 17 margolan daude Nahikarin**

Otsail bukaerara arte, Nekane Munduate ataundarraren erakusketa dago Nahikari tabernan. Hainbat formatuko 17 margolan dira, gres, egurra, margo akrilikoak, argizariak... erabiliaz egindakoak. Gaiak dira natura, mitologia, paisaia atenporalak eta gizaparajeak.

Otsail osoan, Masterreka kaleko Nahikari tabernan.

ARRASATE
**> Nikaraguaren gaineko erakusketa, Harresi aretoan**

*Una vueltecita por Nicaragua* izeneko erakusketa izango da aste bukaeran Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Amsogra gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako erakusketa horrek Iñaki Agirianok egindako argazkiak batzen ditu.

Bihar eta etzi, zapatua eta domeka bisita daiteke erakusketa Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Ordutegia: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

## Ospakizunak

ARRASATE
**> Andaluziaren Eguna ospatuko du Al-Andalusek asteburuan**

Otsailaren 28an Andaluziaren autonomia estatutua onartu zeneko urteurrena da, eta Al-Andalus elkarteak ospakizun hauek antolatu ditu: bihar, zapatua, Sueños de Andalucía dantza taldearen emanaldia (20:00) eta Pedro Obregón flamenko kantari kordobarraren emanaldia (21:00); etzi, domeka, sevillana maratoia (12:00-13:00) eta Andaluziako ereserkia eta, segidan, koru rozieroaren eta Alegria de la Sierra taldearen emanaldia; bazkaria (15:00) eta Irusta taldearen emanaldia (17:00).

Al-Andalusen egoitzan izango dira ekitaldiak.

## Antzerkia

ARRASATE
**> Suso Seca eta Rafa de la Llaveren bakarrizketak Iamain**

Iamai kafetegiak 10 urte betetzen dituela-eta, hainbat ekitaldi berezi antolatu dituzte. Horien artean, Suso Seca eta Rafa de la Llavek osatutako bikoteak egingo dituen umorezko bakarrizketak daude.

Gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, gauerdian hasita.

ESKORIATZA
**> 'Prest gaude' umorezko antzezlan sariduna**

Iazko Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan lehenengo saria irabazi zuen Lakrikun taldeak *Prest gaude* antzezlanarekin, eta Eskoriatzan ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza. *Greban gaude* antzezlanaren jarraipen antzekoa da, eta, umore kutsuarekin, emakumearen gaineko aldarrikapen batzuk ere planteatzen ditu honakoak. Gurutze Eizmendi, Alaitz Olaizola eta Idoia Uranga dira aktoreak. Sarrera doan da.

Gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean.

BERGARA
**> 'Molestias clownicas' antzezlana egingo du Oihulari Klown-ek**

*Molestias clownicas* delako antzezlana egingo du Oihulari Klown-ek. Sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

## Musika

AZPEITIA
**> 'Txarrantxa 2005-2009' diskoa aurkezteko kontzertua**

*Txarrantxa 2005-2009* bilduma kalean da; Azpeitiko tabernan bost urte hauetan jo duten hainbat talderen abesti bana dago, tartean Debagoieneko 11 talderena. Aurkezpen kontzertua egingo dute Material Rechazado, Karkaba eta Apurtu taldeek. Luntxa, garagardoa doan eta musika emanaldia izango dira.

Bihar, zapatua, Txarrantxa tabernan, 17:00etan.

ARRASATE
**> Sexty Sexers eta Riff Truckers taldeen kontzertua**

Sexty Sexers eta Riff Truckers taldeek emanaldia egingo dute. Sarrera 6 euro da.

Bihar, zapatua, 3 Aretoan, 23:00etan.

## Hitzaldiak

BERGARA
**> 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimeneko hitzaldiak**

*Iruñeko erresumaren sorrerainokoa. Historiaurretik IX. mendera* delako hitzaldia egingo du Beñi Agirre adituak. Bergarako Udalak 1512-2012 Nafarroa Bizirik izeneko ekimenarekin batera antolatutako hitzaldi sorta baten barruan kokatzen da honakoa.

Martxoaren 3an, eguena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

## Ikastaroak

ARRASATE
**> Gazteendako larrugintza ikastaroa, Txatxilipurdirekin**

Martxoko eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara, larrugintza ikastaroa izango da Musakolako gaztetxokoan. 17 urtetik beherakoentzako izango da ikastaroa eta Ainara Kortabarria arrasatearra izango da berau bideratuko duena.

PROPOSAMENA

ARRASATE
### > Barrence Whitfield eta Petti, rock-and-roll-ak bateratuta

Barrence Whitfield eta Petti bakarlariek batera egingo dute kontzertua Amaia antzokian. Bostondik (Ameriketako Estatu Batuak) dator bata eta Beratik, bestea; gaztetasuna eta esperientzia, euskara eta ingelesa, rock-and-roll-ak batuko ditu. Biek batera baina talderik gabe aurkeztuko dute elkarrekin atera berri duten diskoa. Bloodyhotsaks taldeak ere joko du.

Sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, Amaia antzokiko *hall*-ean, 20:00etan.



Ikastaroaren prezioa 3 eurokoa izango da eta gerturatzen diren gazteek material guztia eskura izango dute.

Izena emateko, joan Txatxilipurdira edo Gazte Bulegora, edo deitu 943 79 54 46 telefono zenbakira.

ARRASATE

**> Biodantza jardunaldia egiteko aukera, doan**

Arrasaten, martxoaren 3an, 10:00-12:00, biodantza ate irekien jardunaldia egingo dute, doakoa. Yoga elkartearen Altamirako lokalean izango da.

Argibideak: 626 66 12 92 (Mentxu).

ARETXABALETA

**> Contact inprobisazio ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak**

Hasiera eta erdi mailako contact inprobisazio ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak. Egun batekoa izango da, martxoaren 21ean, 09:00etatik 15:00etara. Adriana Gascó eta Ruth Belaskoetxea izango dira irakasleak. Prezioa da 20 euro langileendako eta 15, gainerakoendako.

Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbidean.

ARETXABALETA

**> Dantza afrokaribetarrak Jaiki elkartearen eskutik**

Martitzenero, 18:30etik 20:00etara, kuartel zaharrean. Ekainera arte.

Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo *jaikielkartea@ayahoo.es* helbidean.

ARRASATE

**> Zeramika ikastaroa antolatu dute, hasiberriendako**

Zeramika hasiera ikastaroa antolatu du Loixe zeramika elkarteak. Martxotik irailera arte izango da, eta eskolak izango dira eguaztenetan. Gaztetxoek (6-12 urte) 20 euro ordaindu beharko dute hilero, eta eskolak 18:00etatik 19:00etara izango dituzte; 13 urte edo gorakoek 30 euro ordaindu beharko dute hilero, eta eskolak 19:30etik 21:30era izango dira eurendako.

Loixeren lokaletan izango dira eskolak.

Argibide gehiago edo izenematea, Gazte Bulegoan (943 25 25 65).

ARRASATE

**> Emakumeen Jabetze Eskolako ikastaro berria, martxoan**

*Grafikoki esparru publikoa aktibatzen* izenekoa egingo dute martxoaren 12tik aurrera.

Argibideak Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefono zenbakian.

## Bestelakoak

ARAMAIO

**> Arduraz kontsumitzearen gaineko tailerra egingo dute**

Sentsibilizazio kanpaina baten barruan, *Kontsumitu arduraz* delako helduendako tailerra emango dute datorren egubakoitzean, hilak 5. Etxean, dendan edo garraioan arduraz kontsumitzeko aholkuak emango dituzte. Eguena baino lehen eman behar da izena.

Izenematea, udaletxean.

# Zinema

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Simplemente**
Egubakoitza: 20:00.

**Sherlock Holmes**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Rompedientes**
Domeka: 17:00.

**GAZTETXEA**

**La princesa Mononoke**
Domeka: 17:30.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**La decisión de Anne**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Rompedientes**
Domeka: 17:00.

**Caramel**
Eguena: 19:30.

### OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**Sherlock Holmes**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Igelak eta zapoak**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Tres monos**
Eguena: 20:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**La sombra del poder**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Jack, Amazonaseko erregea**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GAZTETXEA**

**Las tortugas también vuelan**
Domeka: 18:00.

### ESKORIATZA

**IBARRAUNDI**

**Rudy txerri azkarra**
Domeka: 17:30.

### ELGETA

**ESPALOIA**

**My blueberry nights**
Eguaztena: 21:30.

### ARAMAIO

**KULTUR ETXEA**

**Madagascar 2**
Domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO ANTZOKIA**

**Shutter Island**
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.

**Percy Jackson y el ladrón del rayo**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**COLISEO 1**

**Invictus**
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 2**

**Up in the air**
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.

**Shutter Island**
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**The lovely bones**
17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:00, 19:45 (domeka).

**El último vuelo**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

**Al límite**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

**Percy Jackson y el ladrón del rayo**
17:30, 20:00 (egubakoitza eta zapatua); 17:30 (domeka).

**Up in the air**
22:30 (egubakoitza eta zapatua); 20:00 (domeka).

**Un hombre soltero**
17:30, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:30 (domeka).

**El solista**
22:30 (egubakoitza), 20:30, 22:40 (zapatua), 20:30 (domeka).

**Tiana y el sapo**
20:00 (egubakoitza), 17:00, 18:45 (zapatua eta domeka).

**Historias de San Valentín**
17:30 (egubakoitzetik domekara).

**En tierra hostil**
20:00, 20:30 (egubakoitza eta zapatua), 20:00 (domeka).

**Nacidas para sufrir**
20:00 (egubakoitzetik domekara).

**FLORIDA-GURIDI**

**I'm not there**
19:45 (egubakoitzetik domekara).

**Un profeta**
17:00, 20:00 (egubakoitzetik domekara).

**Amores locos**
17:30, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:00 (domeka).

**La cinta blanca**
18:45, 20:30 (egubakoitza eta zapatua); 20:00 (domeka).

**Shutter Island**
17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 17:00, 19:45 (domeka).

**Precious**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 17:30, 20:00 (domeka).

**Invictus**
17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:00, 19:45 (domeka).

**An education**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 17:30, 20:00 (domeka).

**Arthur y la venganza de Maltazard**
17:00 (egubakoitzetik domekara).

**YELMO CINEPLEX**

**Avatar (3D emanaldiak)**
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:45, 22:00.

**Day breakers**
16:20 (zapatua eta domeka), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Nine**
15:50 (zapatua eta domeka), 18:00.

**Sherlock Holmes**
19:50, 22:10, 00:30.

**Up in the air**
20:05, 22:05, 00:05.

**Tiana y el sapo**
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:15.
Domeka: 16:15, 18:15.
Gainerako egunak: 18:00.

**El hombre lobo**
17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**Invictus**
17:30, 20:00, 22:30.

**Percy Jackson y el ladrón del rayo**
15:45 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**La carretera**
20:10, 22:15, 00:20.

**Shutter Island**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:00, 21:45, 00:30.
Gainerako egunak: 17:30, 20:05, 22:40.

**The lovely bones**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:10, 00:45.
Gainerako egunak: 17:25, 20:00, 22:35.

**Historias de San Valentín**
15:35 (zapatua eta domeka), 17:50.

**Celda 211**
16:00 (zapatua eta domeka), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**Un hombre soltero**
Zapatua: 22:15, 00:15.
Gainerako egunak: 20:15, 22:15, 00:15.

**En tierra hostil**
15:30 (zapatua eta domeka), 17:40, 19:55, 22:10, 00:25.

**Al límite**
15:40 (zapatua eta domeka), 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

**Arthur y la venganza de Maltazard**
16:00 (zapatua eta domeka), 18:00.

**Planet 51**
16:00 (zapatua eta domeka).

Otsailaren 26tik martxoaren 4ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Avatar**
22:00.

**Sherlock Holmes**
22:15, 00:45.

**Historias de San Valentín**
19:00, 22:15.

**Invictus**
17:00, 19:35, 22:15, 00:50.

**The lovely bones**
16:30, 19:10, 22:05, 00:45.

**Al límite**
15:50, 18:05, 20:20, 22:40, 01:00.

**Tiana y el sapo**
16:05, 18:00, 20:00.

**Daybreakers**
16:00, 18:10, 20:20, 22:20, 00:30.

**La carretera**
16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Alvin y las ardillas 2**
17:00.

**El hombre lobo**
16:15, 18:15, 20:20, 22:30, 00:35.

**Arthur y la venganza de Maltazard**
16:00, 18:10, 20:15.

**Shutter Island**
16:15, 19:15, 22:00, 00:45.

**Percy Jackson y el ladrón del rayo**
15:45, 18:00, 20:20, 22:40.

Otsailaren 26tik martxoaren 4ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

**SHUTTER ISLAND** **

## Thriller hutsala

> **Zuzendaria:** Martin Scorsese.
> **Aktoreak:** Leonardo DiCaprio, Mark Ruffalo, Ben Kingsley.
> AEB, 2010. 138 min.

Jada *Infiltrados*-en azpijokoak, traizioak, konplotak eta errealitatean eta pertsonaien harremanetan geruza bat baino gehiago zegoela ikusten zen. Ba Scorsese-k *Shutter Island*-en hainbeste gezurren artean egia zein den bereizteko zailtasunak azaltzen ditu eta korapilo baten barruan egotearen sentsazioa areagotzen du, bukaeran zentzua hartzen duen thriller psikologiko bat osatuz.

50eko hamarkadan kokatzen den film honek hasieratik amesgaiztoen kutsu kezkagarria du. Garai horretan, 2. Mundu Gerraren ondoren, sorgin-ehiza, herrialde arteko susmoaz beteriko harremanak eta ezkutuko esperimentuen zurrumurruak izan ziren. Eta giro horretan garatzen da *Shutter Island*-en istorioa. Bi detektibe zoroetxe berezi bat duen irla batera iristen dira gaixo baten desagerpena ikertzera. Hasieratik pertsonaien arteko harremanak nahiko tenkatuak eta bereziak dira. Leonardo DiCapriok egiten duen detektibeak arazo psikikoak ditu eta, ikerketa aurrera doan neurrian, hark dituen ametsak eta errealitatea nahasten joango dira. Ikusleak ez du jakingo bukaera arte nondik nora dioan istorioa. Bai irudiak, musikak, argiak, egoerek eta aktoreen interpretazioek giro kezkagarria ematen diote filmari, baina ikusleak bukaera arte itxaron beharko du dena argitzeko. Eta hor datza filmaren gakoa: ikuslearen jakin-nahia piztuta dago eta bukaerako azalpenak zerikusi handia izango du ikusitakoaren balorazioan. Bai, dena nahiko lotuta geratzen da; Scorsese-k oso ondo filmatzen duenez, filma ondo ikusten da; baina hala eta guztiz, nahiko artifiziala izatearen sentsazioa sorrarazten du. Filmak ikuslea harritzea du helburu, eta harridura hori lortzeko zuzendariak ez du trikimailurik erabiltzen, zuzen jokatzen du eta, denak bere logika duen arren, orokorrean, eduki aldetik, nahiko hutsa da.

**Antonio Zabala**

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

## bono fotoa



**Eskualdeko parke honetan munduko zuhaitz espezie zaharrena dago, gingkoa, 200 milioi urtekoa. Zein da 1982an inauguratu zuten parkearen izena eta ze herritan dago?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

**ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:**

Hernaniko **Joxe Artola**.
**Erantzun zuzena: Don Pedruena etxean**




ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO
**BOTILA ARDO PACKA***
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Lerchago kriantza: botila bat.

**ERANTZUNA** ....................................................
IZEN-DEITURAK....................................................
HERRIA ........................ TELEFONOA ........................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-02-26

# Motor gainean Afrikan barrena

**LURMUTUR HIRIRAINO** Bixente Askasibar elgetarra motor gainean Afrika zeharkatzen ari da

**13.000 KILOMETRO** Bidearen erdia baino gehiago egin du; Angolara sartzeko agirien zain dago

ARRITXU BARRUSO > ELGETA

Bi gurpilen gainean Afrika goitik behera zeharkatzea: horixe da Bixente Askasibar elgetarraren azkenengo erronka edo esku artean daukan abentura.

Elgetan ondo ezagutzen dute Askasibar eta baita haren joanetorriak ere. Badakite abenturazale amorratua dela, edo, hobeto esanda, Afrikazale amorratua. Dagoeneko bost bidaia egin ditu kontinente beltzera, baina hegoaldeko puntaraino iritsiko den lehen aldia izango da hau.

Dena dela, abentura horretan elgetarra ez dago bakarrik; Unai Artaloitia zornotzarra du bide lagun. 2008an ere Afrikan zehar bidaia egin zuten elkarrekin furgonetan. Urtarrilaren 10ean Mauritanian elkartu ziren eta han hasi zen *Bizkaia -Cape Town* deitu dioten abentura.

**BLOGA IREKI DUTE**

Laster beteko dira bi hilabete Bixente Askasibar etxetik motorrean abiatu zena. 13.000 kilometrotik gora egin dituzte dagoeneko eta bidaiaren erdia baino gehiago egina daukate.

Egindako kilometroak asko dira, baina bizi izandako pasadizo eta anekdotak ez dira gutxiago. Horien guztien berri ematen dute ahal duten guztietan euren blogean: *andikona.blogspot.com*. Hain justu ere, horrela jakin genuen Mauritaniatik Senegalen barrena Ginea Bissaura joan zirela eta ondoren, Mali, Burkina, Togo eta Nigeria igaroz Kamerunera iritsi zirela. "Azkenean ere iritsi gara Kamerunera. Nigeria hegoaldea oso konplikatua da. Gure asmoetako errepidea ez du inork erabiltzen, lapurretak ekiditeko. Probatzeko gogoarekin geratu gara, baina beste batean izan beharko du. Ederrak gara gu! Oraindik ez dugu soborno bat bera ere ordaindu". Otsailaren 21ean Gabonera iritsi ziren: "Kamerundik Gabonen sartu gara, trafiko gutxi eta etxeak ondo zainduta. Batin herrian pasa dugu gau bat. Erresidentzia kristau batean lo egin dugu, gotzain baten ohean".

**HELMUGATIK GERO ETA GERTUAGO**

Martitzenean, otsailak 23, jakin genuen Kongora iritsi zirela eta Angolan sartzeko agirien zain zeudela: "Bost egun daramatzagu agirien zain". Helmuga gero eta gertuago dago. Angola pasatu ostean, Namibia etorriko da eta gero helmuga: Lurmutur Hiria (Hegoafrika). Datozen egunotan, beraz, gertutik segitu beharko dugu elgetarraren bloga.



ABENTURA Afrika, goitik behera, zeharkatzen ari da Askasibar. ANDIKONA.BLOGSPOT.COM

## ahobero

### "Krisia dagoeneko ez da finantzarioa; auzoko edo familiako krisia da"

**Celestino Corbacho** >
Espainiako Lan ministroa

Bai. Horrelaxe da, baina bai orain eta baita lehen ere; izan ere, familiak dira krisi ekonomikoa gehien sufritzen ari direnak. Espainian lau milioitik gora langabe daude momentu hauetan; hau da, familia asko. Horiek guztiak lasaiago egongo ote dira sistema finantzarioa eta bankuak krisitik irten direla jakinda?

## iturri onetik

### Jose Ignacio Munilla Bergarako Pertxa elkartean izan zen afaltzen astelehenean

Donostiako gotzain berria Bergaran ikusi dugu aste honetan. Astelehenean eta martitzenean Euskal Herriko gazte pastoraltzako arduradunek topaketa egin zuten Arantzazun. Donostiako gotzain berria, Jose Ignacio Munilla, bertan izan zen. Astelehen arratsaldeko batzarraren ostean Bergarako Pertxa elkartean afaldu zuten guztiek eta Munilla ere izan zen afaltzen.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

### Ines eta hondakinak

Gaur bertan ixten da Ines Gereka oñatiarrak Arrasateko Kulturaten jarritako erakusketa, 'Cachivaches' izenekoa. Lehenago ezin eta asteon ikusi dut. Eta eragin didan zirrara islatu nahi dut hemen, nahiz ikusle berririk ez diodan erakusketari emango.

Hondakinekin artelanak sortzen ditu Inesek. Eta harrigarria da nola besteok botatzen ditugun traste zaharrekin jantzi, margo edo altzari erakargarriak asmatzen dituen. Zirikatzailea da ikustea nola balio estetikoa edota funtzionala aurkitzen dituen guretzat inongo baliorik ez dagoen tokian. Hiperkontsumista esaten digu Inesek, modu jostalarian. Gutxiago botatzera gonbidatzen gaitu, bigarren erabilera topatzera. Eta bizipozez. Ez nuen espero hondakinen artean halako alaitasunik.

## ai, ene!



### Erosketen karrotxoa bizikletan bertan

Supermerkatu barrura sartzen utziko diote? Ez legoke gaizki; erosketak bizikleta gainean egin eta zuzenean etxera.

www.taringa.net

PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
etorri aurretik izena eman!
902 110 436
www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK
Goi Eskola Politeknikoa
ARRASATE MARTXOAK 11 osteguna - 17:30
Enpresagintza Fakultatea
OÑATI MARTXOAK 6 larunbata 10:00-13:00
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
ESKORIATZA MARTXOAK 11 osteguna - 18:00
ARETO NAGUSIAN